

NAFARROAKO
ESKOLA
KONTSEILUA
CONSEJO
ESCOLAR
DE NAVARRA

Monografia

Landa eremuko eskola
Nafarroan



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación

Titulua

Landa eremuko eskola Nafarroan

Kontseiluaren idazkaritza:

Teresa Pérez Juanco
Ana Reclusa Burgui
Aitor Urtasun Asiain

Lan hau Aitortu – Partekatu Berdin 4.0 Nazioarteko Baimen baten mende dago.
Iturria aipatzeko: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Eskola Kontseilua

**Azaleko marrazkia**

Pilar Pérez Gil

Jardunaldien argazkiak

Débora Dos Santos, Javier Herrero Álvarez y Ainhoa Roa Gorostidi

Maketazioa

José Joaquín Lizaur

Inprimaketa

Gráficas Lizarra S.L.

LG: NA 2130-2017

ISBN: 978-84-235-3454-8

Sustapena eta banaketa

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtza
Navas de Tolosa k. 21
31001 Iruña
Telefonoa: 848 427 121
fondo.publicaciones@navarra.es
<https://publicaciones.navarra.es>

Aurkezpenak

- 9 María Roncesvalles Solana Arana. Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Kontseilaria.
- 11 Aitor Etxarte Berezibar. Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria.

Hitzaldiak

- 17 Landa-eskola Aragoi. Ana Isabel Ayala Sender.
- 21 Landa-eskolak Katalunian, XXI. mendearen hasieran. Roser Boix Tomàs.
- 27 Aukera berriak Eskola Txikientzat. Mikel Goñi Sagastume.

Ekarpenak

- 39 *Cat Supermarket*, ingelesezko eta aztelaniazko proiektua. Arroizko La Balsa HLHIP. Noelia Echeverría Zalduendo, Leire Zabaleta Asiain, M^a Pilar Pellejero Miró.
- 45 Etxalar, Landagain eskola: komunitate inklusiboa. Aintzane Ollokiegi Egaña. Landagain eskolako zuzendaria.
- 51 Arnegi eta Luzaideko eskolen arteko mugazgandiko proiektua. Luzaide I.P. eta Arnegi I.P. Sylvie Arrijuria, Peio Beloqui Yaben, Ana Isabel Elizondo Ainciburu, Maite Eyherart, Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara.
- 61 Sakanako eskola txikiak. Jesús M^a Argote Novales, Lierni Galarraga Lekuona.
- 69 Cantónimo: harriduratik ikaskuntzara. Esther Leza Ongay.

Landa eremuko eskola Nafarroan

- 81 Landa eremuko eskola Nafarroan. Ainara Ayestaran, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa. Josu Etxanobe, Landa eremuko eskolen koordinatzailea. Aitor Etxarte, Nafarroako Eskola Kontseilua. Jesús Castiella, Hezkuntza Departamentua. Josune Isturiz, Eskubide Sozialetako lehendakariordetza. Miren Oñate, Hezkuntza Departamentua. Nora Salbotx, irakaslea eta formatzailea.

Aurkezpena

María Roncesvalles Solana Arana
Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Kontseilaria

Nafarroako biztanleriaren banaketa geografikoak erakusten du herrialdean banaturik 2.000 pertsona baino gutxiago dituzten herri ugari direla. Landa eremua zehazteko parametro gisa erabiltzen da zenbaki hori. Baina, datu hotzetik harago, eta gure erkidegoaren errealitatera gerturatuz, Nafarroaren ezaugarri dira erkidego osoan zehar banatutako 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten herri zoragarri eta biziak. Herri txiki hauek egiten dute berezi gure erkidegoa. Landa eremuko herrixkak, tartekako bisitariak erakartzeaz gainera, nafarren %14rentzat bizileku dira, eta, beraz, hango herritarren beharrei modu egokian erantzungo dieten zerbitzu anitzak eta eguneratuak eskaini behar zaizkie.

Nafarroako Eskola Kontseiluak antolatu zituen XIX jardunaldiek, erakundeak ohi duen begi onez, landa eremuko eskolaren egoera bistarazi zuten. Apirilaren 7an eta 8an egin ziren eta egungo egoeraren berri izateko zein landa eremuko eskolen erronkak ikustarazteko balio izan zien parte-hartzaileei.

Jardunaldien ondoren, seihileko lan mardulari amaiera emanez, landa eremuko eskolen inguruko txostena osatu da, eskola horien egoera graduantza eta inklusiboa azalduz. Hemen aurkezten dizuegun txostenak profesional eta pertsona askoren ekarpenak biltzen ditu landa eremuko eskolen inguruan. Beraz, txostenak landa eremuko eskolekin harremanen bat edo jakin-minen bat duten pertsona guztien interesekoa da.

Egindako ibilbide historikoaren errepassoarekin hasten da txostena, landa eremuko eskolaren ezaugarriak definitzen joan den prozesuaren inguruan. Gerturatze kronologikoak laguntzen du era horretako eskolak nola egituratzen diren ulertzen; ondoren, hainbat datu objektibo bildu dira hasierako informazioa osatzeko. Landa eremuko eskolen egungo egoeraren inguruko bestelako datuak datoz segidan eta eskola horiek berezi egiten dituzten ezaugarrien deskripzioa ere egiten da. Azkenik, hainbat proposamen egiten dira, txostena ixte aldera, landa eremuko eskola berrira bidean.

Txostenean jasotzen diren ekarpenak eta duen gaurkotasanak administrazioek aintzat hartzeko moduko dokumentua egiten dute esku artean duzun hau, era horretan, landa

eremuko eskola berria izendatu duten horretara bidean behar diren urrats egokiak eman ahal izateko.

Lerrootan, eskerrak eman nahi dizkiet jardunaldien antolaketan parte hartu dutenei, analisi zehatza egiten lagundu dutenei, nahiz txosten honetan jasotzen diren ekarpenak proposatu dituztenei.

Bilduma honetan aipatzen den Lev Tolstoiren esaldi batekin amaituko dut, gaurkotasun osoa izaten segitzen baitu eta landa eremuko eskolaren zerizana egokieran biltzen baitu: “Begiratu zure herrixka ongi eta unibertsala izango zara”.

Aurkezpena

Aitor Etxarte Berezibar

Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria

Nafarroako Eskola Kontseiluaren XIX jardunaldien gai nagusia Landa eremuko eskola izan da. Egitasmoa familia, irakasle, profesional eta udal arduradunei zuzendu diegu datozen helburuak modu irekian lantzeko:

- Landa eremuko eskolen diagnosia eta definizioa adostu.
- Beste lurraldeetan diren landa eremuko ereduak ezagutu.
- Hezkuntza komunitatea eta tokiko komunitatearen arteko harremana aztertu.
- Landa eremuko eskolen ezaugarri zenbait landu: tutoretza partekatua, ikasleen arteko kooperazioa, proiektu komunak, komunitatearen inplikazioa, ikusgarritasuna.
- Nafarroako Landa eremuko eskoletan egiten diren esperientzia esanguratsuak partekatu.

Aurreko guztia lantzeko eragile askoren laguntza eduki dugu urtebeteko epe luze eta emankorrean. Bereziki azpimarratzekoak dira ondokoak: Eskola Kontseiluko kideak; Landa eremuko eskolen koordinazio taldea; Hezkuntza Departamentuko Landa Eskolen Atala; Lanbide Heziketako Zerbitzua; Hezkuntza Departamentuko ikuskaritza; Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako Departamentua; Eskubide Sozialetako Lehendakariordetza; Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta adituak.

Jardunaldiak, beste aukerak mahai gainean jarri ondoren, Iruñean egin dira Nafarroako Museoaren aretoan eta Eskola Kontseiluko egoitzan.

Apirilaren 7an, Ezpeleta Jauregiko bilera aretoan, goizeko bilera itxia egin zen adituekin eta eragile ezberdinekin. Aldez aurretik landu zen gaitegia jarraitu zen kanpotik etorritako hiru adituen parte hartze zuzenarekin. Beraiek izanen ziren ondorengo saioaren protagonistak.

Egun berean arratsaldez lehenengo saio publikoa egin zen Nafarroako Museoaren areto nagusian. Aldez aurretik izena emateko bi bide zabaldu ziren: Hezkuntza Departamentuak irakasleentzat egin zuena, ondoren akreditazioa eskuratzeko baliagarria dena,



eta Eskola Kontseilutik gainerako pertsona interesatuentzat. Sarrerako hitzaldietarako proposatu zen Landa eremuko eskolen definizioa eta errealtateak garatzea gertu diren erkidegoetan: Aragoi, Euskadi eta Katalunian. Adituen aukeraketa prozesuan beraien erkidegoetan egindako ibilbide luze eta mamitsua baloratu zen. Hizlariak izan ziren:

- Ana Isabel Ayala, Aragoiko Hezkuntza Departamentuko Berrikuntza, Ekitate eta Parte Hartzeko Zerbitzu burua;
- Mikel Goñi, Euskadiko Eskola Txikien Koordinatzailea;
- Roser Boix Tomàs, Bartzelonako Unibertsitatean Hezkuntza Fakultateko Dekanoa.

Bigarren saio publikoa apirilaren 8an egin zen Museoaren areto nagusian. Aurreko urtean finkatutako Jardunaldien eredia jarraituz, eskolen praktika esanguratsuak aurkeztu ziren. Gure topaketara landa eremuan dagoen aniztasuna ekarri nahi genuen. Eskolak eta proiektuak aukeratzeko landa eremuko koordinatzaileen parte hartze zuzena izan zen eta, jakina, eskolen lana. Nekez ulertuko dira Jardunaldiak ikastetxe hauen konpromezu eta lan arduratsua haintzat hartu gabe. Komunikazioetan gidariak irakasleak izan ziren baina, azpimarratzeko kontua da, bestelako testigantza esanguratsuak: gurasoak, alkateak eta zinegotziak, ikuskaria, gizarte langileak edo arkeologo bat. Hona hemen landutako aurkezpenak eta protagonistak:

Arroniz. Cat supermarket.

Leire Zabaleta Asiain, irakaslea.
Noelia Echevarría Zaldueño, irakaslea.
Pili Pellejero Miró, eskolako ama.

Etxalar. Komunitate inklusiboa.

Aintzane Ollokiegi Egaña, Landagain ikastetxeko zuzendaria.
Miguel Mari Irigoien Sanzberro, Etxalarako alkatea.
Nuria Cano Suñien, eskolako ama.
Alizia Sagaseta Irigoien, gizarte langilea.
Jokin Apezetxea Azkarate, gizarte langilea.

Luzaide-Arnegi. Nazioarteko lankidetzak.

Mikel Fernández de Quincoces Martínez de Birgara, Ikuskapen zerbitzuko zuzendaria.
Ana Bel Elizondo Ainciburu, Luzaideko eskolako zuzendaria.
Peio Beloki Yaben, Luzaideko eskolako irakaslea.
Maite Eyherart, Arnegiko eskolako zuzendaria.
Mixel Granada Camino, Luzaideko zinegotzia.
Juanjo Madurga Sueiro, eskolako aita.
Xabi Larrañeta Camino, eskolako aita.

Sakana. Eskolen abiapuntu berritzailea.

Ainara Martín Busto, Arbizuko eskolako zuzendaria.
María González San Pedro, Urdiaingo eskolako zuzendaria.
Josema Leitza Razkin, eskolako aita.
Emma Martínez Arnaiz, Olaztiko eskolako zuzendaria.

Lierni Galarraga Lekuona, formazioko arduraduna.
Txus Argote Novales, Sakanako koordinatzailea.

Uxue. Cantónimo: Aurkikuntzatik ikasketara.

Esther Leza Ongay, eskolako zuzendaria.
Carlos Zuza Astiz, arkeologoa.

Bigarren saio publiko honetan aldibereko itzulpen zerbitzua eskaini zen aurkezpenak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez egin zirelako. Guztiaren berri IDEA aldizkariaren ondoko artikuluetan jasota dago.


Jardunaldiak egin aurretik, bitartean eta ondoren Eskola Kontseiluaren atari digitalak guztiaren berri eman du. Besteak beste, lehendabiziko egunean egindako hiru aurkezpen magistralak oso-osorik ikusi eta entzuteko moduan dira. Horrekin batera, jakina, IDEA aldizkariaren ale hau izanen da eta osagarriak diren beste artiboak (aurkezpena, irudiak edo komunikabideen ekarpenak)

Bestalde, baldintza teknikoetan gurekin aritu dira: diseinu grafikoan Pilar Pérez Gil (Corellako Arte Eskola) irudien dokumentazioan Ainhoa Roa Gorostidi, Débora Dos Santos eta Javier Herrero Álvarez (Iruñeko Arte Eskola) edo Mikel Calvo (Nafarroako Museoko teknikaria).

Baina hemen ez da bukatzen Jardunaldiek sortutakoa. Landa eremuko eskolen errealtatea gertutik ezagutzeko, Nafarroako Parlamentuaren Hezkuntza Batzordeari proposatu zitzaion bisitaldi berezia egitea eskola hauek bere testuinguruan egiten duten funtzioa ulertzeko. Eskolako koordinatzaileekin adostu zen egokia izan zitekeela goiz bakarrean tipologia ezberdina duten bi eskola ezagutzea: Iturengoa (67 ikasle osotara) eta Saldiasekoa (9 ikasle osotara).

Maiatzaren 3an Malerrekako bi eskoletara egindako bisitan eragile ezberdinak elkartu ziren: Hezkuntza departamentuko arduradunak, parlamentariak, Eskola Kontseilua, irakasleak, udal ordezkariak eta gurasoak. Maria José Bereau Baleztenak, Iturengo alkatesak, eta Jacinto Dominguez San Nazariok, Saldiaseko alkateak harrera egin zuten. Arantza Díez de Aranburu eta Mikel Colomo Gurbindok, eskolen zuzendariak gidatu zuten jarduna, hurrenez hurren, landa eremuko eskolen ezaugarriak azalduz. Ezin hobea suertatu zen guztiontzat ikusitakoa eta izandako solasak.

Eta aurreko guztia eztabaidatzen eta erabakitzen zen bitartean batzorde txiki bat Nafarroako landa eremuko eskolek duten zorra bat kitatzeko lehendabiziko urratsa ematen aritu da: egoeraren ebaluazio zehatza eta aurrera begira proposamenak osatzen duen txostena. Diren gabeziak bideratzen hasteko, egungo errealtatea ezagutu behar da eta etorkizuna asmatzeko premia dago. Hor aritu dira nirekin batera Josu Etxanobe (Landa eremuko koordinatzailea), Jesús Castiella eta Miren Oñate (Hezkuntza departamentua), Josune Isturiz (Eskubide Sozialetako lehendakariordetza), Ainara Ayestaran (Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa) eta Nora Salbotx (aditua). Eskola Kontseiluak egindako proposamena jaso eta aurrera egingo duelakoan nago. Ondoren gizartearen ordezkari politiko eta adituen ordua izango da. Nafarroako Landa eremuko eskolen premia aho batez onartzen dugun garaian urratsak zehazteko Plana behar da.



Bukatzeko. Jardunaldiak gauzatzeko igaro diren hilabete luze hauetan batzorde zabal eta anitza elkartu da maiztasun handiz kale Nagusiko gure egoitzan. Landa eremuko koordinatzaileak izan dira, Gobernuko departamentu ezberdinen ordezkariak, udal eta kontzejuenak edo adituak. Beraien meritua izan da egindako guztia. Nafarroako Eskola Kontseiluaren izenean beraien denbora eta jakintza eskertu nahi dut bereziki: bidelagun bikainak izan zarete.

Landa-eskola Aragoian

Ana Isabel Ayala Sender

Aragoiko Gobernuaren berrikuntza,
ekitate eta partaidetza Zerbitzuko Burua
<https://youtu.be/8bD7iVGF-Lw>

Aragoiren nortasun-ezaugarria da landa-eremuko eskola. Landa-eskolak Landa Ikastegi Bateratuen bidez (CRA) egituratzen dira, eta horrek herri ezberdinetako ikasleak biltzen ditu eskola garraioaren bitartez. Hezkuntza Berrikuntzarako Landa Zentroek (CRIE) urrats desberdinak egin dituzte baina izaera berritzailea azpimarratu da azken urte hauetan. Gainera, sare zabal honek beste bi sareren laguntza jasotzen du: Orientazio Taldeen sarearena eta oraingo Berrikuntzarako eta Irakasleen Prestakuntzarako Zentroena (CIFE).

Hitz gakoak: landa-eskola, identitatea, Aragoi, sareak, orientazioa, CRA, CRIE.

Aragoin lurraldea goitik behera zehazten dute hiri- eta landa-eremuen arteko desberdintasunek. Autonomia-erkidego honetan, Espainiako biztanleriaren % 2,8 bizi da, lurraldearen % 10ean.

Ildo honetan, landa-eskolak nortasun-ezaugarria dira Aragoirako. Baina, zer aipatzen dugu landa-eskola diogunean? Aragoian landa-eskolatzat jotzen dira landa-eremuetan ikasleak eskolaratzen dituztenak, bai eskola-garraioaren bidez zenbait udalerritako ikasleei arreta emanez, bai Landa Ikastegi Bateratuen (CRA) bidez eta bai 9 unitate baino gutxiago dituzten udalerririk bakarreko eskolen bidez (osatu gabeak).

Gainera, landa-eskolek Hezkuntza Berrikuntzarako Landa Zentroak (CRIE) dituzte, eta horien funtzioa geroago aztertuko dugu.

Eredu hau ahalegin handiarekin jarri zen martxan aurreko legealdietan, gobernu sozialistaren eskutik, eta berriro ekin zaio legealdi honetan. Hala, tokiko erakundeei laguntza eman zaie lehen zikloko haur-eskolak irekitzeko, eta tokiko erakunde horiekin zein irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuekin hitzarmenak sinatu dira, etengabeko prestakuntzari arreta emateko. Horiek guztiak landa-inguruneetako hezkuntza-arretako sarea osatzen dute. Baina landa-eskolen ereduaren kontzentratuko naiz.



Eredu honen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Ikasleak beren jatorrizko udalerrietan gera daitezen sustatzea.
- Eskaintzen den prestakuntzaren kalitatea mantentzen ahal izatea (espezialistak eta baliabideak).
- Tokiko erakundeak hezkuntzan inplikatzeko.
- Gizarte-ehuna sortzea.

Landa Ikastegi Bateratuak (CRA)

Landa-eskolen ereduko elementu garrantzitsuena CRA da. CRA eskola bakarra da, zenbait udalerritan ikasgelak dituena, hezkuntza-proiektu bakarrarekin, irakasle-talde bakarrarekin eta hezkuntza-komunitate bakarrarekin.

Une honetan 74 CRA daude Aragoi, eta 8.800 ikasle inguru daude horietan eskolatuta, 300 udalerritan baino gehiagotan. CRA bat 4 udalerrik osatzen dute, batez bestez, baina badaude 2 udalerrik edo 9 udalerrik osatutakoak. Eskolatutako ikasleak askotarikoak dira. 14 udalerritan bakarrik daude 100 ikasle baino gehiago eta udalerririk bakarrean daude 300 baino gehiago. Nabarmenezkoa da, legealdi honetan, eskola bat mantentzen ahal izateko gutxienez 4 ikasle, edota salbuespen gisa, 3 ikasle egotea onartu zela.

CRA zentroen ereduak nolabaiteko antolamendu-malgutasuna baimentzen du, izan ere, horien bidez, askoz modu malguagoan ireki daitezke ikasgelak (unitateak) udalerririk batean, eskola berriak izanzen balira baino.

Hezkuntza Administrazioarentzako, oso pozgarria da CRA bat bitan banatu behar izatea, horrek esan nahi duelako CRA horren ikasle edo udalerririk kopuruak entitate osoko bi CRA sortzeko adina egin duela gora. Halaber, horrek esan du landa-eremua hazi egin dela.

Hezkuntza Berrikuntzarako Landa Zentroak (CRIE)

CRA zentroz gainera, Aragoiko landa-eskolek CRIEak dituzte, hots, Hezkuntza Berrikuntzarako Landa Zentroak. Horiek landa-eskoletako ikasle eta irakasleei udalerrri handietako moduko kalitate eta berrikuntza eskaintzeko helburuarekin jaio ziren.

CRIEak 1984an sortu ziren eta zenbait definizio- eta funtzionamendu-etapa izan dituzte. Sortu zirenean, CRA eta eskola osatugabeek arreta emateko zentro gisa integratzen ziren, modu lehenetsian. Hala, horien programazioan, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleen egonaldia integratzen zen modu normalizatuan. Irakasle-taldeak koordinatu egiten ziren, ez zedin ikas-bidaia izan, baizik eta eskolekin beste espazio batean jarraitzea eta eskola horiek beste landa-eskola batzuetako ikasleekin banatzea. Horrela bi helburu betetzen ziren: batetik, ikasleen sozializazioari laguntzea eta, bestetik, landa-eremu osoan modu orokortuan garatzeko zailak ziren proiektu espezifikoak gauzatzea.

Sortu zirenetik, zenbait aldaketa izan dituzte. Lehen aldaketa CRIEen funtzionamenduak berak eragin zuen. Izan ere, nolabaiteko ibilbidea izan duen edozein erakunderen kasuan gertatzen den moduan, berrikuntza sustatzeko izaera galdu zuten. 2014an, berriro egin ziren, berrikuntza-esparrua indartuta. 2011n ikastegietako programazioak integratzeko izaera galdu zuten, landa-eskolak garestiegiak zirela jotzen zuen gobernu baten eskutik, eta kolonia antzeko zerbait izatera pasa ziren, irakasle-taldeen egindako ahaleginengatik ere. Doakotasuna galdu zen, ondorioz, landa-eskolek atzera egin zuten zegozkien asteak eskatzen, eta denbora horiek hirietako ikastegietara ireki ziren. Une honetan, doakotasuna berreskuratuta da eta, pixkanaka, landa-eskolei laguntza eskaintzeko jatorrizko helburuari eutsi diote berri.

Irakasleen Orientazio eta Prestakuntzarako Ekipoak (CIFE)

Landa-eskolen eredu hau bi sare garrantzitsutan oinarritzen zen: Orientazio Taldeetan oinarritutako orientazio-sarean eta irakasleen prestakuntzarako sarea (garai bateko Irakasle eta Baliabide Zentroak -CPR- eta egungo Irakasleen Orientazio eta Prestakuntzarako Zentroak -CIFE-). Bigarren sare hori pasa den legealdian desagerrarazi zen eta, une honetan, poliki ari gara berreskuratzen. CPR edo CIFEek berebiziko rola zuten, eta dute, landa-eremuetako irakasleentzako. Izan ere, prestakuntzaz gainera, berdinen arteko eztabaidarako eta ikaskuntzarako elkargunea eskaintzen dute, eta hori oso beharrezkoa da landa-eskoletako irakasleentzako, lehen ere ezaugarrien artean aipatu dugun moduan, ikastegi eta udalerrien artean distantzia handiak daudelako.

Uste dugu landa-eskolak antolatzeko eredu honek, lehen aipatutako helburuak betetzea ahalbidetzeaz gainera, beste bi helburu ere lortzea ahalbidetzen duela: horietako batez, hezkuntza-berrikuntzaz, bereziki harro gaude, gure landa-eskola definitzen duelako. Aipatzekoak dira Ariñoko CRA edo Alpartirko eskola, gure autonomia-erkidegoaz haratago ere ospea lortu duten bi adibide aipatzearen. Halako adibideek argi uzten dute Aragoiko landa-eskoletan ari dela zerbait mugitzen. Bigarren helburua partaidetzari dagokio. Landa-eremuetako hezkuntza-komunitateek partaidetza sustatzen dute, Ballobar udalerriko *Leer Juntos* programak edota Valdejalón eskualdean aurkeztu berri den proiektuak agerian uzten duten moduan.

Oraindik egiteko asko geratzen den arren, jakina, hezkuntzak etengabe mugitu behar du, helburuak lortuko badira eta, batez ere, ezinbestekotzat jotzen ditugun ekitate- eta kalitate-mailak mantenduko badira.

Erronka gisa planteatuko ditut, horrela gustatzen baitzait administrazioaren lana planteatzea. Une honetan, Aragoi Hezkuntzaren aldeko Ituna prestatzen ari dira buru-belarri. Proposamena Eskola Kontseiluan prestatu zen, partaidetza eta ahalegin itzelarekin. Itun horretan *Landa Eskolen Behatokia* sortzea jaso zen, eta prestaketa-bidean dago jadanik. Behatoki horri esker, eredia hobetu nahi dugu eta *Landa Eskolarako Plan Estrategikoa* prestatu nahi dugu, oraingo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Erronka horien artean daude irakasleen egonkortasuna (jadanik ari dira zenbait proposamen lantzen) edota Bigarren Hezkuntzari erantzutea planteatzea, datorren ikasturtean sortuko diren Oinarrizko Hezkuntzako Zentro Publiko Integratuak garatzearekin.

Landa-eskolak Katalunian, XXI. mendearen hasieran

Roser Boix Tomàs

Bartzelonako Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko dekanoa

<https://youtu.be/Zg9fKTr1apg>

Gaur egun Katalunian, adostasun handia dago landa-eskolaren definizioari buruz: txikia, herrikoa eta publikoa da. Kataluniako hezkuntza-politika lurraldean sustraitutako eskolan oinarritzen da, identitate pedagogiko eta kulturalarekin eta bertan, maisu-maistrak dira herriz herri mugitu behar direnak, eta ez haurrak. Landa eremuko hezkuntzaren kalitatea ezin da hobetu, ez bada landa-eremuko ikerketa sustatzen.

Gako-hitzak: desplazamendua, geografia propioa, herria, identitate kulturala, identitate pedagogikoa, ikerketa, landa-eskola, lurraldea.

Adostasuna Kataluniako landa-eskolen definizioaren inguruan

Landa-eskolak definitzeko parametro demografikoak, biztanleen tipologia eta haien jarduera ekonomiko eta profesionala, landa-lurraldearen kategoria eta abar hartu dira kontuan. Baina landa-eskolak gradu anitzeko izaera dute, lurraldeari sustraituta daude, herriko bizitza sozial eta kulturalaren zati baten dinamizatzaileak dira, eta lurralde-dimentsioaren eragile dinamikoa dira elkar osatzen duten zenbait ikuspegitatik: kide aktiboa da lurraldeko sistema instituzionalean, identitate eta emozioen hartzaile da, tokiko kapital soziala metatzen du eta landa-eremuetako gizarte-erakuntza eratzen duen elementua da.

Gaur egun, Katalunian, landa-eskolen arloan laguntzen dute eta lan egiten duten instituzio eta organismoen artean nahiko adostasun zabala dago eskola mota hauen definizioari buruz; landa-eskolak txikiak, herrikoak eta publikoak dira. Definizio hori, aurreko paragrafoan formulatutakoarekin bat (Landa Eskolen Idazkaritzako kide aktiboek 1990ko hamarkadaren amaieran adostu zutena), gaur egun onartzen dena da, halaber, Kataluniako Landa Hezkuntzaren Behatokia, Kataluniako Landa Eskolen Unibertsitate arteko Taldean eta Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Departamentuan.



Konplizitate instituzionala, Kataluniako landa-lurraldeetako hezkuntza-erreferente gisa

Kataluniako landa-eskolek zenbait instituzio eta organismoren laguntza dute, eta horiek landa-eskolak landa-eremuetako hezkuntza-erreferente gisa finkatzeko lan egiten dute. Eskaintzen den hezkuntzaren kalitatea hobetzeko helburu komunarekin eta, gainera, eskolek dauden lurraldean rol garrantzitsua izan dezaten lan egiten dute. Honako hauek dira instituzio eta organismook:

Secretariat d'Escola Rural de Catalunya (SERC)

Idazkaritza hori Kataluniako berrikuntza pedagogikoko mugimenduen jarduera-esparrua da. Landa-maisuek osatzen dute eta honako helburu nagusi hauek dituzte: Kataluniako Landa Eskola ordezkatzea; eskola mota honen arazoak ezagutzea eta bideratzea, eta arazo horien konponbidea negoziatzea; Katalunia osoko landa-eskoletako taldeek prestatzen dituzten material didaktikoak ezagutaraztea; eta eztabaidarako gaiak proposatzea, aldi behin egiten diren landa-eskolei buruzko jardunaldietan. 25 urte baino gehiago igaro dira Idazkaritza sortu zenetik.

<http://escolaruralsecretariat.blogspot.com.es>

Grup Interuniversitari d'Escola Rural de Catalunya (GIER)

Titulartasun publiko zein pribatua duten eta Irakasle Gradua eskaintzen duten Kataluniako Unibertsitateetako Hezkuntza / Hezkuntza Zientzien Fakultateetako irakasle talde batek osatzen du. Horietako irakaskuntza- eta ikerketa-ildoetatik abiatuta, unibertsitate-instituzioak landa-eskolen hezkuntza-alderdietan eta alderdi sozialetan interesatzera eramaten dituzte. Idazkaritza duela 20 urte baino gehiago sortu zen.

Observatori d'Educació Rural de Catalunya (OBERC)

Ikerketa, dokumentazio eta material didaktikoen prestakuntzako zentroa da, eta, orobat landa-hezkuntzako jardunbide onak biltzeko eta ezagutarazteko balio du. Herrietako hezkuntzarekin lotura duten erakunde eta administrazio eskudunen artean esperientziak eta ideiak trukatzeko eta elkar topatzeko puntu gisa ere jarduten du.

<http://oberc.fmr.cat/>

Departament d'Ensenyament. Xarxa Telemàtica Educativa de Catalunya

Kataluniako Hezkuntza Sare Telematikoko espazio bat da, Kataluniako Generalitateko Hezkuntza Departamentuaren barruan. Landa-eskolei zuzenduta dago eta bertan esku-agarri dago Kataluniako landa-eskolei buruz dagoen informazio guztia. Gainera, elkarriketa zuzena dago Hezkuntza Departamentuaren eta lehen aipatutako organismo eta instituzioen artean, landa-eremuetako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko helburuarekin.

<http://xtec.gencat.cat/ca/curriculum/escolarural/>

Kataluniako landa-eskolaren antolamendua XXI. mendean

Kataluniako hezkuntza-politika lurraldean sustraitutako eskolan oinarritzen da, identitate pedagogiko eta kulturalarekin eta bertan, maisu-maistrak dira herriz herri mugitu behar direnak, eta ez haurrak. Abiapuntu gisa bi premisa horiek hartuta, bi landa-eskola mota daude oinarrian: bateratua eta ziklikoa. Lehen mota horretan, gela bat edo bi daude eta, bigarrenean, berriz, hiru eta zortzi gela bitartean, bertan dauden ikasle kopuruaren arabera. Ikasleak 3 urterekin hasten dira landa-eskolara joaten eta bertan egoten dira 12 urte bete arte. Katalunian ez dago gradu anitzeko taldeak dituen landa-instituturik. Eskolak 3-12 adin tarteko eskolak dira, Kataluniako hezkuntzan arrunt den eredia dute, alegia.

Landa-eskolaren antolamendua Landa-eskolen Zonetan (ZER) dago oinarrituta. Horiek landa-eskolen (bateratuak eta / edo ziklikoak) multzoak dira, hezkuntza-proiektu, antolamendu- eta funtzionamendu-arau eta programazio berberak dituztenak, betiere, kide diren eskolen berezitasunak errespetatuz. Landa-eskolen Zonak eskola lurraldera sustraitzen du eta bertan mantentzen du, eta herri bakoitzak bere eskola du, multzokatze hauen oinarritzko printzipio gisa ulertuta.

ZER osatzen duten eskolek maisu espezialista ibiltariak banatzen dituzte: Gorputz Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza (ingelesa edo frantsesa), Musika eta, kasu batzuetan, Hezkuntza Berezia. 2016 / 2017 ikasturtean 88 ZER egon dira, gutxi gorabehera, 278 eskolarekin. Eskoletan 44 ikasle egon dira, batez beste.

Bestalde, ZERen oinarritzko printzipio pedagogikoa da gradu anitzeko ikasgelek balio pedagogikoa eskaintzen dutela. Antolamendu pedagogikoak metodologia aktiboak eta partaidetzazkoak erabiltzea sustatzen du. Aniztasunari erantzuteko estrategia didaktikoak erabiltzen dira: diziplina anitzeko proiektuak; proiektuen bidezko lan-metodoa; landa-ikerketa; interes-zentroak; hitzaldiak eta abar; espazioa antolatzeko malgutasuna (haur eta lehen hezkuntzako txokoak, talde handia, talde txikia...); ordutegi-malgutasuna (lan-planak); berezko baliabideak diseinatzea eta prestatzea; kontsultarako testu-liburuak / liburu osagarriak; eta gaitasun-ikaskuntzen ebaluazioa / sistematizazioa.

Gainera, ZERen antolamenduan landa-eskolen taldekatze funtzionalak ere badaude. Horiek hezkuntza-proiektu bera ez duten, baina lehen aipatutako maisu espezialista ibiltariak banatzen dituzten landa-eskolen (bateratuak eta / edo ziklikoak) multzoak dira.

Aurrerapenak landa-lurraldeko hezkuntza finkatzen

Llars d'Infants-Haurtzaindegien plan esperimentalak (Haur Hezkuntzako lehen zikloa) familiak herrian eta landa-eskolan fidelizatzeko asmoa du, eta gizarte-kohesioa hobetzeko. Eskolak irekita mantentzeko eta biziraunen dutela bermatzeko aldarrikapen historiko zaharra da hori. Plan hau 2015ean jarri zen martxan. Haurtzaindegien giza baliabideak eta espazioak udalerrietako administrazioaren mende daude eta udaletxeak, gainera, ekarpen ekonomikoa egiten du.

Landa-eskoletan Haur Hezkuntzako lehen zikloa ezartzen duen uztailaren 7ko ENS/1756/2016 Ebazpenarekin bat, 3.000 biztanleria arteko udalerriek har dezakete parte planean. Ratio maximoa 10 hurrekoa da, taldeko. Lehen zikloko ikasleak bigarren ziklokoekin integratu daitezke, ratioa ez denean 6 ikasle baino gehiago, eta haur hezkuntzako teknikari batek edo teknikari espezialista batek ematen die arreta ikasle hauei. Bigarren zikloko maisua lehen zikloko ikasleen tutorea ere bada. Adin hauetako matrikula bizia da, hau da, ikasleak ikasturteko edozein unetan sar daitezke Haurtzaindegietan, urtebete betetzen duten unetik.

Gaur egun, lurralde-zerbitzu desberdinetako landa-haurtzaindegien kopurua honako hau da:

- Katalunia Zentraleko Lurralde Zerbitzua: 7
- Lleidako Lurralde Zerbitzua: 24
- Gironako Lurralde Zerbitzua: 3
- Tarragonako Lurralde Zerbitzua: 14
- Terres de l'Ebre Lurralde Zerbitzua: 8
- Maresme, Vallès Occidental Lurralde Zerbitzua: 1

Landa-eskolak hasierako eta etengabeko prestakuntzatik sustatzea

Landa Eskolen Unibertsitate arteko Taldearen oinarriko helburua landa-eskolak sustatzea da, Irakasle Gradu ikasketa-planetan. Unibertsitate-autonomiaren esparruan, Hezkuntza / Hezkuntzaren Zientzien Fakultateak zenbait ekintza garatzen ari dira, landa-eskolak tratatu daitezzen derrigorrezko eta hautazko ikasgaietako, zein ikasgai berezietako (kanpo praktikak) irakaskuntza-planetan. Fakultate batzuetan, landa-eskolak curriculum-eduki gisa tratatzen dira derrigorrezko ikasgaietan, ikastegien antolamenduari eta kudeaketari buruzko alderdiak jorratzen direnean, metodologia globalizatzaileekin, edota hezkuntzaren historia jorratzen denean. Beste fakultate batzuetan, berriz, landa-eskolei buruzko hautazko ikasgai bat egoten da ikasketa-planean. Eta fakultate guztietan dute ikasleek landa-eskoletan praktikak egiteko aukera.

Gainera, GIERek urtero antolatzen ditu landa-eskolei buruzko jardunaldiak (landa-eskola, maisu-maistren hasierako prestakuntzan), landa-eskolei buruzko ezagutza pedagogikoa zabaltzeko eta Kataluniako landa-eremuetako kultura hobeto ezagutzeko. Hori dela eta, urtero Kataluniako landa-eremu desberdin batean antolatzen dira jardunaldiak,

landa-eskolen eta eremu horretako ZERen ikuspegia eskaintzeaz gainera, unibertsitate-ikasleak bertako kultura- eta paisaia-ondarera hurbiltzeko.

Hasierako prestakuntzaren ildoan, Bartzelonako Unibertsitateak *Landa-eremuetako Hezkuntzari buruzko Unibertsitate arteko Master Ofizial* bat koordinatzen du. Masterra erdipresentziala da eta, Bartzelonako Unibertsitateaz gainera, Zaragozako Unibertsitateak (Teruel) eta Rovira i Virgili Unibertsitateak (Tarragona) parte hartzen dute.

Hasierako prestakuntzarekin batera etengabeko prestakuntzako proposamen koherentea egon behar du. Ez dago landa-eskoletarako etengabeko prestakuntzako plan espezifikorik Katalunian. Zenbait ekintza eskaintzen dituzte Generalitateko Hezkuntza Departamentuak eta unibertsitateek. Departamentuaren kasuan, ikastaroak, mintegiak eta, batez ere, aholkularitza eskaintzen zaizkie ikastegiei eta ZEREi. Unibertsitateek, berriz, unibertsitate-egagutzak zabaltzeko online ikastaroak eskaintzen dituzte. Beharrezkoa da landa-irakasleen eskakizun errealekin bat datorren kalitatezko etengabeko prestakuntza planteatzea.

Ikerketa landa-hezkuntzan: jorratu beharreko gaia.

Ezinezkoa da landa eremuko hezkuntzaren kalitatea hobetzea, ez bada landa-eremuko ikerketa sustatzen. Ikerketa-politikek horretaz jabetu behar dute. Aurretiazko uste okerrak edo egiazkoak daude landa-eskolei buruz, baita uste faltsuak ere, eta horiek baztertu edo onartu egin behar ditu komunitate zientifikoak, baliozkoak eta fidagarriak diren ikusita. Hezkuntza-instituzioek, landa-eskolen alde lan egiten duten organismoek eta landa-irakasleek berek baliozkotzat ematen dituzte zenbait baieztapen, hala nola: landa-eskolek hiri-eskolek baino emaitza akademiko hobeak izaten dituztela; metodologia aktiboak eta partaidetzazko hobeak garatzen dituzten hezkuntza-espazioak direla; ikasleen ikaskuntza-autonomia hobe delako hirietako eskoletako ikasleena baino; eta abar. Baina, ba al dago baieztapen horiek egiaztatzen dituzten ikerketa zientifiko, zorrotz eta diziplina artekorik, hemen edo nazioartean? Bada oso gutxi, edo bat ere ez. Zenbait herrialdek, hala nola Frantziak, 25 urtetik gora daramate landa-eremuetako hezkuntza zorrotzasunez aztertzen. Ezagutza zientifiko itzela dago gai honen inguruan eta aurrerapen handiak egiten ahal izan dituzte arlo pedagogikoan, epistemologikoan edo soziologikoan. Gainera, ikerketa horiei esker, posible da landa-hezkuntzari buruzko politiken inguruan erabakiak modu koherente eta arrazionalen hartzeara. *Ikerketarik gabe ezin da aurrera egin.*

Aukera berriak Eskola Txikientzat

Mikel Goñi Sagastume

Euskadiko Eskola Txikien Koordinatzailea

<https://youtu.be/xx9-GG7DAXU>

Landa eremuko eskolak birpentsatzea da hezkuntza munduko egungo erronka. Birpentsatze horretan eragileak diren kideak elkartzea eta koordinatzea funtsezkoa da. Eskola txikien historia luzea da Euskadin, baina azkeneko 30 urteetan zenbait inflexio puntu egon dira; azkenekoa “Eskola Txikien Paradigma Aldaketa” proposamena. Adin aniztasuna eta txikitasuna dira eskolaren definizioaren oinarrian dauden bi ezaugarri, gaur egun ere.

Gako hitzak: adin aniztasuna, birpentsatzea, erronka, Eskola txikiak, Euskadi, paradigma aldaketa, txikitasuna.

Sarrera

Ulertezina dirudien arren, oraindik ere, Eskola Txikietan egiten duguna ona dela justifikatzen dihardugunaren sentsazioa barnera sartzen zait gisa honetako saioak antolatzen eta prestatzen aritzen naizenean. Oraindik orain, gizarteko esparru askotatik handiaren parera eta norabidera lerratzeko bultzada ematen zaigula sentitzen dut, hirian egiten den berdina herrian egitean sortzen diren ondorioak berdinak izango bailiran. Eta honetan dihardugunok badakigu, ikusi dugulako, hori ez dela horrela. Askotan ikusi baitugu, tris-turaz nire kasuan, herri txikian hiriko konponbideak bultzatu direla, aniztasunari homogeneotasunez erantzunez, ekitatearen izenean guztientzat berdina emanaz. Eta hori, epe luze batean, ez dela egokia uste dut.

Hori dela eta, ona da gaurkoaren moduko saioak antolatzea, batez ere, mahai gainera ekarri dituzuen helburuak direlako benetan Eskola Txikietan momentu honetan behar ditugunak. Ondoko planteamendua eztabaidarako jarri duzuela azpimarratu nahiko nuke: Landa Eremuko eskolak birpentsatzea. Izaeraz ari garela sentitzen eta pentsatzen dut: zer gara, zer izan nahi dugu etorkizunean, zer egin behar dugu horretara iristeko, zein



dira gure erronkak, zein dira gure berezitasunak, zein da behar dugun begirada, zertan jarri behar ditugu indarrak... Askok izan daitezke birpentsatze honen galderak, baina, argi dago, Landa eremuko eskolak bat egiten dituen faktore nagusia izaera bera dela, ohiko eskolarekin alderatuz gero, desberdina den izaera dugula.

Birpentsatze horretan eragileak diren kideak elkartzea eta koordinatzea helburu izateaz gain, funtsezko egitekoa ere badela oharturik, besteak beste, kide hauek elkartu beharra sumatu duzue jardunaldi hauetan, eta etorkizunean ere talde horiekin lanean jarraitu behar duzuela uste dut: Eskola Txikietako Koordinatzaileak, Hezkuntza Departamentua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Departamentua, Gizarte Eskubideen Departamentua, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako Eskola Kontseilua. Lan talde hori sortzea eta modu koordinatuan aritzea beharrezkoa dela sumatzen dugu Eskola Txikietan gabiltzanok, koherentzia mantentzeko eta ematen diren aurrerapausoak ondo pentsatuak, trinkoak, emankorrak, eta atzerabiderik gabeak izateko.

Horretan laguntzeko ilusioarekin eta gogoarekin nator, nahiz eta jakin, ez dela bide erraza. Ideia batzuk proposatzea da nire asmoa, Eskola Txikietan egin ditudan ikasturte hauetan lortu dudana esperientzia eta eskarmentua partekatuz, gure historian izan ditugun pasarterik inportanteenak gogora ekarriz, Euskadiko Eskola Txikietan momentu honetan ditugun erronkak zuekin partekatuz, eta azkenean, momentu honetan nire koordinazio lanetan bultzatzen ari naizen ikuspegia hemen azalduz, etorkizunari erantzuteko lantzen ari garen Paradigma Aldaketa, hain zuzen ere.

Beraz, nire mintzaldiak bi atal izango ditu: hasierako zatian, urteotako esperientzian bizi izan dugun ibilbidearen punturik azpimarragarrienak zeintzuk izan diren kontatuko ditut, bide batez, Eskola Txikiak zer diren gure taldearentzat, zein ezaugarriak elkartzen gaituzten, zein izan diren eta zein diren momentu honetan premiak eta proiektuak azalduz; eta bigarren zatian, bisitakoaren eta ikusitakoaren ondorioetatik bultzatzen ari

garen Paradigma Berriaren oinarriak zeintzuk diren eta hauek bultzatzeko arrazoiak kontatzen saiatuko naiz zuentzat ere baliagarriak izango diren esperantzan.

Historia, taldearen ahaleginetik sorturiko proiektua

Eskola Txikien historia luzea da Euskadin, noski, Espainiar Estatuko beste lurraldeetan bezalaxe, horrelakoak aspaldidanik izan direlako. Hala ere, ni azken 30 urteetako ibilbidean zentratuko naiz. Jakin behar da, historia honetan kontatuko ditudan atal gehienak ez ditudala pertsonalki bizi izan, baina, historia hau ulertzeko gako batzuk eman dizkidate esperientzia horretan guztian lanean aritu diren lankideek, eta haien ahotik jasotakotik atera dudana kontatuko dut.

Beste era batera egin daitekeen arren, historia hau bost inflexio puntutan zentratzea erabaki dut, izan ere, gaur egungo egoera ulertzeko momentu inportanteak izan direlako. Nik hauek azpimarratuko ditudan bezalaxe beste pertsona batek beste batzuk azpimarratuko lituzke, baina, niretzat gutxienez aipatuko ditudanak izan dira garrantzitsuenak. Izan ere, inflexio puntu horien ostean aldaketa kualitatibo inportanteak etorri dira Eskola Txikietan eta aldaketa horiek pixkanaka egin gaituzte gaur egun garena.

30 urte esan ditut eta lehen inflexio momentua ulertzeko urte horiek egin behar ditugu atzera. 80ko hamarkadaren bukaeran Eskola Txikiak egoera tamalgarrian zeudela esango nuke. Ikuspuntu askotatik begiratuta, bigarren mailako eskola kontsideratuak ziren. Herri eta auzoetako jendeak ez zuen herri eskolarekiko konfiantzarik, pentsatzen baitzen hiriko eskolan hurrek gehiago eta hobeto ikasiko zutela. Administrazioak ere Eskola Txikiei ematen zien trataera bigarren mailakoa zela esan dezakegu, ahaztuak baitzeuden, beranduago iristen zen guztia, irakasleen egonkortasuna bermatzeko plan berezirik ez zegoen. Honek guztiak, eta beste motibo batzuk ere bai, Eskola Txikietan zebiltzan hainbat irakasle elkartzen hastea ekarri zuen eta kalitatearen aldeko aldarrikapen bide emankor bati ekin zioten. Hortik dator gure lema denaren sorrera “Eskola Txikiak bizirik, herri txikiak bizirik”, eskolarik gabeko herriak ez zuela etorkizunik aldarrikatzeko, eta herriak eskola behar baldin bazuen bizi irauteko, kalitatezkoa izatea ere beharrezkoa zela gizarteari ulertarazteko. Beraz, lehenengo aldaketa kualitatibo nagusia ikusezinak izatetik hezkuntzako eztabaida gaien erdira plazaratzea izan zela esango nuke, eta horren eraginez, noski, eskola askotan hainbat aldaketa garrantzitsu etortzen hasi ziren: irakasleen arteko etengabeko koordinazioa, kideen artean egiten ziren hausnarketa saioak, eskola komunitate osoaren parte hartzea bultzatu zuen herrien arteko mugimendu bat sortzea... Honekin batera, herrietako gurasoak ohartu ziren maisu maistrek defendatu nahi zuten hura eurak ere defendatu behar zutela, eta horri esker, gaur egun oraindik ere gure parte inportantea den Eskola Txikietako Guraso Elkartearen Kooordinakundea sortu zen. Guzti hori Administrazioak ulertu zuen eta proiektuen koordinatzaile liberatuak sortu ziren, lan taldeei indarra emanaz eta proiektua deitu dioguna onartuz eta bultzatuz.

Bigarren inflexio puntua desberdina izan zen, baina aldi berean, biziki esanguratsua eta eraldaketa kualitatiboen sortzaile indartsua. 90eko hamarkadaren erdi aldean, Eskola Txikietan zebiltzan hamar pertsonen Myriam Nemirovskyren eskutik ikuspegi konstruktivistaren inguruko formazio sakon, trinko eta zuzena jasotzeko aukera eduki zuten. Pertsona horiek zeuden eskoletan transformazio itzela ekarri zuen. Lehenengo aldiz

gure eskoletako ezaugarri nagusia den adin aniztasuna behar den bezala ulertzen hasteko geldialdia izan zutela esan dezakegu. Formazio honetan egindako lanari esker, gure eskolen benetako izaera ulertzen hasteko gako asko jaso zituzten: umea bere ikas prozesuaren partaide aktiboa izan behar duela ulertzea, ikas prozesuetan umeen eza-gutzekin lotura egitearen garrantzia, erabiltzen ziren materialen benetakotasunarena, idatz sistemaren psikogenesian umeek bizitzen zituzten prozesuen ezagutza, honek guztiak beste arloekin zuen lotura sakontzea, ikuspegi globalagoetatik lan egin eta sekuentzia didaktiko aproposen diseinua egiten ikastea, gertukotik abiatzea eta mundu zabaleko ezagutzen inguruko lanketa egiteko proposamenak lantzea... Azken finean, egindako lanak adin aniztasunaren onurak ikusteko balio izan zuen, herri eskolaren barnean interakzio ezberdinen garrantzia ulertzea eraman gintuen, ikasketa esanguratsua lortzeko bizi dugun ingurune natural eta sozialarekin interakzioa bilatzearen garrantzia zenbaterainokoa zen ulertu genuen, eta guzti honek gure Eskola Txiki batzuetan bestelako metodologiak bultzatzea eta bilatzera eraman gintuen. Argi dago, beraz, arlo metodologikoan aldaketa kualitatibo asko sortu zituela formazio saio horretan parte hartzen aritu ziren ki-deak zeuden eskolen barnean.

Hirugarren inflexio puntua interbentzioaren hasieran aipatu dudana helburu bati lotutakoa da. 2000.eko hamarkadaren hasieran lortu zen lehenengo aldiz Euskadiko Eskola Txikien inguruan hartuko ziren erabakiak koordinatzeko eta eztabaidatzeko lan talde eraginkorra sortzea. Eskola Txikietako Batzorde Nagusia deitu zitzaion eta bertan elkartzen ziren partaide garrantzitsu ugari: eskoletako irakasleak eta hauen koordinatzaileak, gurasoen koordinakundeko ordezkariak, herrietako Udal ezberdinen ordezkariak, Landa Garapen Departamentuko eta Hezkuntza Departamentuko ordezkariak. Talde horretan hezkuntza sistema orokorraren ikuspegia beste era batera zentratzeko ahalegina egin zen eta gure eskolek begirada propioa behar zutela ulertu eta onartu zen. Horri esker aldaketa kualitatibo ugari etorri ziren, batez ere, eskolaren antolakuntza orokorrari lotuta. Irakasleen egonkortasuna bermatzeko planak egin ziren, batzuen berritzeko planak aurrera bidean jarri ziren, zenbait dekretu eta ebazpenetan Eskola Txikien inguruko aipamen zehatzak agertzea ahalbidetu zen. Eta honek guztiak, eskolen ohiko martxarako onura ugari ekarri zituen. Ordurako, esan dezaket, Eskola txikien proiektua bizi-bizirik zegoela eta indar eta eraginkortasun handiz lan egin zela arlo guztietatik.

Laugarren inflexio puntua Elena Laiz Sasiainen eskutik etorri zela iruditzen zait. Elena Zizurkilgo San Millan Eskolako maistra da. Aurretik aipaturiko hamarreko talde horretan aritu zen Myriam Nemirovskyrekin formazioa jasotzen. Gainera, Myriamen formazio eskaintza zabalduz zihoan heinean, Elena Laiz bere lan taldean sartu zen eta San Millan Eskolako maistra lanekin bateratu zuen bere formatzaile ibilbidea. Asteburu askotan beste eskoletako irakasleekin elkartzen zen ikuspegi konstruktibistaren oinarriak zabal zitezen eta geletako lana diseinatzeke orduan ikuspegi desberdinak izateko. Eta bizitzan gertatzen diren gauza asko bezalaxe, patuak ekarri zigun Eskola Txikiarentzat formazio saio trinkoa izatea Elena Laizen eskutik. Aurretik ere horretan ibiltzen zen arren, bere eskolan egiten zuen maistra lanetik liberatu eta Eskola Txikiarentzat berariazko formazioa eskaintzen aritu zen zazpi ikasturtetan zehar. 2007/2008 ikasturtean hasi eta 2013/2014 ikasturtera arte Gipuzkoako Eskola Txiki ia guztiak eta Bizkaiko batzuk "Adin Aniztasuna

Eskola Txikietan” deitutako formazio saio trinkoetan parte hartzen aritu ziren. Ordura bitartean ere aldaketa metodologikoak egin izan baziren ere, tarte horretan formazio saio horietan izandako laguntzari esker eskoletan izandako aldaketa kualitatiboa ikaragarria izan zen. Aurretik, bigarren inflexio puntuan aipatu ditudan transformazio asko eskolaz eskola zabalduz joan ziren, ibilbide metodologiko zehatz baten barnean lerratzen ari ginelarik. Proiektu bidezko metodologia, eskoletan bertan diseinatutako sekuentzia didaktiko globalagoak, arloen arteko loturak bilatzeko moduak txertatu ziren eskola gehienetan eta pixkanaka testu liburuak baztertuz joan ziren umeen beharretara eta eskolaren izaera eta tamainara hobeto egokitzen ziren metodologia ereduak aplikatuz.

Honela bada, gaurko momentura ekarri gaituen azken inflexio momentua azalduko dut. Tarte honetan, ni partaide aktibo bihurtzen naiz. 2012an “Herriari begiratzen dion eskola” deituriko jardunaldi baten parte hartzeko gonbitea luzatu zigun Hik Hasik. Antolatzaileen ustez, Eskola Txikiak bete betean bat egiten zuten ikuspegi horrekin, hau da, kanpotik begirata Eskola Txikiak herriari begiratzen zioten eskolak ziren. Jardunaldiko hitzaldia, laburra izan arren, mimo handiz prestatzeko konpromisoa hartu genuen momentu hartan bulegokideak ginen Elena Laizek eta biok. Eta hausnarketa sakonetara bideratu gintuen gai honek. Zenbateraino begiratzen genion herriari? Zein eredu bultzatzen ari ginen? Zalantza ugari sortu zitzaizkigun hitzaldia prestatzen haste hutsarekin. Eta hori gutxi balitz, Francesco Tonuccik jardunaldi horietan eskaini zuen hitzaldiak liluratuta utzi gintuen. Galdera zaharrak berriro egin zizkigun eta Elenaren eta bion barnean hausnarketarako mugimendu serio bat sortu zuen. Honek guztiak, 2012ko ekainaren amaieran Eskola Txikien Paradigma Aldaketa deituriko proposamena aurkeztera bultzatu gintuen. Momentu hartan koordinazio lanetan ari ginen Eskola Txikietako ehundik gora kideekin batera ibilbide berri bat markatuko zuen proposamen bat landu genuen. Hau bere fruituak ematen ari da eta sortu ditu, dagoeneko, aldaketa kualitatibo oso esanguratsuak eta gehiago sortuko ditu etorkizunean ere.

Zerk batzen gaitu gaur egun, ordea?

Gure mapan begiratzen hasten bagara, ohartuko gara Eskola Txiki asko ditugula. Urte hauetan barrena, herrietan eta eskoletan arlo ezberdinetan egin izan den lanari esker, eta Eusko Jaurlaritzak izan duen herri txikiekiko eta Eskola Txikiekiko jarrerari esker, gure eskolak dauden herrietako askotan ez dira migrazio fenomeno masiboak gertatu. Horri esker, herri asko txikitu beharrean, orokorrean esan dezakegu, urte hauetan barrena Eskola Txiki gehienak handitu egin direla. Hala ere, beheranzko joera ere hasi dugu dagoeneko, beraz, orain gure sustraiei eta esentziari eustea gakoa izango da datozen urteak ere orain artekoak bezain emankorrak izan daitezen.

Eta urteen joanaren ostean, berriro ere, zer garen erantzuteko momentu klabean gaude, batetik beheranzko joera horretan tinko eutsi behar diogulako gure izaerari, eta horretarako gure izaeraren esentziazko oinarriak zeintzuk diren, gabiltzanok erantzun behar ditugulako. Historian egin dudana ibilbidean aldaketa kualitatibo batzuk zehaztu eta sakondu ditut, baina, egun, jende berri asko ere badago Eskola Txikietan. Izan ikasle, irakasle, guraso edo herritar gabiltzanon artean birpentsatu behar dugu Eskola Txikiaren definizioa, eta horretan aniztasuna errespetatu, aprobetxatu eta aberastu egin behar



dugu. Oso talde anitza baita Eskola Txikiena, pertsonen osatutako taldeak direlako eskolak, komunitate txikiak, mikro gizarteak. Hori dela eta batzen gaituzten xehetasun asko ematen hasten garenean, inguruko definizio sakonduak lantzen hasten garenean, gerta liteke homogeneizazio prozesuetan erortzea, tokiko errealitateari ez erantzuteko posibilitateak areagotuz, eta honen ondorioz, bakoitzaren esentzia galzorian jarriz. Horregatik, Euskadiko Eskola Txikien taldearen koordinatzaile moduan hori ekiditen saiatu nahi izan dut. Horregatik, elkartzen gaituenaren inguruko hausnarketa sakona egin dut eta ondoko hiru elementuek elkartzen gaituztela pentsatu dut: adin aniztasunak, txikitasunak eta aurreko biak ezaugarri izatearen ondorioz sortzen diren aukera anitzek. Horiek dira, gutxi asko, bat egiten gaituzten ezaugarriak. Eta horiei jarraituz, ondoko definizioan bilduko nituzke gure taldean elkartzen direnak:

“Eskola Txikiak adin aniztasuna bultzatzen duten tamaina txikiko eskolak dira eta bi ezaugarri horien ondorioz, lan on bat egiteko aukera ugari eta anitzak dituzten eskolak”

Adin aniztasuna beti izan da, eta beti izan beharko du nire iritziz, Eskola Txikien elkar-gune. Historian zehar gehien eztabaidatu dugun gaia izan da, eta beti ondorio berdinerira iritsi izan gara, adin aniztasuna da gure eskolen altxorrik inportanteena. Zergatik ordea? Bada, eskolan bizitzeko beste modu bati atea zabaltzen dizkiolako. Adin aniztasuna da gaur egun pil-pilean dauden eztabaida askori irtenbide logikoa emateko moduetako bat. Kooperazio gehiago eta lehiakortasun gutxiago lortzeko, umeen arteko harreman sano eta egokiak lortzeko, ikasleen arteko interakzioa eta elkarrengandiko ikaskuntza ahalbidetzeko, gaurko gizarterako beharrezko diren zenbait jarrera enpatiko lortzeko... Baina, noski, umeak batzearekin ez da aski. Adin aniztasuna bultzatzeak beste uste eta sinismen

batzuk ekarri behar ditu eskolara: umeek ikasteko eta bizitzeko erritmo ezberdinak dituztela; ikas prozesu guztiak indibidualak direla; ikasle guztiei aukera anitzagoak eskaini behar dizkiegula aurrera egiteko, bai ikasteko, bai harremanak izateko, bai norbera den modukoa izateko... Azken finean, ikaslea norbanako gisan errespetatzeko eta bere bidea egitea ahalbidetzeko moduak jartzen hasteko bide bat izan daiteke ikasleak eskolan adina irizpide izan gabe elkartzeko aukera izatea.

Txikitasuna da bigarren ezaugarri inportantea, eta honen barnean ere denok bildu behar dugula uste dut. Txikitasuna ez ikuspegi kuantitatibotik, baizik eta kualitatibotik, ezaugarri hau izateak inplizituki dituen ondorioak dira garrantzitsuak, elkartu behar gaituztenak eta mantendu behar ditugunak: gertuko harremanak eskola komunitatean sartzeko aukera duten guztiekin; elkarren ezagutza sakona; ezagutza horrek ondorioztatu behar dituen erabakien egokitasuna; ingurunearekin, berdin natural zein sozialarekin, etengabeko interakzioan aritzeko dauzkagun aukerak...

Eta gure ezaugarrien xehetasunekin amaitzeko, aipatu beharrekoak dira aurreko biek eskoletan eskaintzen dizkiguten aukerak, hauek baitira bat egiten gaituzten, eta etorkizunean ere batu behar gaituzten beste ezaugarriak: lan egiteko modu desberdinak bilatzeko aukera, umeen zein gurasoen behar indibidualetara hobeto ailegatzeko aukera, ume bakoitzari bere izaera garatzen uzteko aukera, aniztasuna aberasten joateko aukera, benetako kooperazioa eta interakzioa sortzen diren gunek sortzeko aukera...

Premiazko zenbait gai

Berez, ordea, ez dator ezer. Lana egin behar da aukera horiek aprobetxatzeko. Eta aukerak mahai gainean ditugun arren, badira zenbait premiazko baldintza aukera horiek aurrera eraman ahal izateko. Beraz, ditugun premiak zeintzuk diren azalduz joango naiz. Kasu honetan ere, beste batzuk hauta nitzakeen, gehiago ere izango dira norbaiten aburuz, baina, gure bi ezaugarri nagusiek ematen dizkiguten aukerak egin ahal izateko premiazko diren hamar azpimarratu nahi ditut:

Begirada propioa

Askotan azaldu dut ezaugarri propioak ditugula, Eskola Publikoaren ezaugarrien ostetik beste berezi batzuk ditugula. Hori dela eta, trataera berezia eman behar zaie zenbait gairi. Egiten duguna benetan nola egiten dugun islatzeko moduko lege, dekretu eta aginduak beharrezkoak ditugu. Gure errealitateari ondo erantzungo diotela bermatzeko moduko antolaketa bultzatu behar dugu, errealitate hori barneko begiekin aztertuta, benetako gure beharrak zeintzuk diren identifikatuta. Eta hori ondo egiteko ez digu balio Eskola Publiko guztiok lupa berdinarekin aztertzea. Begirada propio bat landu beharra daukagu esparru askotatik, baina batez ere, esparru administratibotik eta esparru pedagogikotik. Egiten dugun lanaren eta ibilbidearen emankortasuna askoz handiagoa izango da, baldin eta, Eskola Txikia ikusteko begirada propio hori irizpide bateratuetan zentratzen baldin badugu agente ezberdinok.

Inguruaren konfiantza

Eta inguru zabalaren inguruan ari naiz kasu honetan. Gure eskoletara etortzen diren irakasleengandik hasi, herritar eta familietatik pasa eta arlo administratiboan ari diren beste

pertsona guztietaraino iritsi behar du egiten dugunak konfiantza sortzen duenaren sentazioak. Hori, noski, gure eskutan dago, neurri handi batean, baina, Administrazioaren konfiantzarekin errazago da lan hau egitea, horretan eroso sentitzea.

Formaziorako laguntza

Nirekin batera lanean ari diren beste zenbait kiderekin hitz egiten dudanean, askotan iristen gara ondorio honetara: gure errealtatea ondo ezagutzen ez baldin bada, ezinezkoa da ondo laguntzea. Hori dela eta, praktika eta teoriaren arteko uztarketan oinarrituriko formazioa sortzen eta hedatzen ahalegintzea beharrezkoa dugula sumatzen hasia naiz. Adin aniztasunak eta hau benetan errealtatean praktikatzeko suposatzen duena ulertzen duen jendearekin, ikas prozesuetan sakontzen ari diren teorikoekin eta hezkuntza berri-terako planen diseinuetan eta proposamenetan dihardutenekin batera, Eskola Txikientzako berriazko formazio diseinuak antolatzea beharrezkoa dela uste dut.

Elkarguneak indartzea etorkizunerako

Eta horretarako, noski, bideak eman behar zaizkigu gabiltzanoi. Inguru hurbileko praktikak ezagutzen joateko eta gure errealtaterako inplikazio ezberdinak lortzeko sare, talde edo dena delakoa antolatzeko ahalegina inportantea izango da. Eta hori, noski, bertan gaudenok egin beharko dugu, ezin dugu hori beste norbaitek antolatzeko zain egon. Hementxe daukagu lehen aukera.

Proiektuak aurrera eramateko egonkortasuna

Eskoletan aurrera eramaten ari diren proiektuek iraupen luzea behar dute emaitzak ikusteko. Gure eskolen kasuan, gainera, emaitzak kuantitatiboki ia inoiz ez dira esanguratsuak, hori dela eta, analisi kualitatiboak bultzatu behar ditugu, sortu eta bultzatzen ditugun proiektuek herrietan sortzen dituzten aldaketak aztertuz, bai herriko bizitzan eta baita ikasleen gaitasun ezberdinen garapenean ere. Aldaketa kualitatibo horiek epe luzean ikusten dira, beraz, beharrezkoak ditugu irakasleen klaustro ahalik eta egonkorrenak, eskoletako proiektuetan inplikatzeko eta aritzeko benetako interesa erakusten dutenekin lan eginez, haiek gure eskoletan geratzeko egokiak diren formula administratiboak bilatuz.

Denboraren kontzepzioa aldatzea

Denbora da gure eskolen beste etsai handia. Izan ere, fronte asko irekita dauden momentuan gaietan zentratzea asko kostatzen da. Azken boladan, Administrazioaren teknologizazio prozesu sakona bizitzen ari gara. Uste dut, ondorio positiboak ekarriko dituela gai honek, batez ere, gardentasunari dagokionez. Baina, leporaino beteta ikusten ditut zuzendaritza taldeak, eta batez ere, arlo administratiboaren teknologizazio prozesuarekin beteta. Beraz, gure Eskola Txikietan denborak plano ezberdin ugari izan ditzakeela eta dituela ulertu behar dugu, eta ez gaudela inoiz ere, horretarako dedikazio eksklusiboarekin.

Hezkuntza Administrazioarekin koordinazio eta interakzio etengabekoa

Aurretik esan ditudan premia horietan sakontzen joateko, Hezkuntza Administrazioarekin etengabeko kontaktua, koordinazioa eta interakzioa beharrezkoa dugu. Gure proiektuak zein ildotan eraman nahi ditugun ulertzeko, gure beharrak momentuan erantzuteko, gu-

retzat zentzugabekoak diren zenbait gauza beste modu batera egiteko planak pentsatzeko... Gauza askotarako behar dugu koordinazio eta interakzio hau.

Koordinazio lanetarako koordinatzaileak

Nik gidatzen dudana, ahal den kasu guztietan, eskolen beharretatik abiatutakoa izatea nahi izaten dut, behar propioei erantzunez, eskolei pertsonalizatutako proposamenak pentsatuz. Hori egiteko lan talde bat beharrezkoa dugu, Eskola Txikien izate proiektuaren Koordinatzaileen talde bat.

Unibertsitatearen konpainia eta ikerketa

Beharrezkoak biak gure eskolen etorkizunerako. Irakasle izateko prestaketan ari direnek gure ezaugarri propioen berri izan behar dute, errealitateari erantzuteko gaitasunak garatu behar dituzte eta euren karrerako ibilbidean Eskola Txikien inguruko lanketa egin behar dute. Presente dagoen errealitate bat delako, eta nahiz eta eragin kuantitatibo txikia izan, kualitatiboki Eskola suposatzen duena ulertzea inportantea delako irakasle izango den pertsonarentzat. Ikerketaren inguruan, berriz, zer esanik ez. Gure eskolen antolaketari esker gertatzen diren gauza zoragarriak eskola handiagoetara nola eraman aztertze bideak ikerketa bide inportanteak direla uste dut nik.

Herritarrek, gurasoek, irakasleek eta haurrek bat egiten duten komunitate bizian

Ditugun aukerak aprobetxatzeko ezinbesteko baldintzat ikusten dut kohesio soziala herri batean. Eskolak berez sortu behar duen kohesio sozial horretan komunitate guztiak jarri beharko ditugu ahaleginak, komunikazio bide egokiak eta konfiantzazkoak bultzatuz, gertuko harremanak mantenduz, elkarrekiko errespetu giroa indartuz, heziketaren ikuspegiaren inguruko elkarrizketa eta interakzioa areagotuz, umearen beharrei ahalik eta gehien eta ondoren erantzuteko bideak guztion artean pentsatuz. Hauxe izango baita, nire ustez, behintzat, eskola bere onera ekartzeko modurik eraginkorra.

Paradigma aldaketa, etorkizunerako lan ildo.

Hasieran aipatu dut nire aurkezpenak bi atal izango dituela, lehenengoan historia, batzen gaituena eta ditugun premiei buruz hitz egiteko tarte bat hartu dut. Bigarren atal honetan, berriz, etorkizunari begira jarriko gara. Eskola Txikietan jarraitu nahi dugun bidearen oinarri nagusiak markatu nahi izan ditugu azken ikasturteetan eta ildo horretan bultzatu nahi ditugu aldaketak. Ondoko oinarriak jarri dizkiogu gure lan ildoari.

Proposamena galdera batetik abiatzen da. Identitatearen inguruko galderak egin behar dizkiogula pentsatzen dugu aurrera joateko, hori da lantzen ari garen proiektu berria, horretan oinarritzen da Eskola Txikien Paradigma Aldaketa deituriko proposamena. Eta gure kasuan identitatearen galderarik oinarritzkoenak egiten ari gara: Zer gara Eskola Txikiak? Nolakoak gara orain eta nolakoak izan nahi dugu etorkizunean? Zeintzuk dira mantendu eta indartu behar ditugun ezaugarriak? Taldea osatuta daukagunez, baina, indartzea beti ona denez, bat egiten gaituen horretan zentratzea eta horretarako indarrak elkartzea aberatsa izango dela pentsatzen dugu. Hori dela eta, Paradigma Aldatze horretan oinarri batzuk aurrez markatzea egokia dela iruditzen zaigu.

Guztion Eskola

Umeei begira jartzen naiz kontzeptu hau azpimarratzean. Eskola umeentzat egina da eta horiengan pentsatuta egin behar dugu. Hori dela eta, ume guztientzat ona izango den eskola lortzea da kontzeptuaren esanahia. Ona zorientasunerako, ona garapenerako, ona sozialki aberasteko eta integratzeko, ona emozionalki bere beharrak asetzeko... Printzipio honetan oinarritu behar dugu, beraz, gurekin ari diren Eskola Txikien antolamendu eta erabaki guztiak. Zertarako? Printzipio den hau guztiontzat helburu bihurtzeko eta epe luzera, helburu izango dena gure ezaugarri bihurtzeko.

Aniztasuna aberastasuna da

Hau ulertu, sentitu eta bizi behar dugu eskolako guztiok. Hori ez badugu lortzen, ez dugu lehenengo printzipioa helburu izatea lortuko. Beraz, gurekin lanean ari diren Eskola Txikien identitate berrien egituraketan ikuspegia konpartitzeko ahalegin berezia egin behar dugu. Izan ere, garrantzitsua izango da maisu maistren arteko kutsatze efektua sortzea, bata bestearengan sentimendu hau piztea, indartzea. Horri esker beste modu batera ikusiko ditugu haurrak eta, hauek ere, beste modu batera sentituko dira, errespetatuago, libreago, bere beharrak eta pentsamenduak adierazteko lasaiago. Haurrak honela sentitzeak eurengan ere beste modu bateko ikuspegia sortzea eta bultzatzea suposatuko du, honek familiengan eta gerora herrian bertan izango duen eraginarekin. Azken finean, desberdina dena aberastasun moduan ikustera pasatzea izango da eskolaren printzipio hasieran, helburu geroago, baina, ezaugarri epe luzera.

Eta bi printzipio hauek aurrera eramateko, pentsatzen dugu baditugula hainbat estrategia, batzuk geure geureak, hau da, Eskola Txikienak, eta beste batzuk, berriz, edonoren eskutan egon daitezkeenak:

> **Eskola Txikien hobetze plana**

Uste dut azken urteetan eskolak hobetzeko orduan, batez ere, arlo metodologikoan jarrita izan dugula begirada. Horri esker aldaketa kualitatibo ikaragarri etorri dira, aipatu ditut aurrerago ere. Badakit, gainera, egindako lan honek alderdi askotan lagundu diola haurrari. Baina, hemendik aurrera, fokua haurraren jarri beharrean gaudela uste dut, norbanako moduan eta gizarte talde baten partaide gisan. Honela begiratuta egiten ditugun aldaketek kualitatiboki eragingo diote ume bakoitzari bere ongizate emozional, intelektual, fisiko eta sozialean. Ikuspuntu horretatik hartutako erabaki bakoitza egokiagoa izango da haur guztientzat eta euretako bakoitzarentzat. Egindako aldaketa guztiak haurren zorientasunean eragina izango duela uste dut.

> **Ikasle guztiak irakasle guztionak dira**

Izatez eta egitez gertatu behar den zerbait da. Eskola Txiki batean partaide guztiongan dago haurren ongizatearen eta haurrak ongi bizitzearen ardura konpartitua. Hori gertatzeko moduko antolaketa bultzatu behar dugu, ordea. Ikasleen arteko interakzioak aberasteko alde batetik, baina, baita irakasleok ikasle ezberdinekiko ditugun interakzioak aberasteko ere. Honek ikaslea beste begi batzuekin ikustea ekarriko du, estrategien planteamendu aberatsagoa, proposamen ezberdin gehiago... Finean, ikasle bakoitzaren adierazteko moduak hobeto ulertzeko gai izango garela uste dut, baldin eta ikasle guztiak irakasle guztionak baldin bagara.

> **Herri eskola izaera mantentzea eta indartzea**

Herri eskolaren izaeraren alderdi positiboa bilatu eta indartu behar dugu, besteak beste, herritarren atxikimendua eskolarekiko, inplikazioa, parte hartzeko borondatea... Horietan lan egiten baldin badugu, gure eskolen bi printzipio nagusiak errealitate bihurtzea errazagoa izango dela uste dut.

> **Herriari begiratzen dioten eskolak eratzea eta izatea**

Herriari begiratu behar diogu gure lan dinamikak zentratzeko, gure haurrak hobeto ezagutzeko, herritarren parte hartzea indartzeko, haurrak non eta nola bizi diren jakiteko eta horren arabera erabakiak hartzeko, interakzioaren bidez jarrera kooperatiboagoak sustatzeko... Azken finean garen lekukoak izateko, beharrezkoa da maisu maistra garen herri horretako parte izatea, eta horretarako begiratu eta ezagutu egin behar da.

Cat Supermarket, ingelesezko eta gaztelaniazko proiektua

Arroizko La Balsa HLHIP

Noelia Echeverría Zalduendo, Leire Zabaleta Asiain,

M^a Pilar Pellejero Miró

cparroni@educacion.navarra.es

Arroizko La Balsa landa-eskolako Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailek jolas-txoko berria sortzea erabaki dute. Supermerkatu bat bi hizkuntzatan (ingeleza eta gaztelania) egitea izan da gure proiektua. Ikasleek produktu-ontziak ekarri ondoren, sailkatu, prezioekin etiketatu eta eskaintza-liburuxkak sortu dituzte. Ondoren, jakina, supermerkatua martxan jarri dute erosketak antolatuz edota ordainketak eginez. Ikaskuntza-prozesu esanguratsu eta funtzional honetan arlo desberdinetako gaitasunak landu dituzte.

Gako-hitzak: Landa-eskola, proiektu bidezko metodologia, supermerkatua, funtzionalitatea, esanguratsua, ingeleza eta gaztelania.

Testuingurutzea

Arroizko La Balsa HLHIP 59 ikasle dituen ikastegia da eta Arroiz udalerrian dago. Lizarrako Merindadean dago eta ospetsua da bertako olio-ekoizpenarengatik.

Hezkuntza-komunitate guztiak nahi du irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua funtzional eta esanguratsu gisa bultzatzea. Bestela esanda, guztiak nahi dute neska-mutilek lotura aurkitzea ikasten dutenaren eta bizi diren ingurunearen artean.

Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailetakoko gela banatua da, eta bertan proiektu bat garatu da gaztelaniaz eta ingelesez, supermerkatu bat sortzeko helburu nagusiarekin. Protagonistak hamaika ikasle izan dira, guztira: 2 mutil eta 9 neska; 5 ikasle Haur Hezkuntzako 2. mailakoak eta 6 ikasle, Haur Hezkuntzako 3. mailakoak.

Proiektukako lana

Proiektuen bidezko metodologia (Hernández eta Ventura, 1992) da oinarria gure eskolako Haur Hezkuntzan. Lan egiteko modu hau ikastegian bizi dugun egoerara egokitzen da, alegia, ikastegian adin eta maila desberdinak izaten ditugu talde berean. Bestalde, me-



metodologia hau hizkuntza batean baino gehiagotan lan egitera doitzen da. Helburu nagusia da ikasleek garbi izatea gauzak zertarako egiten dituzten eta zer funtzionaltasun duten, eta horrek esanahia ematen dio lanari uneoro.

Ingelesaren ikuspegia

Proiektua garatzen hasi aurretik, ingelesak proiektuan jasotzen duen trataera deskribatzea komeni da. Jarduketa hiru alderdi metodologikoren bidez bideratu da.

Horietako lehena CLIL (Content and Language Integrated Learning) edo AICLE (Atzerriko Hizkuntza eta Edukia integratuta ikastea) metodologia da. Coyle, Hood eta Marshekin bat (2010), kontua ez da hizkuntza-murgiltze soila egitea eta edukiak bigarren hizkuntzaren bidez lantzea; alegia, lengoaia modu gurutzatuan lantzea da asmoa.

Nabarmendu beharreko beste puntu bat da ingelesa komunikazio-tresna gisa hartzen dela. Esanahidun elkarrizketa eta interakzioak sustatu behar dira, esanguratsuak eta errealistak izanen direnak.

Hirugarrenik, ingelesak komunikatzeko tresna izaera gal ez dezan, ez da itzulpenik landu. Aitzitik, proiektuan zehar, ingelesez eta gaztelaniaz egin beharreko atazak banatu dira, elkarri gainjarri gabe. Bi hizkuntzek elkarri lagundu diote, prozesu gurutzatuan.

Proiektuaren garapena

Aukeraketa eta plangintza

Aukeraketa- eta bozketa-prozesua egin zen, eta hortik sortu zen gelako txoko batean supermerkatu bat sortzeko ideia. Plangintzarekin hasi ginen eta zenbait galdera bururatu zitzaizkigun: zer salduko dugu?, zer ekarriko dugu?, zer behar dugu? eta nola deituko diogu?

Proiektuen hasiera eta garapena. Sailkatzea, sortzea, prestatzea.

Gelako txokoetako bat hustu genuen, apal gehiago jarri genituen, izena aukeratu genuen eta gure supermerkatuak kartela prestatu genuen.

Orduan hasi zen familien ekarpena, horren beharrezkoa zena. Familiei esker, gure supermerkatuan saltzeko produktuak ontziak, katalogoak, eskaintzen kartelak, prezioen etiketak, poltsak, jostailuzko orgatxoak eta abar eskuratu genituen.

Gelara ekarritako produktu-ontziekin eta jostailuzko fruta eta barazkiekin hasi ginen. Zer egin genezakeen horiekin? Zenbait hipotesi planteatu genituen haiek sailkatzeko. Babes gehien jaso zuen planteamendua ontzi berdinak taldekatzearena izan zen (jogurtak, jogurtekin; txokolatea, txokolaterekin). Bigarrenik, erlazionatuta dauden produktuak taldeka sailkatu ziren (jogurtak, edateko jogurtarekin eta petit suisse-ekin, alegia, esnekiak elkarrekin).

Honako multzo hauek lortu ziren: gozokiak, edariak, higiene-produktuak, garbiketa-produktuak eta esnea (gaztelaniaz sailkatu eta izendatu ziren); eta frutak, barazkiak eta gainerako esnekiak (ingelesez). Sailkapen horrekin, produktuak apaletan jarri genituen.

Une horretan, produktuei prezioa jartzeko beharra sortu zen. Esnearekin hasi ginen. Esne-ontziei begiratu genien eta bi ondoriotara heldu ginen: esne-brik guztiek izena eta litroak agertzen zituzten; desberdinak zirenez, ezin zuten prezio bera izan.

Baina, zer da litro bat? Esne-kantitateari buruz aritu ostean, edukiera-unitateekin esperimentatu genuen. Litroko esne-kutxak, 1,5 litroko esne-botilak, litroko neurketa-pitxerra eta 5 litroko ur-txanbila hartuta, edukieraren arabera ordenatu genituen gure ontziak, kantitateak konparatu genituen eta abar.

Bestalde, taula bat prestatu genuen, esne mota, kantitatea eta prezioa erregistratzeko. Baina taula horrek ez zuen balio apaletan jartzeko, eta gainera ez zen sartzen. Zer egin genezakeen orduan? Familiek eskainitako materiala erabili genuen, material horretan etiketak baitzeuden. Nolakoak ziren ikusi genuen eta geureak prestatu genituen, antzeko itxurarekin. Horretarako, ordenagailua eta arbel digitala erabili genituen. Haur bakoitzak etiketa idazten zuen ordenagailuan eta, bitartean, arbel digitaleko proiektzioaren bidez, gainerakoek idazten laguntzen zioten eta zuzendu egiten zuten idatzitakoa.

Baina ikasleak ez zeuden konforme, gure etiketei zerbait falta baitzitzaien: barra-kodea. Hala, barra-kodeak gehitu eta zenbakiak kopiatu genituen. Bukatzeko, etiketak inprimatzen eta moztzen ditugu, eta dagokien tokian itsasten ditugu.

Era berean, pixkanaka etiketatu eta landu ditugu arrautzak, higiene-produktuak, arropa garbitzeko produktuak eta gainerako esnekiak.

Ondoren, etiketa bat aurkitu genuen benetako fruta eta barazkietan. Gainerako etiketen desberdina zen: hauek zenbaki bat zuten. Zertarako balio zuen? Nesketako batek aipatu zuen frutak eta barazkiak pisatu egin behar direla, erosteko. Zenbaki horrek pisatzeko orduan zer botoi sakatu adierazten zuen, etiketa irten zedin, prezioarekin. Beraz, etiketa desberdin hauek prestatu genituen eta zegokien tokian jarri genituen.

Orduan, frutak eta barazkiak pisatu genituen, benetakoak eta jostailuzkoak, doita-sun-balantza batekin, eta pisuak konparatu genituen, balantza normal batekin. Nolanahi ere, gure etiketetako zenbakiak zentzua izan bazuten, supermerkatuan bertan balantza



izatea komeni zen. Hala, balantza bat jarri genuen eta taula bat prestatu genuen, etiketako zenbakiekin.

Ondoren, gelara ekarritako beste materialak aztertzen jarraitu genuen. "Eskaintza" hitza zuten katalogo eta karteletan zentratu ginen. Ikusi genuen eskaintza mota desberdinak zeudela: 2x1, 2. alea % 50ean, dena euro 1 eta abar. Hau guztia azaltzean, erabaki genuen katalogo bat eginen genuela, iragartzeko bi produktu eraman eta bakarra ordaintzeko eskaintza eginen genuela. Multzo bakoitzeko zenbait produktu aukeratu genituen eta gure katalogoa egin genuen pixkanaka. Benetako katalogoetako irudiak moztu eta itsatsi genituen, aurkitu ez genituen produktuen argazkiak egin genituen, eta produktuen prezioa eta izena idatzi genuen. Halaber, kartelak egin genituen "eskaintza" hitzarekin, eta katalogoan agertzen ziren eta supermerkatuan genituen produktuetan jarri genituen.

Baina oraindik ere zerbait falta zen gure supermerkatua osatzeko. Haurrek produktuak iragartzen zituzten zenbait kartel handi ere ekarri zituzten gelara. Beraz, gure supermerkatuak horrelako bat egitea erabaki genuen. Genituen kartelak behatu eta aztertu genituen, eta erabaki genuen hango irudi batzuk aprobetxatu genitzakeela, gure kartelak egiteko. Irudiak moztu genituen, kartelei izenburuak jarri genizkien, sabaitik zintzilikatu genituen eta horman jarri genituen.

Proiektuaren amaiera

Supermerkatua martxan jartzeko prest geneukan baina, zer erosiko genuen eta nola?

Jolasten hasi aurretik, erosketa-zerrendak, prezioen baturak, euroen maneiua (5 eta 10 euroko billeteak, eta euro eta 2 euroko txanponak) eta saltzaile- / erosle-rolak aztertu genituen.

Ebaluazioa

Ebaluazio-prozesua bikoitza izan da. Ikasleen ebaluazioaz gainera, irakaskuntza-jarduera bera ere ebaluatu da.

Ikasleen ebaluazioa jarduera jarraitutzat hartzen dugu. Horretan, ez dira soilik azken produktuak kontuan hartzen, baizik eta baita hazkundea, eboluzioa eta ikaskuntza-prozesua ere. Hori dela eta, ez da kalifikazio bat, hobetzea ahalbidetzen digun balorazioa baizik. Ikasleengan, honako hauek baloratu ditugu: partaidetza, talde-lana, ekarpenak, 23/2007 Foru Dekretuan (Nafarroa, 2007) jasotzen diren curriculum-edukien ikaskuntza eta abar, behaketa sistematikoaren, ekoizpenen eta ahozko adierazpenaren bidez.

Bestalde, proiektua eta maistra gisa nola jardun dugun ebaluatu dugu. Gure adierazleak honako hauek izan dira: ikasleen motibazio eta interesa; ikasleek estrategia eta eduki funtzional eta errealeak ikastea; curriculumeko lana (Nafarroa, 2007); familien feedbacka eta iritzia.

Beste ikuspegi bat: familiak

Familiok oso begi onez ikusten ditugu proiektu bidezko metodologia eta landa-eskola.

Supermerkatuaren proiektuak aktiboki parte hartzeko aukera eman digu. Oso pozik gaude ekarpenak egiten ahal izateaz, prozesuan laguntzeko eta, gainera, poztan gaitu eskolan eguneroko errealitatearekin erlazionatu daitezkeen gaiak lantzeak.

Harro gaude gure seme-alabek eskola txiki batean ikasteaz, non adin desberdinetako haurrak talde berean baitaude, ikasleek elkar ezagutzen baitute eskolatu aurretik ere eta non, oro har, eskolatik kanpo ere ikasleek elkar ikusten baitute.

Horregatik, administrazioak gurearen moduko eskolak zaindu ditzan aldarrikatu nahi dugu. Landa-eskolek bizia ematen diote herriari. Herriotan bizi garenok gure seme-alabek hirietan diren neska-mutilen eskubide berdinak izan ditzaten nahi dugu.

Ondorioak

Gure jarduerari loturiko hiru ezaugarri nabarmendu nahi ditut:

- Proiektuen bidez lan egitea: ataza funtzionala eta esanguratsua, taldeko lana sustatzeko aukera ematen duena. Horretan, curriculumeko helburu eta edukiak modu motibatzaile eta esanguratsuan lantzen dira, eta inguruneke errealitatearen eta gelaren arteko erlazioa sustatzen da.
- Hizkuntza-aniztasuna: hizkuntzak ikuspegi integratu eta pragmatiko batetik ulertuta; hala, hizkuntzak ez dira edukia, baizik eta komunikatzeko tresna, ikaskuntza-prozesua aberastea ahalbidetzen duena.
- Landa-eskola. Posible da proiektuak ingelesez eta gaztelaniaz egitea, ikastegi mailan, komunitarioak, zein bestelako jardunbide berritzaileak gauzatzea, eta, hain zuzen ere, egiten ari dira halako ikastegietan. Landa Eskolek eskaintzen dituzten ezaugarriak oso probetxugarriak dira. Ikasle eta familiekiko hurbileko erlazioa, ikaskuntza banakoen arabera zehaztea, komunitatean parte hartzeko erraztasuna, ingurunearekiko etengabeko erlazioak, taldeen eta antolamenduaren malgutasuna dira, besteak beste, halako eskolek eskaintzen dituzten aukeretako batzuk. Ez diezaiegun ihes egiten utzi.

Erreferentzia bibliografikoak

HERNÁNDEZ, F. Y VENTURA, M. *La organización del currículum por proyectos de trabajo*. Bartzelona. GRAO, 1992.

COYLE, D., HOOD, P., & MARSH, D. *CLIL: Content and Language Integrated Learning*. Cambridge: Cambridge University Press, 2010.

Nafarroa. Martxoaren 19ko 23/2007 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Erkidegoko Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena. *Nafarroako aldizkari ofiziala*, 2007ko apirilaren 25a, 51. zk.-a, 1-17. orriak.

Etxalar, Landagain eskola: komunitate inklusiboa

Aintzane Ollokiegi Egaña
Landagain eskolako zuzendaria
cpetxala@educacion.navarra.es

Etxalarko Ikastetxe Publikoak bazterketa eta inklusiotik haratago doan proiektua garatu du. Lan prozesuak etapa ezberdinak izan ditu: beharren diagnostikoa, ikasleen lehentasunen definizioa, hobetzeko planaren prestakuntza, berriztapenen ezartzea, eta ebaluazioa. Helburu nagusiak kultura inklusiboa sortzea, metodologia inklusiboa lantzea eta praktika inklusiboak garatzea dira.

Hitz klabeak: bazterketa, diagnostikoa, hobetzeko plana, inklusioa, kultura inklusiboa, metodologia inklusiboa, praktika inklusiboak.


Etxalarko herria Nafarroako Ipar-mendebaldean dago kokatua, Bortzirietan (Bera, Lesaka, Igantzi, Arantza eta Etxalar), eta 815 biztanle inguru ditu. Hainbat zerbitzu elkarlanean ditugu, momentu honetan: Gizarte Zerbitzuak, Hiri Hondakinen Mankomunitatea eta Euskara Mankomunitatea. Hemendik aitzinerat hainbat zerbitzu elkarrekin izango ditugu Bidasoa eskualdean: Bortziririk, Malerreka, Bertizarana, Baztan eta Urdazubi eta Zugarramurdi. Bidasoa eskualde honek 22.500 biztanle inguru biltzen ditu eta 800km².

Herriak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: kultur etxea (ludoteka eta liburutegiarekin), igerilekuak, frontoi estalia, mendiku kontsulta eta 3-12 urte arteko haurrak hartzen dituen *Landagain* eskola publikoa.

Zergatik eskola inklusiboa?

Zergatik erraten dugu gure eskola inklusiboa dela? Arrazoi garbiak ditugu horretarako.

- *Landagain* guztiona eta guztiontzat den eskola delako.
- Norberaren esperientzietatik eta beste esperientziei esker eskola eraikitzen dugulako.
- Denon artean, irakasle, ikasle, guraso eta herriaren artean egiten ari garen eskola delako.



- Behar guztiak erantzuten saiatzen garelako.
- Ikasle anitzak elkartzen dituelako.
- Ikasle guztien ekarpenak aberasgarriak direlako.
- Gizarte anitz batean bizitzeko prestatzen gaituelako.


Gure eskola oso anitza da; aniztasuna oso espetro zabalean hartu behar dugu bazterketatik inklusiora eginez. Aniztasun honek eskolaren lan ildoan eta lan metodologian hausnarketak egitera eraman gintuen. Azken finean, beharrak identifikatu behar dira, lan plana diseinatu, martxan jarri eta jarraipena edo ebaluazioa egin.

Lan dinamika hau era positiboan eta aberasgarri bezala baloratu dugu. Aberastasuna eskola komunitate osorako izan da.

Zertan oinarritzen gara: helburuak

Eskola komunitatearen helburu orokorrak ondokoak dira.

1. Eskola kalitatezko eta zuzentasunezko ikuspegi inklusibotik bideratzea dugu helburu. Ez dugu halanolako eskola nahi; denontzako dena eta kalitatezkoa; bakoitzari behar duena ematen saiatzen gara.
2. Curriculum, ahal den neurrian, eskola dagoen inguruan txertatzen da. Hau da, curriculum komunitatean sustatzen da. Gure ingurunean jakintza islatzen badugu, eduki berriak askoz ere esanguratsuagoak izanen dira. Bizi dugulako, ezagutzen dugulako, gurea egiten dugulako. Eskolako ateak eta lehioak ireki eta barruan dagoena kanpora atera dadila eta kanpoan dagoena barrura sar dadila dugu xede. Horregatik iaz, *AS-TEKO PROTAGONISTA* ekimena martxan jarri genuen. Hasierako helburua eskola eta familien arteko harremana sendotzea zen. Baina martxan jartzerakoan, ahalmen handiko ekimena zela ohartu ginen. 2016-2017ko Urteko Programazioa Orokorrean (UPO), "*Curriculum familia jakinduriarekin uztartu*" helburua zehaztu genuen.
3. Eskola eredu honek ikasleen aniztasunari arrakastaz aurre egiteko ahalmena gehitzen dio. Bizipena eta ezagutza, zenbat eta zabalagoa eta ezberdinagoa izan, orduan eta



aukera gehiago sorteen ditu egoera ezberdinen aintzinean erantzun egokia emateko. Aniztasunak, aberastasunaz gain, era normalizatu batez ezagutza berriak barneratzea dakarrelako. Aniztasunak gehitzeko aukera ematen ditu.

4. Ikasgeletan eta eskolaz kanpoko jardueretan ikasle–herritar guztien parte hartzeko aukera bideratu eta sustatu behar da. Bai eskolan, baita herrian ere, antolatzen diren ekintza guztiak, denontzako bideratuak izanen dira.
5. Ikas-irakasteko prozesuetan denon parte hartzea sustatu beharra dago. Norberaren esperientzietatik eta beste esperientziei esker, irakas prozesua bermatuko da. Denona aintzat hartuz. Guzti honek gehitzeko aukera ematen baitu. Inor ez da baztertua izanen; bizipen guztiek lekua dute eta elkarrekin partekatzea da asmoa.

Nola gauzatzen da

Kontutan hartzen ditugu zenbait irizpide.

- Kulturarteko hezkuntza: ikasle guztien kultur pluraltasuna kontutan izan behar dugu curriculum lantzen dugunean. Gure ikasleen artean maila kultural ezberdinetakoak daude; hau da, aurrezagutza maila ezberdinetako pertsonak. Gure funtsa ikasle guztiengana curriculum nola bermatu izanen litzateke, denontzako eskola egin behar dugula ahaztu gabe.
- Bizitarako ezagutza eta trebetasunerako hezkuntza: eskolak izan beharko lukeen helbururik nagusienetakoa izanen litzateke. Era erakargarri batez landuz, denontzako den ikaskuntza kulturala bultzatuz. Azken finean, gizarteak plazaratzen dizkigun eguneroko arazoei aurre egiteko gai izan daitezten. Gaitasun hauek eskolak bakarrik landu ezin duenez, gizarte zerbitzuekin lan dinamika uztartu beharra dago. Beraiekin sarean lan egiten dugu kasu orokorrei baita zehatzei ere aurre egiteko.
- Elkarbizitza eta bakerako heziketa: Eskolan gauden guztion artean elkarrekiko errespetua jorratu eta bultzatu behar dugu. Gure eskolak urteak daramatza *Emozio hezkuntza* proiektua aurrera eramaten ikasleen garapen integrala izatea nahi dugulako. Emozio hezkuntzaren helburua hurrengo gaitasun emozionalak garatzea da. Lanketa



honek fruituak eman ditzan, eskolan dauden eremu ezberdinetako profesionalekin koordinazioa bermatu beharra dago.

- Parekotasuneko hezkuntza ingurune kaltetuetan: eskolan gertatzen diren bazterketa kasuetan eremu zabalaren behaketa egin behar da. Gure ardura arazoa hartatu, behaketa martxan jarri eta, ahal den neurrian, erantzun egoki bat ematea da. Ikasleak eskolakoak dira; irakasleak guztien arduradunak dira, ikasleen ongizatea bermatzeko ardura dute.
- Hezkuntza premia berezietan ikaskuntza oztopoak gainditzeko hezkuntza sortuko da, hau da, eskola inklusiboa, denontzako eskola dena. Gainontzeko ikasleekin egiten den bezala, hauei ere, curriculum bere ezagutza mailara egokitu behar zaie. Baita sozializatzeko pautak zehaztu ere. Ezaugarri bereziak dituzten ikasleak direnez, beraien berezitasunak ezagutzeko, interpretatzen jakiteko eta hartu behar diren neurri zehatzak zeintzuk diren jakiteko, elkarte ezberdinekin harremanetan jartzen gara. Adibidez, Eunate elkarte (gorren elkarte), Gautena (autismo elkarte) eta beste.


Azken finean, orain arte aipatu dugun guzti honekin lortu nahi duguna, ikasleen artean lankidetzazko eskola-komunitatea sustatzea izanen litzateke.

Lan prozesua

Eskola inklusiboa aldarrikatzen dugu eta gauzatzeko bideak kontutan hartuko dugu ikasleek egiten duten ibilbide osoa: eskolara heltzen dira, eskolaren parte dira eta bigarren hezkuntzara doaz.

LH eta DBH ikastetxeen artean zubi lana izan behar da. Gure ikasleak bigarren hezkuntzako ikastetxeetara joaten direnean, iragate hori samurragoa izateko, irakasleen arteko koordinazioa bermatu behar da. Aurten DBH ikastetxeko (Berako Toki Ona) plan estrategikoa diseinatzen aritu gara, gu ere beraien parte baikara.

Esandako hiru urratsak egoki osatzeko bidean, bortz etapatan sailkatu dugu lan prozedura:



> **Beharrak diagnostikatu**

Ikasleen ezagutza maila identifikatu behar da ikas-irakaskuntza prozesua eraikitzen joateko. Irailaren bukaeran barne froga batzuk pasatzen zaizkie ikasleei. Froga hauek, aurreko ikasmalarekin lotutako helburuak neurtzen dituztenak dira. Tutoreek eta orientatzaileak froga hauen irakurketa egiten dute beharrak diagnostikatuz.

> **Ikasleen lehentasunak definitu**

Behar guztiak identifikatuak daudelarik, orientatzailea zuzendariarekin elkartzen da laguntza hauen kudeaketa zehazteko: laguntza saio arruntak, ikasle bakoitzarekin norik egingo duen lan eta, azkenean, lehentasunak definitzen dira. Neurri bereziak dituzten ikasleekin, astean behin elkartzen dira ikasle horien tutoreak, zaintzaileak, PT-AL irakaslea eta orientatzailea beraien egokitzapen curricularra zehazteko, bere autonomi plana egituratzeko eta egunero sortzen diren kezka, zalantza eta ezbeharren inguruan solastu eta neurriak jartzeko. Behar den neurrian, eskolaz kanpo jasotzen duten laguntza bereziko profesionalekin harremanak zehazten dira.

> **Hobetzeko plana prestatu**

Ikasle bakoitzarekin zein lehentasun landu behar den zehaztu ondoren, nola jardungo garen diseinatzen da. Zein neurri hartu ditugun, zein lehentasun jarri, zein metodologi erabili, zein materiala eskuratuko dugun; dena jaso eta digitalizatuta geratuko da. Informazioa hau orientatzaileak erabiliko du datozen ikasturteetan eta eskolaz aldatzen denean informazio trukea egiteko. Azken finean, bere garapenaren jarraipen zehatza izateko.

> **Berriztapenak ezarri eta lagundu**

Hobekuntza plana diseinatu ondoren martxan jarriko da. Laguntzak irauten duen denbora, ezartzen diren aldaketa edota berriztapen guztiak jasoak izanen dira, plana eguneratuta izan behar delako. Guzti honen ardura laguntza irakasleak eta orientatzaileak izanen dute, beti ere, tutorea prozedura guztiaren jabe izanik.

> **Ebaluatu**

Martxan jarri den prozeduraren ebaluaketa egiten da. Horretarako hiru hilabetero diren ebaluazio saioak edo koordinazio saioak erabiltzen dira. Horrela erabakiko da planarekin jarraitzea, etetea edo aldaketak ezartzea.

Dimentsioak eta atalak

Ondorengo hiru dimentsioak inklusioaren adierazleak dira.

> **Kultura inklusiboa sortzea**

Dimentsio honen zeregina, ikasle bakoitzak bere burua balioestea da. Lan metodologiari esker, lankidetzaz eta lan estimulazioari esker, ikasleek lorpen mailak handitzen joaten dira komunitate osoan inklusio balioak garatuz.

> **Metodologia inklusiboa lantzea**

Lan metodologiak ikasle guztien partaidetza eta ikaskuntza prozesua hobetzeko balio behar du. Horregatik, ezinbertzekoa da gelaren aniztasuna kontutan hartzea metodologia ezartzerakoan eta ikasleen beharretara egokitzerakoan. Ikasleak ez dira irakaslearen metodologira egokitu behar, irakaslea da ikasleengana gerturatu behar dena. Ikas prozesuak ikasleentzako bideratua egon behar du aniztasuna zaintzeko.

> **Praktika inklusiboa garatzea**

Ikasgelan eta eskolaz kanpo antolatzen diren ekintza guztiak ikasle guztientzat bideratuak izanen dira. Denen artean lankidetzaz, gerta daitezkeen trabak gainditzeko balio beharko luke, dituzten oztopoak erraztuz eta gaindituz. Herrian antolatzen diren ekintzak edo eta ondoko herriekin antolatzen diren txango, joko topaketa edo kanpaldietan trabak kontutan hartuko dira ekintzak ikaslearen neurrira jarri.

Guzti honen helburu bakarra, ikasleen ikasketa aktiboa bermatzea baita. Hiru dimentsio hauek elkarrekin doaz; triangelu aldeakide bat bezala irudika daitezke. Hiruak maila berdineko balioa bait dute. Dimentsio bakoitza bi ataletan banatzen da, ikaskuntza eta partaidetza hobetuz:

- Kultura inklusiboa sortzea
 - Komunitatea eraikitzea.
 - Inklusio balioak ezartzea.
- Metodologia inklusiboa lantzea
 - Guztiontzako eskola sortzea.
 - Aniztasuna zaintzeko laguntza antolatzea.
- Praktika inklusiboa garatzea
 - Ikaskuntza prozesua prestatzea.
 - Baliabideak mobilizatzea.

Hiru dimentsio hauek era berean gertatzen dira. Batean aldaketa gertatu ezker, bertze bietan ere, aldaketak gertatuko dira.

Hau da, labor agertuz, gure eskolak eta komunitateak eguneroko lanean garatzen duen proiektua: bazterketa eta inklusiotik haratago doan inklusioa.

Arnegi eta Luzaideko eskolen arteko mugazgandiko proiektua

Luzaide I.P. eta Arnegi I.P.

Sylvie Arrijuria, irakaslea. Peio Beloqui Yaben, frantseseko irakaslea.
Ana Isabel Elizondo Ainciburu, irakasle eta zuzendaria. Maite Eyherart,
irakasle eta zuzendaria. Mikel Fernández de Quincoces Martínez de
Birgara, Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuen Zuzendaria
cpluzaid@educacion.navarra.es
p640492m@ac-bordeaux.fr

“Bainan yendea iratzartu eta ernatu da, lehiatu da yakitaterat eta ikhasterat eta orduzkioz begi eta adimendu aitzinian ginituen ilhundurak erhautsi ditugu eta argitu gira, ohartzuz azkenian zainetan odol ber-bera dugula denek, izan ditezken iphar edo hego aldekoak, ala iguzkialdekoak edo astiri aldekoak. Anaitasuna ! Badea zerbait ederragokorik?” (Enrike Zubiri “Manezaundi”)

“Les frontières ne sont que des coups de crayon sur des cartes. Elles tranchent des mondes mais ne les séparent pas. On peut parfois les oublier aussi vite qu’elles furent tracées.” (Philippe Claudel)

Proiektu honetan, Luzaide eta Arnegiko landa eremuko eskolek Bilketa Pedagogiko Komunartekoa baten sorkuntza dute helburu. Landa eremuko eskolaren indartzea, ikasleen gizartaratzea erraztea, herrien arteko harremanak sendotzea, hizkuntzen ikasketa murgiltzearen bitartez erraztea sorterriko irakasleekin, eta aberaste kulturala lortzea bilatzen ari dira. Ebaluaketa sakon eta eraginkorra burutzeko zenbait urte pasatu beharko dira, arlo ezberdinetan.

Gako-hitzak: Landa eremuko eskola, murgilketa, kultur aberasketa, sozializazioa, landa-eremuko osoko garapena.

Testuingurua

Luzaide Ikastetxe Publikoa Luzaide herrian kokaturik dagoen D ereduko eskola unitarioa da, bertan komunikazio-hizkuntza euskera da, gaztelania ikasketa-planan gainerako irakasgai bezala agertzen da eta Atzerriko Lehen Hizkuntza frantsesa da.



Arnegiko Ikastetxe Publikoa landa-eremuko eskola da; ikasturte honen artio (2016-17) eskola unitarioa izan da eta iraskaskuntza gehiena frantsesez egiten zen, gaztelania eta euskeraren erabilera gutxienekoa izanik ere. Artikulu honetan azaltzen dugun proiektua aurrera eraman ahal izateko, zenbait aldaketa izan ziren, alde batetik bi unitateko eskola bihurtu egin da (HHko gela bat eta LHko beste gela), beste aldetik, HHn elebidun eskola (frantsesa-euskera) bihurtzeko prozesuari hasiera eman dio; gaztelaniaren erabilera L.H.n gutxienekoa izaten jarraitzen du.

Arnegi eta Luzaide Nive erreka mugatzen dituen herri mugakideak dira; bere garaian muga fisiko hau muga politikoa bihurtu zen Espainia eta Frantziako estatuak bereiztuz.

Arnegi herria, eta bere auzoa den Ondarroa, XVII. mendearen erdialderarte Luzaidekoak izan ziren, garai horretan Luis XIII.k Bearno eta Nafarroa Beherea Frantziako lurraldera behin betikoz elkartzea erabaki zuen. Bereizketa politikoa aurrera eraman bazen ere, ez zen gauza bera lortu eliza-eremuan; beraz, Ondarrolako biztanleek Luzaideko eliztarrak izaten jarraitzen dute.

Bi herrien arteko iraganaldiak, hizkuntza bera izateak (euskera), senitarteko harremanak eta kulturalki sustrai komunak izateak bien arteko lotura bizirik mantentzea lortu du. Hala ere, azken hamarkadetan erlazioa epeltzen joan da bi herrienak ez diren interesak bultzatuz eta beren beharrei eta garapenari bizkarra emanez.

Hau dena kontutan hartuz, erraten ahal dugu bi herriko eskolen arteko mugazgaidiko proiektuak, euskarri sendo batean oinarritzen denez, nagusiki burutzeko posibilitate asko dituela, anaitasuna berreskuratuz eta aldi berean herrien historia eta kulturaren bilakaeraren ondorioz sortutako ezberdintasunek, ez bakarrik aipatutako komunitateak baizik eta, oro har, sozietatea aberasten dituelarik.

Hastapena

Ezaugarri nagusienak hauek dira:

- Proposamenaren helburua: Bilketa Pedagogiko Komunartekoa baten sorkuntza Arnegi eta Luzaideren artean. Egitasmoa Frantzian jaio zen.
- Administrazio eta irakaskuntza taldeen arteko lana:
 - Proiektuaren eraikuntzan aurreratzea, 2016-17 ikasturtean hasteko.
 - Bideragarritasun proposamena lantzea.
 - Bi proposamenak komunean jartzeko bilera egitea.
 - Behin proiektu egituratu eta bidegarria izanda, udal eta familiei informatzea.
 - Bi herrien arteko lan proposamena familiei aurkeztea.
- Eskola bakoitzeko familiekin egindako lana:
 - Bi eskolen arteko proiektuaren aurkezpena.
 - Ados dauden edo ez erabaki zuten eta bi hezkuntza administrazioei jakin arazi.
 - Bi administrazioen ordezkarien arteko bilera, ikastetxeen bi zuzendari eta bi herrietako familiekin batera.

Helburuak

Proposamenaren helburu orokorrak:

- Landa eremuko eskolak indartzea.
- Ikasleen gizarteratzea erraztea.
- Herrien arteko harremanak sendotzea.
- Hizkuntzen ikasketa murgiltzearen bitartez erraztea, jatorrizko irakasleen bidez.
- Aberaste kulturala bultzatzea.

Antolaketa orokorra

Bi eskola txikien artean egituratu den antolaketa zehatz ezagutzea interesgarria izan daiteke. Gauzak horrela, hor doa, ondoko informazioa.

- Iraunpena: Hainbat urtetarako proiektua da.
- Ikasle-trukea:
 - Goizero Arnegiko Haur Hezkuntzako ikasleak Luzaideko eskolara doaz. Saio gehienak euskeraz egiten dira.
 - Arratsaldero Luzaideko Lehen Hezkuntzako ikasleak Arnegiko eskolara doaz. Saio guztiak frantsesez egiten dira.
- Egutegia: Eskola bakoitzak bere egutegia mantentzen du. Ikasle-trukea bi eskolen arteko egutegi komuna duten egunetan egiten da.
- Orduetgia:
 - 09:00, goizeko klaseen hasiera.
 - 12:30, Arnegiko ikasleak bukatzen dute goizeko saioa.
 - 12:55, Luzaideko ikasleak bukatzen dute goizeko saioa.
 - 14:15, klaseen hasiera arratsaldetan.
 - 15:50, arratsaldeko klaseen bukaera.

- Ikasle-trukea ekintza osagarrietan: Bi eskolen arteko bi egunetako kanpaldia. Kirol topaketak Garazi zonaldeko eskolekin. Eskolako jaialdiak.
- Ikasleak:
 - Luzaideko eskolan: H.H.: 5 ikasle / 3 maila. L.H.: 9 ikasle / 5 maila.
 - Arnegiko eskolan: H.H.: 9 ikasle / 3 maila. L.H.: 16 ikasle / 5 maila.
- Irakasleak:
 - Luzaideko eskolan: Tutore 1, Frantseseko espezialista + Laguntza L.H.n irakasle 1, Laguntza irakasle ½.
 - Arnegiko eskolan: H.H. tutore 1, L.H. tutore 1.

Luzaide eskolako antolamendua goizeko saioetan modu honetan gauzatzen da Haur Hezkuntzan:

Taldekatzea:

Taldeak euskera saioetan		
Gelak	Taldeak	Irakaslea
Gela 1	Luzaide eta Arnegiko HHko 1. eta 2. mailako ikasleak	Arnegiko HHko tutorea
Gela 2	Luzaide eta Arnegiko HHko 3. mailako eta Luzaide LHko 1. eta 2. mailako ikasleak	Luzaideko tutorea
Taldekatzeko honen zergatia:		
<ul style="list-style-type: none"> - Haurren sozializazioa errezteko. - Arnegiko HHko ikasleak (elebitasunera sartzen direla lehenengo urtez) euskeraz mintzatzen diren beste ikasleak gela berean izatea eredutzat hartzeko. - Talde haur kopurua orekatua izateko. 		

Taldea frantsesa saioetan		
Gela 1	Taldeak	Irakaslea
Gela 1	Luzaide eta Arnegiko HHko ikasle guztiak bateratuak	Arnegiko HHko tutorea
Taldekatzeko honen zergatia :		
<ul style="list-style-type: none"> - Frantseseko murgilketa lortzea Luzaideko Haur Hezkuntzako ikasleentzat. - Arnegiko eskolaren elebitasunaren modeloak eskatzen duenez euskera eta frantseseko saioak orekatzea bere Haur Hezkuntzako ikasleentzat. 		

Lanaren antolakuntza:

- Egindako lana:
 - Bi eskolen etapa honetako helburuak arteztuz gero gehienak berdinak direla baieztatu.
 - Proiektuan ikas- eta irakas-metodoa orohartzailerik ikuspuntutik abiatuko dela berretsi.
 - Curriculumen ezberdintasun gehienak gaitzeko modukoak direla baieztatu eta akordio batzuetara heldu.



- Lehentasunak finkatu: euskera indartu, ahozko ulermenetik abiatu, ahozko ekoizpena hartzeko.
- Ezinbesteko koordinazioa izan: gaiak aukeratu, errutinen urratsak finkatu, hiztegia adostu...
- Ebaluaketa irizpideak adostu bi eskoletako familiei informazio zehatza emateko.
- Zailtasunak:
 - Hizkuntz trataera ezberdina da bi eskoletan, hau da, elebitasunari dagokionez bi erritmo ezberdinetan mugitzen gira eta ezberdintasun handiagoa oraindik hirugarren hizkuntzari dagokionez.
 - Irakurketa eta idazketaren hastapena Arnegiko eskolan frantsesez egin behar da eta Luzaideko eskolan euskeraz.
 - Zailtasun hauek modu sakon eta konstruktibo batez aztertuak izan behar dira bi eskolendako benetazko Hizkuntz Proiektu bat sortu nahi bada.

Giza - harremanak:

- Ikasleak:
 - Arnegiko ikasleak berehala laketu ziren Luzaideko eskolan.
 - Familien jarrera eta bere eskolako irakaslea etortzeak asko lagundu zuen egokitzapena lasaia eta azkarra izateko.
 - Luzaideko ikasleentzat zailagoa izan zen egokitzapena, nolabait bere esparrua hartuta ikusten zutelako; hala ere gaur egun erraten ahal dugu Arnegi eta Luzaideko Haur Hezkuntzako ikasleak talde bakarra osatzen dutela.
- Irakasleak
 - Irakasleendako proiektua erronka bat izaten ari da.
 - Inplikazio pertsonala handia eskatzen du.
 - Aberaste personal eta profesionala suposatzen du.
 - Bakoitzak hiru hizkuntzetan duen gaitasunaren garapena auzitan jartzen du.



Luzaide eskolako antolamendua arratsaldeko saioetan honelakoa da Lehen Hezkuntzan.

- Ordutegia:
 - 14 :15 – 14 :50 :
Luzaideko umeei: frantsesa.
Arnegiko umeei : gaztelania.
 - 14 :50 – 15 :50 :
Arnegi eta Luzaideko ume guztiei nahasturik: frantsesa.

Arratsaldeko lehenengo saioa: frantsesa eta gaztelania

a) Taldekatzea:

- Gaztelania: 35'ko saioa.
 - Arnegiko umeak.
 - 90 saio - 50 ordu.
 - 3 mailak : L.H. 3., 4. eta 5.
 - 8 ume.
 - Hizkuntza maila A1.
- Gaztelania: 35'ko saioa
 - Arnegiko umeak
 - 90 saio - 50 ordu.
 - 2 mailak : L.H. 1. eta 2.
 - 8 ume.
 - Hizkuntza maila A1.
- Frantsesa: 35'ko saioa
 - Luzaideko umeak.
 - Arnegiko ume batzuk.
 - 90 saio - 50 ordu.
 - 6 mailak: H.H. 3. , L.H., 1., 2., 3., 5., 6.

- 9 ume+ 3 ume.
 - Hizkuntza maila A1.
- b) Luzaideko L.H.ko ikasleak eta Arnegiko H.H.ko 3.mailakoak: frantsesa
- Taldekatze honen bidez sor zitezkeen elkarreginak profitatu nahi dira.
 - Errutinak (eguna, egutegian kokatzea, aroa), kantuak eta beste lantzen dira.
 - Arras interesgarria da une hau, batez ere Luzaideko umeak ttikiekin ausartzen dira gehiago hitz egiten eta ttikiek aldi berean ere handietatik ikasten baitute.
 - Gero, aho hizkuntza lantzen dute: fonetika, sintaxia, ipuinak...
 - Irakaslea frantsesa izateak taldearen lana aberasten du.
- c) Arnegiko L.H.ko ikasleak: gaztelania
- Talde bateko irakaslearen ama-hizkuntza gaztelania da, honek ahozkerara hobetzen du, hiztegia aberasten eta esamoldeak hobeki ezagutzen laguntzen du.
 - Ikasleak motibatuak agertzen dira, gaztelaniaren ikasteari zentzu ematen diote, ondoko herriko lagunekin komunikatzeko tresna bilakatu baita.
 - Landutako gaiak nahiko ezagunak izan dira; beraz, horiei buruz zerbait erran ahal dute, erreferentzi asko baitute.
 - Antolakuntza honi esker Arnegiko ikasleek, beste ikasturtearekin konparatuta astero 20 minutu gehiago eskaintzen diote gaztelaniari.
 - Irakasleen koordinatzeko beharrezkoa den astirik izan ez denez, materialaren bilaketa eta programazioa irakasle bakoitzak bere aldetik egin du. Hurrengo urteetara begira eta programa hau aurreratzen doan heinean saio hauek gehiago koordinatu beharko genituzke hizkuntza proiektu on bat burutzeko.

Arratsaldeko bigarren zatia: Frantsesa, komunikazio-hizkuntza

a) Taldekatzea:

- 1. taldea:
 - 90 saio - 90 ordu
 - 3 mailak: 1., 2. eta 3.
 - 13 ume (8 + 5)
 - Luzaide eta Arnegiko umeak
 - 2. taldea:
 - 90 saio - 90 ordu
 - 4 mailak: 3., 4., 5. eta 6.
 - 12 ume (8 + 4)
 - Luzaide eta Arnegiko umeak

Taldekatze honekin alde batetik ikasle kopuruari dagokionez taldeak orekatze eta bestetik 3. mailako 6 ikasleak bi talde ezberdinetan banatzea lortu zen.
- b) Gelako lanaren antolamendua:
- Luzaideko umeak Sylvieren gelatik ateratzen direlarik, Maite eta Peioren geletara joateko, transizio bat egiten da Arnegiko umeendako, hizkuntza batetik bestera pasatuz, ordu arte gaztelaniaz mintzo baitziren, eta frantsesera pasatzeko seinalea delako.



- Gero, kopuru tipiko tailerrak egiten dira, bi eskoletako eta 2 mailako haurrak nahasiz talde bakoitzean. Horrela, frantses ikasleak, bakoitzak dakienaz baliatzen ahal dira, trukaketa bultzatzeko, eta proiektuaren egintzak azkartzeko.
- Jorratutako gai ezberdinak proiektuen bitartez landu dira.
- Bi eskoletako curriculumak ezberdinak direnez, maila bakoitzeko edukiak eta helburu garrantzitsuenak ikasgai batzuen arabera sailkatu ziren eta gero programazioa adostu zen. Honek esan nahi du Arnegiko ikasleek matematika, geografia eta zientziak lantzen dituztela eta aldi berean Luzidekoek frantsesa lantzen dutela.
- Murgiltze programa aurrera eramateko ekintza ezberdinak egiten dira.

Arratsaldeko antolamendurako zergatia:

- Orduetgia eta taldekatzea finkatzeko aldagai asko kontutan hartu behar izan ziren: bi hizkuntza, hizkuntza ezagutza maila ezberdinak, hizkuntza lantzeko metodologia ezberdinak, adin ezberdinak, espazioa edo giza baliabideak.
- Ezinbestekoa zen bi eskoletako curriculumak uztartzea: hizkuntz bakoitzari eman behar zaion ordu kopurua, landu beharreko gaitasun mailak eta beste.
- Landu beharreko bost kompetentziak (ahozko ulermen eta adierazpena, idatzizko ulermen eta adierazpena eta elkareragina) aldiro-aldiro landuko zirela bermatzea.

Zailtasunak:

- Ikas-saioen plangintza eta programazioa kontutan hartuz hizkuntza ezberdinen ezagutza maila ezberdinak.
- Irakasleen arteko bidezko koordinazioa izateko beharrezko astia ez izatea.
- Adin ezberdineko ikasleak, ama-hizkuntza ezberdinekin eta beste hizkuntz eza-gutzaren maila ezberdinak batera talde bakoitzean.

Zailtasun hauek izanda ere, hezkuntza eragile guztien ustetan, hau da, bai irakasle eta ikasle, bai gurasoak, bost trebetasun hauetan aurrerapausu nabarmenak egin dituzte epe motz honetan.

Balorazioa

Hemen azaldutako proiektua epe motzera ebaluatzea ez da batere erraza. Hainbat urtearako proiektu honek etengabeko ebaluaketa eskatzen du, alde batetik uneko errealitateari moldatzeko bidezkoak diren aldaketak eginez eta beste aldetik, hobekuntzak gehitzeko.

Beraz, ebaluaketa sakon eta eraginkorra burutzeko zenbait urte pasatu beharko dira, arlo ezberdinetan (ikasle, komunitate, ingurua, familia, irakasle...) benetan izan duen eragina ziurtasun osoz jakiteko.

Une honetan lehenbiziko balorapena osatzen ari gara bi eskoletako profesionalak eta bi herrialdeko hezkuntza administrazioen ordezkariak proiektua finkatzeko eta ahal den neurrian hobetzeko.

Nolanahi ere, eskolen arteko mugaizgandiko trukatzeko proiektuak, hilabete batzuk martxan egon eta gero, erraten ahal dugu bai bi eskoletan, bai Luzaide eta Arnegi herrietan sentsazio erabat positiboak sortu dituela.

Proiektu honek erakusten du:

- Landa eremuko eskolak bizirik direla, aberasgarriak eta beharrezkoak direla. Berrikuntzari zabaldua eta moldagarria direla.
- Landa eremuko eskola aparteko izate bat ez dela, bera zehazten eta sustatzen duen inguruaren parte dela baizik.
- Hizkuntza, kultura eta gizarte ezberdinen elkartzea ez da hezkuntzarako oztopotzat hartu behar, baizik eta erabiltzeko den aktibo bezala.

Finitzeko, muga fisikoak eta politikoak nolabait gainditu ditugula erraten ahal dugu, gure aurrean itxaropenaz betetako etorkizuna zabaltzen da; gauza bakarra nahi dugu: muga mentalak gainditzeko beharrezkoa den adorea izatea.

Bukatzeko, hitz hauen bidez eskertu nahi dugu:

- Luzaide eta Arnegiko ikastetxetako ikasleen familiei, bere seme-alaben heziketa landa-eremuko eskolekin batera partekatzea hautatzeagatik eta hau bezalako proiektu aitzindari batean sartzeagatik.
- Bi herritako udalei, familia eta eskolei behar izan duten bakoitzen emandako sostenguarengatik.
- Bi lurraldetako Hezkuntza Administrazioei, proiektuarekiko izan duten inplikazio eta babesarengatik.
- Arnegi eta Luzaideko herritarrei, proiektu berri honekin erakutsi duten interesa, laguntza eta itxaropenarengatik.
- Eta, batez ere bi eskoletako ikasleei, haiek gabe proiektu hau ezin izanen zelako aurrera eramaten ahal.

Sakanako eskola txikiak

Jesús M^a Argote Novales, Sakanako Eskola Txikien koordinatzailea.
Lierni Galarraga Lekuona, Sakanako Eskola Txikien koordinatzaile ohia
coordinacion.alsasua@educacion.navarra.es

“Bakarrik azkarrago joango zara; elkarrekin, berriz, urrutirago”

Laburpena: Aspalditik Sakanako Eskola Txikiak elkarlanean ari dira, eta, elkarrekin egin duten bidean, etapa desberdinak igaro dituzte. Guztiak oso baliagarriak izan badira ere, 2015/2016 ikasturtean burututako hausnarketa eta prozesu parte-hartzailea nabarmena da. Eskoletako familien, irakasleen eta hainbat eragilen laguntzarekin etorkizuneko lan ardatzak, lehenetsunak eta erronkak zehaztu zituzten.

Hitz gakoak: elkarlana, hausnarketa, komunitatea, parte-hartzea, Sakana.

Testuingurua

Sakana eskualdea Nafarroako ipar mendebaldean kokatuta dago Araba eta Gipuzkoarekin mugan. Arakil eta Ziordia bitartean 30 herri osatzen dute eskualde administratiboa eta lau gune historikotan banatua gaude: Burunda, Aranatz, Ergoiena eta Arakil. Guztira, 20.000 biztanle inguru gara.

Irakaskuntza guztira 15 ikastetxe daude: 11 publikoak dira, 3 kontzertatuak eta 1 pribatua. 2015/2016 ikasturtean, 2.207 izan ziren irakaskuntza publikoan matrikulatuta zeuden ikasleak, eta, 938 eskola kontzertatu eta pribatuetan.

Gure zonaldeko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak 9 dira, horietatik 5 Landa eremuko izendapenean biltzen dira: Olazti, Urdiain, Iturmendi, Arbizu eta Uharte-Arakilgo Herri-Eskolak. 2015/2016 ikasturtean, 299 ikasle izan genituen eta guztira 52 irakaslek osatu zituzten klaustroak eta lantaldeak. Bost eskola hauek, Sakanako Eskola Txikien komunitatea osatzen dute eta aipatzeko moduko da azken ikasturteetan burutu duten hausnarketa eta bere emaitza: elkarlanaren alde apustu nabarmena.



Nondik gatoz?

Urteak dira Sakanako herrietako eskolak elkarrekin lanean hasi zirela. Geroz eta gehiagora doa herri hauei bizia ematen dieten eskola hauen arteko hartu-emanak.

Orain dela lau bat urte gure taldea hobekien identifikatzen duen izena Sakanako Eskola Txikiak izango zela erabaki genuen. Eskola txikiak, familiarrak, gertukoak, jende askoren topalekuak bezala sentitzen genituen. Buru eta bihotz bere egitekoan pozik ari den jendartea dela sentitzen genuen. Horregatik, Eskola Txiki deitzea erabaki genuen. Landa eramuko ikastetxe baino gehiago txiki eta gertuko eskola gisa sentitzen ginelako.

Atzerago joan gabe, 2013an zonaldeko ikastetxeen koordinatzailearen egitekoak zehaztu ziren: eskola arteko egitasmoak bideratzea, irteerak antolatzea, festak koordinatzea, talde irudia sortzea, komunikazio plan bat egitea, institutuarekiko zubi lana indartzea, matrikulazio kanpaina bideratzea, zenbait bileretan eskola txikiak ordezkatzeko, Intraneta sortzea, Plan Estrategikoa egitea, Interes taldeen hausnarketa... Horiek ziren zonaldeko ikastetxeek eskuartean elkarrekin aurrera eramane nahi zituzten erronka nagusietako batzuk. Hortik jaio zen Sakanako Herri-Eskolak izenaren pean aurrera eramango ziren erronken abiapuntu berritua.

Sakanako Herri-Eskolak izeneko sarea osatu genuen eta bere barnean Eskola Txikiena. Euskaltermen arabera herri-eskola da eskola publikoa adierazteko modu jatorrena. Horregatik erabaki genuen taldeari izen hori jartzea. Esateko modu horrek identifikatzen gintuela ikusi genuen eta beraz gure egin nahi genuela erabaki genuen. Izen egokia eta polita delako eta herria gure izatearen oinarria delako.

Gure izaera eta asmoa adieraziko zituen esaldi samurrago bat ere aukeratu nahi izan genuen. Joxean Artzeren olerki ezagun bat aurkitu genuen. Donostiako Arkitektura fakultateko paretan irakurria genuen eta berarekin identifikatuta sentitzen ginela ohartu

ginen, “iturri zaharreko ur berriarekin”, alegia. Gure lema, gure poesia hori izango zela erabaki genuen.

*“Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten
beti berri den ura
betiko iturri zaharretik”*
Joxe Antonio Artze

Esaldi horrek gure herri-eskolen iragana eta etorkizuna oso ondo irudikatzen zituela ikusi genuen.

Ikaslea lehena eta metodologia aktiboak

Urdiaingo herri-eskolaren plan estrategikoa lantzen hasi ginenean, zenbait saiotan zehar eskolaren interes taldeei buruz pentsatzen jarri ginen, zein interes talderi eman nahi genion garrantzi gehien. Hor zeuden herria, familia, ikaslea, irakaslea, gizartea, Hezkuntza Departamentua... Konturatu ginen ikaslea zela eta izan behar zela gure lehenengo interes taldea. Gure indarra eta lana berari zuzendu behar geniola bereziki eta bere ondoan, ahaztu gabe, irakaslea bera zegoela, gure buruak zaintzeak berebiziko garrantzia zuela, alegia.

Hori da Sakanako eskola txikien ezaugarri amankomuna: ikaslea da ikaskuntza irakaskuntza prozesuaren abiapuntua. Horrek gure lana egiteko modua esplikatzen du, gure beharrak edo formakuntzaren ildoak erakusten ditu. Beraz, eskola txikiek, behar eta kezka antzekoak dituzte gai askotan (adin desberdinetako ikasleen taldekatzeak, ikaslearen erritmoa errespetatzeko metodologiak, euskal kultura...). Horregatik antolatu ditugu gehienetan formakuntza amankomunak.

Metodologia aktiboak deitzen direnak gorputza ematen diete eskola txikien formakuntzari. Formakuntza horietan hizlari eta bidegile izan ditugu askotan gure eskola txikietako irakasleak berak edo kanpotik etorritako adituak: pedagogia sistemikoan, psikomotrizitatean, Montessoriren pedagogian, metodologia aktiboetan, bertsolaritza, errobotika, Sakanako curriculumak, Ikas komunitateak, Claudio Naranjoren formazioan... eta beste gai ugarietan masterrak eginda dituzten irakasle asko ditugu gurean. Horrela, etengabeko formazioan dauden irakasleen profila da gure eskoletakoa.

Plan estrategikoa

2014an interes talde desberdinei (familia, irakasle, ikasle, orientatzaile...) eskoletatik zer espero zuten esatea eskatu genien, zertan ari ginen zuzen eta zertan hobetu behar genuen. Hortik jaio zen Eskola Txikien Plan Estrategikoa. Hauek izan ziren ideia nagusiak: kalitatea pedagogian eta kudeaketan, zonaldean txertatua eta matrikulazioa garaian aktiboak. Ikasturtero Urteko Plangintza Orokorretan landu ditugun ildoak izan dira.

Talde identitatea

Lan hori egin ondotik, nortzu gara eta noruntz joan nahi dugu zehazteko momentua zela sentitu genuen. Iruñeko coach batekin harremanetan jarri ginen eta laguntza eskatu genion. Sakanako Eskola Txikien talde identitatearen dokumentua idazten hasteko lanketa aberatsari ekin genion, horrela. Pausoz pauso iraganetik etorkizunerako bidea jorratuko genuela erabaki genuen. Horretarako zonaldeko eragileekin hitz egin ondoren, eskola komunitateko partaide guztiekin lanketa bat egiten hastea pentsatu genuen.

Iragan iluna

Bide gogorra izan zen hasieran, eskola publikoak Sakanan izandako iragana azalera atera bai genuen lehendabizi. Herrietako errealitate gordinak ezagutu genituen. Eskoletan bizipen on eta bestelakoak gertatu izan zirela agertu zen eta egoera horiei argi egin genien gure lanketaren bidez, ikasle ohi, guraso eta herritarren testigantzen bidez.

Ikastolei eskerrak

Aldi berean Ikastolei errekonozimendua egin genien. Beraiei esker ireki baitzen eskoletan euskaraz ikasteko bidea. Beraiekin elkartu eta proposamena egin ondoren, eskoletara etortzera gonbidatu genituen eta ekitaldi xume eta oso hunkigarri batean ikastolako sortzaile izandako zenbait irakasle, guraso eta gaur eguneko zenbait kideri eskerrak eman genizkien. Ikastolaren elkarlan eta auzolanerako kultura guk geure egiten jarraitu nahiko genuke eta gure eskolen kulturaren parte izatea nahi dugu.

Ametsen fasea

Ondoren ametsen fasea hasi zen, non ikasle, irakasle, guraso, herriko eragile, udal, mankomunitate eta hezkuntza komunitate osoari gure eskolak nolakoak izatea nahi duten amesteko eskatu genien. Adibidez, Olaztiko, Urdiaingo, Iturmendiko, Arbizuko eta Uharte-Arakilgo ikasleek esan zuten ikasi nahi dutela jolastuz, arte plastiko gehiago nahi dutela, ez dutela etxerako lanik nahi, etxean gurasoekin egon nahi dutela edo arazoak beraien artean eta hitz eginez konpondu nahi dutela eta handiek txikiekin denbora gehiago igaro eta erabakiak hartzeko aukera eduki nahi dutela.

Dokumentua

Aurreko lanketaren ondorioz dokumentua sortzen da. Bi atal nagusi ditu: Kultura eta Babilioak.

- **Kultura**

- Hizkuntza: euskaratik eta euskaraz. Gure eskoletan, gure hizkuntza maite eta zaintzen duten herritarrak hezten ditugu. Euskara gure ondasuna dela erakusten diegu ikasleei. Hizkuntzak hurbildu egiten gaituela sentitzea nahi dugu.
- Publikoa: zenbat buru, hainbat aburu. Publikoa gara, eta itxaropenez ikusten dugu nola ari den gure hezkuntza-komunitatea indartzen eta dagokion lekua hartzen. Hezkuntza-komunitatea da gure eskolen etorkizuna aukeratzen eta bideratzen duena. Herriko plaza gara, herri osoa han elkartzen duena eta ideia eta pentsamendu askotariko pertsonak biltzen dituena.
- Aniztasuna: zubi ugari dituen herria. Zubiak gara, norbanakoen arteko loturak eraikitzen dituztenak; elkarrekin komunikatzen gaituztenak; hainbat identitate,



erlijio, egoera sozial eta kultura lotzen dituztenak. Gure herriko haurrak plaza be-
rean jolastu daitezzen nahi dugu.

- Ekitatea: desberdinak bezain berdinak. Ikasle guztientzat, direna direla eta dutena dutela, ekitatea nahi dugu. Sakanako egur-lotearen kasuan bezala, herritar guztiek eskubide berbera izan dezatela kultura eta jakintza eskuratzeko.
- Errespetua: eman eta jaso, jaso eta eman. Gure eskoletan, harremanak errespetuan oinarritzen dira. Pertsona bakoitzaren duintasunaren aitortza bermatzen dugu. Gure eskoletatik botere eta jazarpen erabilera guztiak baztertzen ditugu. Eguzki-loreak bezalakoak izan nahi dugu, errespetua, zaintza eta babesgune ziurra eskaintzen duten eskolak.
- **Balioak**
 - Familia: herri hezitzaileak, eskola herritarrak. Eskola herrira zabaltzen dugu, eta herria eskolan sartzen dugu. Ikas-komunitate aktiboa gara. Gure eskolako atea familiei irekia dago. Beraien nahiak eta gure beharrak bateratzen ditugu.
 - Harremanak: konfiantza oinarri. Eskola gure etxea da. Etxeko sutondoak ematen digun berotasuna eta goxotasuna aurkitzen dugu eskolan. Familiak ematen duen ziurtasun eta konfiantza bera sentitzen dute haurrek eskolan.
 - Sormena: ametsak eraikiz. Eskola honetan, ikasle sortzaileak hezten ditugu. Ikasle hartzaile izatetik sortzaile izaterako bidean indarra jartzen dugu.
 - Talde-lana: elkarrekin bidea eginez. Klaustroa da eskolaren bihotza, irakasleon topalekua. Han elkarri entzuten, begiratzen eta laguntzen diogu, eta elkar errespetatzen dugu. Klaustroak komunikaziorako bideak irekitzen dizkigu, askotariko ideiak eta pentsamenduak elkar daitezten.
 - Pedagogia: ikaslea abiapuntu. Sakanako herri-eskola txikietan, ikasteko metodo aktiboak bultzatzen ditugu. Ikertzeko, manipulatzeko, elkarlanean aritzeko, espe-



rimentatzeko eta hipotesiak egiteko aukera du haurrak gure eskoletan. Ikasleen plazera eta ongizatea bilatu nahi ditugu.

Balorazioa

Eskolek azken urteetan izandako bilakaeraren lekuko Uharte Arakilgo Oihana Urdangarin gurasoaren eta herri horretako alkate Ainara Ayestaranen hitzak jaso ditugu.

- Oihana Urdangarin: “Elkarlana ona izaten ari da. Eraldaketa handi bat ikusten ari gara gure herriko eskolan. Eskola bizia dago. Euskeraz hitz egiten entzuten da kalean geroz eta gehiago, alaitasunean irabazi du eskolak. Pozik nago ikusita nola lana egiten den, gurasoei parte hartzen uzten zaielako ere bai... Uharteko eskola gainerako eskolekin elkartzen zela ikustea eta ezaugarri amankomunak aurkitzen saiatzen zirela ikusteak asko poztu nau. Errespetatu egiten da gainera bakoitzak egiteko duen nor-tasuna. Baina elkar lagundu egiten dira. Azpimarratzekoa da Uharte-Arakilen kasuan denon inplikazioa: udala, gurasoak, irakasleak”.
- Ainara Ayestaran: “Iazko prozesua, nik uste, inflexio puntu bat izan zela Sakanako Eskola Txikientzat. Alde batetik egin den lanketa ikaragarria izan da, alde batetik prozesua bere baitan, atera den guztia, parte hartu dugun sektore edo pertsona guztiak, ikasle ohiak, irakasleak... Kasu honetan, nik udala ordezkatu nuen, baina egia esan barne lanketa eta barne hausnarketa potente bat suposatu du niretzat. Bai, ze nik uste, eta bereziki herri txikietan, eskola ardatz oso garrantzitsua dela eta zentzu honetan eskolarik ez duen herriak ez du bizirik. Nik pentsatzen dut Uharteko kasuan adibidez, eskola eta udala eta herriaren arteko elkarlana ezinbesteko dela. Zentzu horretan oso eskertuta nago iaz hau guztia martxan jarri zuten eskolekin”.

Dokumentu hau Lakuntzan 2016an aurkeztu genuen etorkizunari keinu eginez, Sakanako bailara euskaratik eta euskaraz, sormenez, kantuz, dantzaz, hitzez, maitasunez,

edertasunez, jakintzaz, kulturaz, balioz, kolorez eta aniztasunez betetzeko konpromisoa hartu genuen.

Berrikuntza proiektuak

Sakanako Eskola txikiak proiektu berritzaile eta erronka ugari dituzte esku artean. Azpimarratzekoak dira:

- Orain dela zenbait urtetik errobotika, bertsolaritza eta emozioak lantzen ari dira Urdiango herri-eskolan.
- Iturmendiko herri-eskolak eraikin berria du eta jolastokia eta ingurua guraso eta herritarrekin elkarlanean landu eta eraikitzen dihardute. Horretaz gain, joan den urtean Altsasuko Lanbide Heziketa ikastetxearekin Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioan landutako proiektua amaitu zuten eta estatu mailan azken lau hoberenen artean sailkatu zen. Bertan, Iturmendiko ikasleek beraien eskolarako bizikleta aparkalekuak diseinatu zituzten eta hortik abiatuta aparkalekuak errealitate bihurtu zuten.
- Olaztiko eskolan Montessoriren pedagogia lantzen ari dira eta horretaz gain ikas komunitate bihurtu dira aurten. Familien partehartze zuzena bideratu dute.
- Arbizun Dumas izeneko proiektuarekin dihardute iaztik, irakasle talde bat hezkuntza paradigma berri batekin ari da hausnarketa eta eraldaketa sakonean.
- Uharte Arakilgo eskolak bi berrikuntza proiektu ditu esku artean: eskolaren jolastokia eta matematika manipulatioa. Horretaz gain, eraldaketa handiak gertatu dira azken urte hauetan eta eskolako guraso elkarteak ere gogo betez ari da eskolarekin eskuz-esku.

Egunerokotasuna

Esaera zahar txinatar batek dio: “Bakarrik azkarrago joango zara; elkarrekin, berriz, urrutirago”. Pentsamendu honek ezin hobeki zehazten du gure bost eskolen filosofia. Lekuan lekuko ezaugarriak baztertu gabe, eta norberaren dohaiak gehituz sare sendo bat osatu dugu. Nolako da gure gaur egungo koordinazioaren funtzionamendua?

- Gure eskolen arteko koordinaziorako, ezinbestekotzat jotzen dugu hilabetean hirutan/lautan egiten dugun bilkura. Bertan, koordinatzailea eta bost eskoletako zuzendariak elkartzen gara amankomunean ditugun lanak, proiektuak, proposamenak eta beharrak lantzeko. Horretaz gain, bilerak oso lagungarriak ditugu ikasturtean zehar suertatzen zaizkigun zalantzak edota kezak elkarri argitzeko.
- Ildo beretik, aurten, kalitate estandarren arabera, *Koordinazio Plana* sortu dugu, non ikasturtearen hasieran adostu genituen helburu estrategikoak eta dagozkien prozedurak txertatu ditugun. Plan hau, gure komunitateko eskola guztien Urteroko Programazio Orokorretan (UPO) aurkitu daitezke.
- Ezin dugu ahantzi, aho batez eta modu koordinatuan egiten dugu urteroko aurrematikulazio kanpaina.
- Gure lanak, proiektuak, jarduerak, deialdiak... plazaratzeko eta familiek guzti horren berri izan dezaten sare sozialak erabiltzen ditugu. Maila berean, eta gure eskualdeko bizilagunei begira, bailarako hedabideekin harreman estua izaten saiatzen gara.

- Aspaldiko partez, gure sareko eskolen ordutegiak batzeko nahia agerikoa zen, hala ere, ez genuen gauzatzeko modu egoki bat aurkitzen. Espero ez genuenean, eta, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak argitaratu duen deialdi bati esker, datorren ikasturterako lau eskolen ordutegiak bateratzea lortu dugu. Aldaketa honek onura ugari ekarriko dizkigulakoan gaude: irakasle espezialistak partekatzeke, jarduerak edo irteerak elkarrekin antolatzeko eta, zer esanik ez, gure arteko koordinaziorako.
- Elkarlanaren premiazko helburutzat jotzen dugu Eskola Txikien ikasleen arteko harremanak bultzatzea. Izan ere, Lehen Hezkuntza bukatu eta gero Institutuan elkarrekin izango dira.

Helburu hau bete dadin, ikasturtean zehar zenbait jarduera antolatzen ditugu. Adibide gisa, txango bat egiten dugunean, gure komunitateko eskola bat baino gehiago batera joatea ohikoena da. Behin baino gehiagotan bi, hiru edo lau eskolek autobusa partekatu dute, modu honetan herri desberdinetako ikasleek zubiak eraikitzeke eta elkar ezagutzeko aukera paregabea izaten dute.

Zentzu berean, ikasturteari bukaera emateko bost ikastetxeen artean festa antolatzen dugu, non gure sareko ikasle guztiek parte hartzen duten. Jaiaren kokapena, urtetik urtera aldatzen dugu herri guztietatik igaro dadin.

Beste aldetik, eta atal honekin bukatzeko, jarduera akademikoak ere antolatzen ditugu. Literatura aitzakitzat hartuta, eskola guztietan maila zehatz bateko ikasleek liburua bat lantzen dute, egilearekin hitzordua adostu ondoren gurera etortzen da eta ikasleak idazlearekin solas egiten dute guztiok irakurri duten libururi buruz.

Etorkizunerako erronkak

Esandakoa oraina da. Ziur gaude, etorkizun hurbilean, ideia, lan eta proiektu gehiago partekatuko ditugula. Baina, topatu dugun guzti hau ez da egun batetik bestera sortu, aurretik lan esanguratsua egon da; hausnarketa eta prozesu ireki bat. Asko dira aurrera begira ditugun erronkak, baina bereizki ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

- Gure eskoletako ikasleei eta familiei kalitatezko zerbitzua bermatzea.
- Ikasleekin zein familiekin harreman estuak eta gertukoak finkatzea.
- Gure eskualderako, tresna estrategiko eta garrantzitsua izaten jarraitzea.
- Sakanako eragile desberdinekin zubi sendoak eraikitzen jarraitzea.

Cantónimo: harriduratik ikaskuntzara

Esther Leza Ongay

Uxueko Ikastetxe Publikoko zuzendaria

cpuje@educacion.navarra.es

Uxueko Plaza Nagusian pertsona baten gorpuzkiak aurkitu zirenean jarduera asko izan dituen proiektu honi hasiera eman zitzaion. Historia, kazetaritza, antzerkia eta beste diziplinetatik lan egiten den proiektu honetan, harridurak eta ikaskuntzak elkar sendotzen dute. Arkeologoen ikerketa eta proiektua aldi berean gertatzea aukera paregabea izan zen ikasleek, lurpetik ateratzeko eta identifikatzeko prozesu osoa bizi zezaten. Prozesuari Cantónimo izena jarri zioten.

Hitz gakoak: ikaskuntza, arkeologia, kuriositatea, deskubrimendua, historia, sorpresa.

Ezer baino lehen, Uxueari eta bertako eskolari buruzko zenbait datu ezagutzea komeni da. Nafarroa ekialdeko zona ertainean dagoen herri txikia da Uxue, Iruñetik 53 km-ra eta Tafallatik 20 km-ra. 178 biztanle ditu erroldatuta eta 108 pertsona bizi dira bertan, egiazki. Eskolak, ikasturte honetan, sei ikasle izan ditu guztira. Horietatik, bost mutilak dira eta bat, neska. Horietako bi Haur Hezkuntzako 2. mailan daude; neska Lehen Hezkuntzako 2. mailan dago eta beste hiru ikasle daude Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailetan, hurrenez hurren.

Urriaren 18an, arkeologian eta historian jantziak ez diren pertsonen harridurarako, lurperatutako pertsona baten zenbait gorpuzki agertu ziren gaur egun Plaza Nagusia dagoen tokian. Arkeologian jantziak ez ziren pertsonen kasuan diot, izan ere, arkeologoen espero zuten gorpuzkiak aurkitzea, elizaren abside erromanikoaren azpian gure aroko lehen mendeetako lurperatzeak aurkitu zituzten bezalaxe.

Izenburuan harridura hitza jaso dugu, aurkikuntza hori egiazko iraultza izan zelako jendearentzako. Lilura eta harridura eragin zituen, baita gehiago jakiteko nahi ikaragarria ere. Ildo horretan, esperimintatu zuten sentipena erabat dator bat Akinoko Tomasek harridurarako eman zuen definizioarekin, alegia, "jakiteko nahiaren" definizioarekin.



Izenburuan agertzen den beste hitz bat ikastea da. Zergatik ikasi? Aurkikuntzak galdera ugari, hipotesi pilo bat, beste aurkikuntza batzuen oroitzapena... eragin zituen adin guztietako pertsonengan. Jazoera hori bat dator Catherine L Ecuyer-ek harridurarako emandako definizioarekin: "ikasteko desioa, gizakiarengan berezkoa dena".

Eskolak nola utziko du, bada, halako gertakari paregabeak eskaintzen duen ikasteko aukera alferrik galtzen? Nola ez dio probetxurik aterako denboran bidaia egiteko aukerari, iragana ezagutzen ahal izateko? Nola ez dio probetxurik aterako komunitate osoak desio bera sentitzen duen egoerari?

Hala, goizeko zortzietan, Carlos Zuza arkeologoarekin hitz egin nuen, galdetzeko ea bideragarria den ikasleekin indusketa bisitatzeta eta bere laguntza izatea, aurkikuntzari buruz zerbait gehiago jakiteko. Baiezko erantzuna eman zigun eta, une horretan, oraindik amaitu ez den bidaia hasi genuen, harridura abiapuntutzat hartuta, guztiok ikastera eta ikasten jarraitzera eraman gaituena.

Bi hitz horiek, harridura eta ikaskuntza, dira izenburuaren oinarritzko osagaiak, Cantónimo hitzarekin bat (izen hori Fatimak, eskolako neska bakarrak, asmatu zuen, lurperatutako gizona izendatzeko).

Proiektuaren eskema

Lan honen nukleo sortzailea Cantónimo izan da, eta horrek 1. eskeman aipatzen diren "proiektu" txikiei eman die bide, orobat, nire ustez oso interesgarriak diren zenbait ikuspegi eta arlo jorratu ahal izan dira, hala nola 2. eskeman adierazten direnak. Jarraian, alderdi garrantzitsuenak jorratuko ditut.



Eskema 1



Eskema 2

Helburuak

- Historia ulertzen lagunduko digun figura edo erreferente bat sortzea, denboran eta espazioan kokatuta.
- Ingurunea eta bertako baliabideak aprobetxatuz ikastea, ikaskuntza horiek testuinguru unibertsalagora transferitu ahal izateko.
- Jakingura sustatzea eta galdera interesgarriak egiteko gaitasuna garatzea.
- Diziplina arteko testuinguruak sortzea, jakintzak erlazionatzeko gaitasuna garatuz.
- Cantónimo bizi izan zen garaia ezagutzea eta orainarekin konparatzea.
- Hondar arkeologiko horiek baloratzea, historia eta ondare kulturala ezagutzeko.
- Informazioa bilatzeko estrategiak garatzea.

Edukiak eta gaitasunak

Nire ustez, edukiak funtsezko eta oinarrizkoak dira, ikasleak trebatzeko, baina ez du edozein edukik balio. Horregatik, kontuan hartu dugun oinarrizko irizpidea honako hau izan da: Cantónimo bizi izan zen garaia hobeto ulertzen laguntzea eta, aldi berean, gure garaia hobeto ulertzea. Hau da, edukiak esanguratsuak izatea.

Jarduerak

Dokumentu honetan ez ditut jarduera guztiak kontatuko, lan honetarako esanguratsu eta garrantzitsuenak izan diren jarduerak baizik. Jarduera horietako batzuk bitxiak izan direla esan daiteke.

Galderen garrantzia: arkeologoari elkarrizketa

Indusketa bisitatu aurretik, elkarrizketa prestatu behar genuen eta erabaki behar genuen arkeologoari zer galdera egingen genizkion.

Edukiak	Gaitasunak
Lan kooperatiboa.	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Ikasten ikastea. Autonomia eta ekimen pertsonala.
Galderak formulatzea. Horiek formulatzeko estrategiak.	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Ikasten ikastea.
Cantónimoren garaiko bizitza ezagutzea.	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna. Gaitasun digitala. Kultura- eta arte-gaitasuna. Matematikako gaitasuna.
Artikuluak idaztea, Cantónimorekin erlazionatutako ezagutzak ezagutarazteko.	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Gaitasun digitala. Kultura- eta arte-gaitasuna.
Beste pertsonaia batzuen azalean jartzea eta jendaurrean jardutea.	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Kultura- eta arte-gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala.
Informazioa bilatzea.	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Gaitasun digitala. Norberaren autonomia eta ekimena

Nahiz eta ezin dudan esan nire jarduera galderaren pedagogian oinarritzen denik, esan dezaket galdera onak egitea eta horiek egiten ikastea biziki eduki garrantzitsua dela nire eguneroko lanean. Galderak jakingura adierazten du, eta jakiteko desioak irekitzen dio bidea ikerketari, aurkikuntzari eta ikaskuntzari.

Orotariko estrategiak planteatzen ditut ikasleak galdera interesgarriak eta, ahal dela, irekiak gai izan daitezen. Baina, kasu honetan, Cantónimoren aurkikuntzak eragin zuen harridura hain izan zen handia, ezen lehen ideia-uritean oso erraz sortu baitziren galderak. Gelan gertatu zena K. Jaspers-ek baieztatzen zuenarekin bat etorri zen, alegia, “harriduratik sortzen dira galderak eta ezagutzak”.

Iruditu zitzaidan ikasleek jakin behar zutela elizaren abside erromanikoaren barruan zenbait hilobi aurkitu zituztela, garai berantekoak, ekialde-mendebalde norabidean orientatuta. Azaldu nien orientazioa indusketetan kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsua zela. Hilobiak simulatu genituen eraikuntza-oholekin, orientatu egin genituen iparrorratza erabiliz, eta pilota bat erabili genuen eguzkiaren mugimendua adierazteko.

Jarduera horrek hilobiaren orientazioari buruzko galderak egitera eraman zituen, baita beste galdera sortzaile eta originalago batzuk ere. Horien artean, honako hau nabarmenduko nuke: “*Hilobiko pertsona, elizako apaiza izan al liteke?*”

Galderak aukeratu, sailkatu eta ikasleen artean banatu ostean, plazara joan ginen, argazki-makina, koadernoak, arkatza, audio-grabagailua, kalibrea eta metroa hartuta. Han, Carlos Zuza arkeologoak galdera guztiei erantzun zien eta ikasleek, bere laguntzarekin, hilobia neurtu zuten.

Hurrengo egunean indusketa bisitatu genuen, lanen eboluzioa behatzeko. Ia eskeleto guztia lurpetik aterata zegoen eta posible zen egindako zenbait galderari ziurtasunez erantzutea. Ikasleek galdera gehiago egin zituzten eta arkeologoak informazio gehiago eskaini zuen. Hain izan zen handia ikasleen interesa ezen, eskola ondoren ere, indusketara

joan baitziren, garezurra eta gainerako hezurak, ondoren aztertzeke, nola jasotzen zituzten ikustera.

Beharra? Interesa?

Indusketara lehen bisita egin ostean, ikasleei honako galdera hau planteatu nien: Nola galdetuko diozue Cantónimoren gorputz-atalei buruz, hezurak ez badituzue ezagutzen? Nola ulertuko dituzue azalpena, hezur bat izendatzen duenean ez badakizue zein den?

Berehala ikusi zuten giza eskeletoa ikasteko beharra eta zitzu bizian ikasi eta kokatu zituzten hezurak. Erabilitako baliabideak material inprimatuak eta Interneteko webgune interaktiboak izan ziren.

Gainera, eskeletoko hortzak beren hortzekin konparatu zituzten. Hortzetan lertzoa izateko litezkeen kausak aztertu zituzten eta hortzeria osoak eraiki zituzten, Aho eta Hartz Osasun Departamentuak bidalitako materialak erabiliz.

Prensa idatzia eskolan: ulermena eta eztabaida

Gai honi buruz prentsan argitaratutako artikulu guztiak interes handiz jarraitu dira eskolan. Lehen artikuluak gertakaria iragartzen zuten, ez ziren eduki teknikoetan sartzen, ikasleek interesarekin irakurtzen zituzten eta ez zen desadostasunik sortu ezagutzen zutenaren eta argitaratutakoaren artean.

Baina, urriaren 29an, Diario de Navarra egunkariak honako artikulu hau argitaratu zuen: "*Un hallazgo que suma historia en Ujué*", baieztatzen zuena Cantónimo garai berantean bizi izan zela, IV. eta V. mendeen artean. Informazio hori ez zetorren bat Carlosek indusketan emandakoarekin, hark esan baitzigun hilobia Erdi Arokoa izan zitekeela.

Bat ez-etortze horren aurrean, neska-mutilek esan zuten egunkaria nahastu egin zela baina, irudiak aztertzean, ikasle batek esan zuen: "Nik uste dut egunkaria zuzen dagoela, horko andre horrek (irudian agertzen den M^a Paz De Miguel aipatuz) eta Carlosek elkarrekin lan egiten dute". Guztiak onartu zuten bere argudioa eta, ondoren, Carlosek esan zigun gu joan ondoren belarri-ziri bat aurkitu zutela, eta horrek hildakoa garai zaharrago batean kokatzen zutela. Eskolara etorriko zela esan zigun, bere aurkikuntza jakinaraztera, eta halaxe egin zuten.

Cantónimo: iragana ezagutzeko erreferentea

Cantónimo aukera bikaina zen, ikasle eta irakasleei historia ulertzen eta historian interesa izaten laguntzeko erreferentea izaki. Irakasle ororen ametsa zen, zuzeneko eta zeharkako ikerketa irakaskuntzarekin lotzen zituelako.

Cantónimo denbora-lerroan kokatzea funtsezkoa iruditu zitzaidan, ikasleek denboran kokatzen ahal izateko, eta ondoz ondoko eta aldi bereko nozioak eraikitzeke. Hala, lerroa eraiki genuen kartoi mehearekin, eta korridorean jarri genuen. Oso luzea zenez, ikasleak historiako aroen iraupenaz jabetu ziren, proportzio zuzena baitago lerroaren luzerari eta aroaren iraupenaren artean.

Denbora-lerroa eraikitzean, zenbait arazo sortu ziren, baina garrantzitsuena espazioa zati berdinetan banatzearena izan zen. Horretarako, sinpleagoa zen antzeko egoera baten eredu eskaini nien eta, ondoren, ikasleek estrategia bera erabili zuten arazoa ebazteke.

Denbora-lerroan kokatuta, bere bizitza ezagutzeko beharra planteatzen da. Arkeologiak informazioaren zati bat eskaintzen digu, baina beste diziplina batzuk beharrezkoak dira (geografia, matematika, medikuntza, gastronomia...) eta proiektzio unibertetsala eman behar zaio, ezinezkoa baita, nire ustez, pertsona baten bizitza ezagutzea bere garaiko ingurune historiko eta kulturala kontuan hartu gabe. Interesgarriena ez da bere gorpuzkiak aurkitu ziren herrian kokatzea, baizik eta koordenatu horiez haratago joatea eta mundura proiektatzea.

Laster erabaki genuen izena jarri beharko geniokeela, komunikazioa errazteko. Antzinako izenez galde egin zidaten, baina ez genekienez herrikoa zen edo Europako beste tokiren batekoa, izena asmatzea erabaki genuen. Taldeko neska bakarrak Cantónimo Robañain izena proposatu zuen. Guztioi ondo iruditu zitzaigun eta halaxe izendatu genuen.

Nola ezagutu bere bizitza? Zer gako erabil ditzakete ikasleek, Cantónimo ezagutzeko nahia aditzera emateko? Zer galdera egin ditzakete, beren jakingura asetzeko? Galdera interesgarriak egitea zaila da, baina gako bat, eduki zehatz bat, irudi bat... izanez gero, errazagoa da ideiak izatea. Eta, une hartan, ikasleen erreferenteak honako hauek ziren:

- Cantónimorekin izandako esperientzia eta une horretara arte bereganatutako ezagutzak.
- Beren bizitza-esperientzia. Bizipenak eta kezakak.
- Beste proiektu batzuk eta gelan jakingura sustatzeko egindako lana. Kasu honetan, lehenago baratzako landareei eta horien beharrei buruz egindako lana aipatzen dut.
- Haien herria.

Egindako galderak hiru bloketan sailkatu genituen:

1 Cantónimoren bizitza:

- "Noiz da bere urtebetetzea?" Zenbat jende hurbildu zen bere urtebetetzea? Zenbat hortz ditu? (4 urte)
- "Pertsona zintzoa zen?" Lana zuen? Aberatsa edo pobrea zen?" (8 urte)
- Heriotzaren kausa. Lurperatzea.

2 Uxueren historia:

- "Zein da Uxueren historia?" (9 urte)

3 Bere garaira orokortu daitezkeen bere bizitzako alderdiak. Horien artean, honako hauek nabarmentzen ditut:

- Elikadura: Janariak eta edariak.
- Haur-jokoak.
- Hizkuntza.
- Irakurketa eta idazketa.
- Eskola.
- Orientazioa: Iparrorratza eta mapak.
- Denbora-neurria (egutegia, erlojua).
- Garraioa.
- Dirua.
- Jainkoak.



Galderak formulatutakoan, informazioa bilatzeko prozesua hasi genuen, eta hori bat etorri zen Carlosek eskolara egindako bisitarekin. Galderetako batzuk erantzun zituen eta beste asko dokumentu idatzien, kontsulta-liburuen, Interneten eta ikus-entzunezko materialen bidez ikertu ziren.

Ikerketa eta aurkikuntza guztiak ezinbestekoak izan ziren antzezlana eta blog-ean argitaratutako aurkikuntzari buruzko artikulua idazteko. Azken hori, honako helbide honetan irakur daiteke:

<http://cpujue.educacion.navarra.es/blog/2017/02/la-historia-de-cantonimo/>

Nabarmentzekoa da informazio-bilaketak antzezlana eszenifikatzeko jakingura asetzeko beharrari erantzun ziola. Hiztegiaren zati batekin, Pasapalabra programakoaren antzeko gurpila sortu genuen, honako helbide honetan ikus daitekeena:

<http://cpujue.educacion.navarra.es/blog/2017/04/rosco-cazadores-de-estrellas/>

Antzerkia, ikaskuntza esanguratsurako tresna

Urtero, abenduan, ikasleek antzezlana bat antzezten dute herriko jendearen aurrean. Gabon hauetan, antzezlana Cantónimoren istorioan zentratu zen eta honako izenburu hau izan zuen: "Uxue, Cantónimoren garaian".

Hasiera batean beste gai batzuk genituen buruan, baina mutiletako bati (taldeko zaharrenari) bururatu zitzaion Cantónimoren bizitza antzezteko ideia eta Erromako Kolisiora bidaiatzea, gladiadoreen arteko borrokaz gozatzera. Proposamena asko gustatu zitzairen denei eta anfiteatro horretan gladiadore-konbateak egin zirenez VI. mendera arte, hobezin zetorkigun ideia. Gaia erabakita zegoen. Bizkor aukeratu zuten bakoitzari zer pertsonaia gustatzen zitzairen eta antzezlaren testu-ekoizpenaren prozesuari ekin genion, antzezteko prozesuarekin batera.

Nahiz eta ez genekien zehazki Cantónimo zer mendetakoa zen, IV. mendean kokatzea erabaki genuen, horrela gladiadoreen borroka antzeztu baikenezakeen eta hargintza-es-



zena bat ere egin baikenezakeen; azken horretan, bi pertsonak Coeli Thesphorok eta Festa eta Telesinusek Lakubegi jainko baskoiari eta Jupiter jainko erromatarrari eskaini zizkioten aldare-harriak zizelkatzen zituzten. Aldare-harri horiek, gaur egun Nafarroako Museoan daudenak, IV. mendekoak dira eta Uxeko Mendatean aurkitu ziren, "La Blanca" ermitatik hurbil.

Une horretatik aurrera, ikerketa- eta azterketa-prozesuarekin batera, testu-ekoizpenean eta antzezteko beharrezko materialen (argizarizko oholtxoak, kartoi mehezko eskeletoa, agertokirako zutabeak, jantziak eta abar) prestakuntzan aritu ginen. Eta lanak interes bizia jaso zuen, atazak ageriko funtzionaltasuna baitzuen. Antzerkia ikaskuntza-prozesuaren funtsezko oinarri bihurtu zuten. Ez dago egoera bat bizitzea bezalakorik, egoera hori integratzeko eta beharri erantzunez informazioa bilatzeko.

Argumentua pixkanaka prestatu zen eta honako hau izan zen: Cantónimoren hilobia aurkitu eta une hori antzeztu ostean, haurrek iraganera bidaiatzen dute denbora-makina batean eta, ezkutatuta, garai hartako bizitza behatzen dute. Antzeztutako eguneroko eszenak haiek izan ziren: medikuari bisita (Cantónimok nekrosia zuen), eskola eta hargintza-tailerra. Ondoren, Kolisiorako bidaia eta gladiadoreen borroka. Protagonista herrira itzultzen da eta, gutxira, hil egiten da. Azkenik, haurren abentura amaitu egiten da eta orainera itzultzen dira.

Antzezlana gaztelaniaz egin zen, euskarazko zenbait adierazpenekin; izan ere, Euskaltzaindiaren arabera, garai hartan herria existitzen bazen, euskaraz eta latinez (Erromatarren Inperioko hizkuntza izateagatik) hitz eginen zen bertan. Beharbada Cantónimo Europako beste nonbaitetik etorritako migratzailea zen, baina ez dakigunez, ez genuen planteatu beste hizkuntzarik aipatzerik.

Antzeulanak aurkikuntza arkeologikoaren garrantzia azpimarratu zuen hezkuntza-komunitate guztiaren aurrean, eta hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzatza izan zuen, herriko jendearena barne. Ama bat aktore lanetan ere ibili zen, azken eszenan.

Antzezlana honako helbide honetan ikus daiteke:

<http://cpuju.eeducacion.navarra.es/blog/2017/01/ujue-en-tiempos-de-cantonimo/comment-page-1/#comment-109830>

Testu-ekoizpenaren prozesua: egia bilatzea

Atazaren helburuetako bat aurkikuntzari buruzko testu bat idaztea eta eskolako blogean argitaratzea zen.

Behin eskema prestatutakoan, idazten hasi ginen. Lehendabizi, hilobia nola aurkitu zuten azaldu genuen eta adierazi genuen desadostasun garrantzitsuak egon zirela. Horren aurrean, ikasleei azaldu nien oso garrantzitsua zela egia bilatzea. Horretarako, grabagailua hartuta, tartean zeuden langile guztiak elkarrizketatu genituen eta horrela jakin genuen egiazki zer gertatu zen.

Ikertutako historia, irakatsitako historia

Plazan aurkitu zen hilobia oraindik ikerketa-prozesuan dago. Une honetan Karbono 14aren emaitzen zain daude, data xehetasunez zehazteko, eta osteopatoagoak hezurrek zer konstatzen duten azalduko digu.

Zorte handia izan dugu, Cantónimo adituekin batera aztertzen ahal izan baitugu. Ikasleak horretaz jabetu dira eta, planteamendu horrekin, hautsi egin dugu sarritan testu-liburuetan planteatzen den dogmatismoa. Zalantzarako aukerarik ez dago, nahiz eta presente egon behar lukeen, ez baita egia osoa ezagutzen.

Lan-prozesu honetan, zenbait galdera geratu dira erantzun gabe, besteak beste: "Zein da Uxueren historia?", "Nolakoa zen Uxue garai hartan?". Momentuz alde batera utzi ditugun gaiak dira, baina edozein unetan eta espezifikoki berrartuko ditugunak, Cantónimori buruzko ikerketek pertsonaiari eta bizi izan zen garaiari buruzko informazio gehiago eskaintzen dutenean.

Zimenduak ezarri ditugu eta harridura sortu dugu. Eta pertsonaia erreferente bat denez, etengabe sortzen dira iraganeko bizimoduak oraingo bizimoduekin erlazionatzen dituzten galderak. Adibideak: "Komunak erabiltzen zituen?", "Ezagutzen al zituen imanak?".

Cantónimo inauterietan berragertzen da

Urtero ospatzen dugu Inauterietako asteartea eta urtero aukeratzen dugu gai desberdina.

Ikasleentzat hain izan zen esanguratsua Cantónimori buruz egindako lana, ezen gai hori aukeratu nahi izan baitzuten. Beraz, erromatar mitologian zentratu ginen eta gaia egokia iruditu zitzairen, herriko jendeak ez baitzekien ezer jainko erromatarrei buruz. Taldeko zaharrenak esan zuten: "Uxueko jendeak ez daki ezer jainko erromatarrei buruz, eta horrela ikasi eginen dute". Baieztapen horri oso garrantzitsua deritzot, jakintza transmititzeko nahia ematen baitu aditzera eta, nire ustez, eskolak oso kontuan hartu beharko luke eduki hori.

Hala, haur bakoitzak jaingo bat irudikatu nahi izan zuen. Jupiterrek familia osoa elkartu zuen festarako. Jaingo bakoitza publiko jendetsuaren aurrean aurkeztu zen eta Musika irakasleak (Jesusak) prestatutako dantza erromatarra dantzatu zuten.

Nafarroako museorako bisita

Otsailaren 23an Nafarroako Museoa bisitatu genuen, lehen aipatutako bi aldare-harriak eta Erromatarren garaiko bestelako hondarrak ikusteko.

Proiektuak aurrera jarraitzen du: eguzki-erlojua


Proiektu hau garapen-fasean dago une honetan eta Uxueko Monumentu Multzoko eguzki-erlojuan gnomon bat jartzeko xedea du. Proiektua gauzatzeko eta ulertzeko, Se-negalgo eskola baten, Nafarroako Gobernuaren Ondare Historikoaren Zerbitzuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren lankidetzaz dugu.

Erabilitako metodologia eta baliabideak

Proiektu honetan eta eskolan garatzen diren gainerako proiektuetan aplikatutako metodologia kontuan hartzen ditu ikaskuntza- / irakaskuntza-prozesuko funtsezko zenbait alderdi, jarduketa ororen oinarrian daudenak.

Ezinbestekoa iruditzen zaidan alderdi bakarra aipatuko dut: Jakingura piztea eta sustatzea.

Eransten den eskeman azaltzen da.



Baliabideak

Proiektu honetako funtsezko baliabidea Cantónimo izan da eta honako hauek ezinbestekoak izan dira, proiektua garatzeko:

- Pertsonalak:
 - Arkeologoak
 - Osteopatologoa
 - Bi eraikuntza-enpresetako langileak
 - Familietako gurasoak
 - Herriko jende ugari
 - Lina Leza
 - Ikastegiko irakasle guztiak
 - Begoña Ibañez
- Materialak:
 - Teknologikoak:
 - Inprimagailua - eskanerra
 - Ordenagailua, Interneteko sarbidearekin eta zenbait programarekin: Audacity, Pinnacle 14, Word, posta elektronikoa
 - Argazki-kamera
 - Bideo-kamera
 - Audio-grabagailua
 - Arbel digitala (PDI)
 - Audio-efektu bereziak

Adierazleak	Bai	Ez
Ikertzeria animatzen da		
Jakingura handiagoa du eta galdera gehiago egiten ditu		
Bere galderen kalitateak hobera egin du		
Taldean hobeto lan egiten du		
Teknologia berriak erabiltzen ditu eta hobeto aplikatzen ditu		
Iragana eta oraina hobeto ezagutzen ditu		
Ezagutzak zabaltea baloratzen du eta, hain zuzen, egiten du		
Bere ingurunea hobeto ezagutzen du		
Iragana orainarekin erlazionatzen du		
Tokiko globalarekin erlazionatzen du		
Beste kultura batzuk ezagutzeko interesa agertzen du		
Egia baloratzen du eta egia bilatzeaz arduratzen da		
Cantónimo erreferente bat da berarentzako		
Hondar arkeologikoak interes kulturalerako ondareztat baloratzen ditu		
Ezagutzak beste testuinguru edo egoera batzuetara transferitzeko gai da		

Ez-teknologikoak:

- Mapa
- Kotsultako liburuak
- Material birziklagarriak
- Prentsa (Diario de Navarra, Diario de Noticias, Revista Merindad)
- Oihalak
- Antzerki-osagarriak
- Kartoizko kutxak
- Papera
- Pinturak

Ebaluazioa

Ikasleak behar bezala ebaluatzeko, ezinbestekoa da gelan gertatzen den guztia behatzea eta erregistratzea: haur bakoitzaren ikaskuntza-prozesuaren segimendua egitea, lorpenak egiaztatzeko eta zailtasunetan laguntzeko.

Gainera, proiektuaren funtsezko gaiak aipatzen dituzten ebaluazio-adierazleak baloratu behar dira.

Landa eremuko eskola Nafarroan

Ainara Ayestaran, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa. Josu Etxanobe, Landa eremuko eskolen koordinatzailea. Aitor Etxarte, Nafarroako Eskola Kontseilua. Jesús Castiella, Hezkuntza Departamentua. Josune Isturiz, Eskubide Sozialetako lehendakariordetza. Miren Oñate, Hezkuntza Departamentua. Nora Salbotx, irakaslea eta formatzailea.

Sarrera

Landa eskolari buruz hitz egitea, nafar askorentzat, iraganari, haurtzaroari, herriari eta oroitzapenei buruz hitz egitea da; lurrari, landari, eta eskolan nahiz bizitzan izandako lehen irakaspenei buruz hitz egitea. Izan ere, gure lurraldean, zaila izanen genuke landarik ezean gaur egungo hiria ulertzea, ibarrik ezean auzoa ulertzea, edo baserri sakabanaturik ezean kaleak ulertzea. Gure jatorrian, gure erroetan, pixka bat sakondurik ere, landaren erreferentziak aurkituko genituzke denboran hurbilago nahiz urrunago; jakinaren gainean egon ala ez, gaur egungo munduan izateko eta egoteko dugun modua eratzen edo txutzen dute.

Gainditu ditzagun, hala ere, posta txartel bukolikoaren tentazioa edo margolaritza kostunbristak dakarkigun oroitzapena, eta hausnar dezagun Nafarroako landa eskolari buruz, landako eta mendiko biztanleengandik hurbilen dagoen erakunde gisa, irakaskuntzaren, laguntzaren, kulturaren eta jakintzaren erreferentzia gisa. Izan ere, landa eskola erreferentziako eskola da eta izan da gure lurraldeko milaka haurrentzat eta haien senideentzat, landa eremuan bizi diren guztien elkargune eta harremanetarako eremu izan da eta, hortaz, aniztasun, inklusio eta parte-hartze gune. Desberdintasuna barne hartzen duen gune bat, heterogeneotasunean oinarriturik eraikitako gune bat, ikasgelen antolaeran bertan errotua, eta hartatik abiatzen da, orobat, egiten dituen proposamen pedagogikoetan, hartzen dituen ikuspegi metodologikoetan, eta eskola, hezkuntza eta, nola ez ba, herria taxutzeko dituen moduetan.

Landa eskola tradizionala

Nafarroan, lurralde nabarmenki landatar guztietan bezala, hainbat aro oso desberdin igaro ditu landa eskolak. Hiru une edo iragan historiko bereizi ikus ditzakegu. Hein han-

diagoan nahiz txikiagoan, eragina izan dute landa eskolaren konfigurazioan, gaur egun ezagutzen dugun moduan. Lehen uneari tradiziokoa esaten diogu. Hau da, gure komunitateko herrietan landa eskolak eta auzokoak ugaritu bitartean iragandako denbora, 60ko eta 70eko hamarkadetara arte. Lehen Hizkien eskola dugu hizpide, baita, ondoren, Lehen Hezkuntzakoa ere, batik bat XX. mende hasieran hedatua. Gaingiroki, sexuen arabera banatutako eskola bat zen (ez beti, eta hartzen zituen ikasle kopuruaren arabera), eta bertan esku hartzen zuten administrazioek apenas hartu zuten kontuan zer testuinguru soziolinguistiko, sozioekonomiko eta kulturean kokatzen zen¹. Nagusiki nekazari eta abeltzain familietatik zetozen ikasleak hartzen zituen eskola bati buruz ari gara; haien ekonomiak autohornikuntza eta biziraupen hutsa zituen oinarri. Hein txikiagoan, gaur egun jadanik desagertu diren hainbat lanbidetako langileen ondorengoak ere hartzen zituen: errotazainak, eztaingulak, bidezainak, mugazainak, etab.

Horregatik, esan daiteke lehenago landa eskolen ezaugarrietako bat zela, besteak beste, lotura mina eta hertsia zuela, herritar gehienek bezala, nekazaritza, abeltzaintza nahiz mendia ardatz zuten lanbideetako jarduerekin. Herritar horien seme-alabak herriko eskolara joaten ziren, eta ez zitzaion hartaz kanpo beste hautabiderik bururatzen, salbu eta elizbarrutiko apaiztegia ikasketekin jarraitu nahi zuten mutilentzat, edo hirietako neskaentzat. Bizitzan zuten itxaropena, belaunaldiz belaunaldi, jaiotzearen ingurune berean bizitzen jarraitzea zen, aita-amen eta aitona-amonen lanbide berean jardunez.

Testuinguru hartan, nahiko erraza zen landa eskola definitzea, gaur egun hain globalizatuak ez dauden gizarteetan ere gerta bezala: maila anitzeko eskola bat, txikia, ikasle guztientzat irakasle bera duena, oinarritzko hezkuntza osatzeko xedea duena, eta hura buruan zerabilen ororentzat erraz irudikatzen modukoa.

Gainera, garai haietan hasi ziren sortzen, hirietan eta hiri inguruneetan, mailen arabera mailakatutako eskolak, gaur egun ezagutzen ditugun gisan. Hala, bada, urte haietan taxutu zen gaur egun agian gure landa eskolaren bestelakotasun nagusia dena: hain zuzen, ikasleen adinaren araberrako banaketa orokortu zen. Landa eskola ez zen sartu erreforma hartan, ordea. Beraz, une hartatik aurrera, batetik, ikasleak adin kronologikoa kontuan hartuz banatzen dituen eskola mailakatua dugu; bestetik, ordura arte normaldua zen maila anitzeko eskola ereduak dugu, aro historiko hartatik aurrera landa eremura soilik mugatua, eta demografiarekin lotutako kontuek baldintzapatua. Aldaketaren ondorioz, eskola "osatugabea" izatera igaro zen landa eskola, ordura arte hezkuntza sistema osoan bezala jarraitzeagatik besterik ez; hau da, ikasleak jaiotze urtearen arabera banatu edo antolatu gabe.

Tradizioaren garaiko eskolak irakurtzen eta idazten irakasteko eginkizuna betetzen zuen batik bat, analfabetismo tasa oso altuak zituen landa eremu batean, non, hainbatetan, klimaren, baserriko lanen, uzta garaien eta are gripearen gisako epidemien mende baitzegoen eskolara joateko aukera.

Ohar gaitzake ezen, gaur egun ere, garai haietako eraikin ugari mantentzen direla oraindik, eta gutxitan ez, hasieran zuten eginkizun berbera betetzen jarraitzen dutela,

.....
1 II. Errepublikaren urteak salbuespen izan ziren, aldatze eta berritze aro labur bat. Aldaketa horiek gogor zapuztu zituzten ondorengo gertakizunek ordea (Gerra zibilak eta frankismoak).

oraindik ere berean hartuz irakurketa eta idazketa, kristau dotrina, jokabide ona, aritmetika eta, nesken kasuan, "beren sexuarentzat beharrezkoak diren lanak" bertan ikasi zituztenen ondorengoak.

Desarrollismoa

Hala, aro berri batera iragaten gara, desarrollismora, landatik eta menditik herri industrializatueterako eta hirietarako migrazio handiaren garaira. Denboraldi hark berekin ekarri zuen paradigma aldatzea, landa eremuak bere buruaren gainean zuen ikuspegiari eta haren gaineko irudikapen kolektiboari dagokienez. Orduetik aurrera, atzerapen, gainbehera eta pobrezia sinonimotzat hartu zen (egia da landa eremuaren garai hartako egoerak ez zuela inola ere lagundu hari buruzko bestelako pertzepzioa izaten); bazirudien ez zegoela industria hasiberrian lan egitea baino ezer hobirik, baita lanaldiak eta lan baldintzak zenbaitetan penagarriak izanik ere. Migrazio eta arrotze, uzte eta ukatze testuinguru sozial hari hezkuntza politika zentralizatzaile bat gaineratu zitzaion, eskualdeko eskola kontzentrazio handiak eraikitzearekin tematuta zegoena, garapenaren eta aurrerabidearen ikusmolde orokortuari jarraikiz argi eta garbi, iragana, iraungitakoa, irudikatzen zuenaren aldean. Horiek horrela, landa eskola ugari itxi ziren, mespretxaturik, eskola kaskarragotzat harturik. Oraindik iraun zutenetan, maisu-maistrek, oro har, zeregin benetan kontraesankor edo paradoxikoa bete zuten: ardura handiz lanean, baina, hainbatetan, beren ikasleak "etorkizun handiko pertsonak" bihurtzeko xedez; hau da, ingurune hurbiletik atera, eta inoiz ere itzuli behar ez izateko behar beste baliabide kultural eta gaitasun dituzten pertsonak. "Haranzko" eskola bat zen, ideologia hegemoniko desarrollistaren mendean.

Arestian esandako guztia gorabehera, aro hartako azken urteetan eta prestigio, inbertsio, prestakuntza edo legedia propiorik ezeko testuinguru batean, zorionez, lehenbiziko gogoeta kolektiboak agertu ziren Pedagogia Berritzeko Mugimendu sorberrien aldetik. Landako irakasle gazteen multzo nabarmen eta oso garrantzitsu bat haren inguruan antolatu zen. Hortxe hasi ziren eskolarteko sareak koordinatzeko eta sortzeko lehen proposamenak, gure herri eskola txikietan hautemandako zenbait gabezia betetzeko. Nafarroaren kasuan, mugakide ditugun beste erkidego batzuetan gertatutakoaz bestela, zonalde bereko eskolen arteko elkarrekin ez zuten eman herriarteko zentrorik² edo herriaz haraindiko erakunde gisa egituraturako eskola zonalderik. Nolanahi ere, lehen saio haietako asko hezkuntza komunitatea –irakasleak nahiz familiak– koordinatzeko gune gisa zehaztu ziren. Haietan moldatu ziren, arian-arian, metodologiari buruzko gogoetak; lantegi, topaketa eta jardunaldien antolaketa; irtenaldi, kanpaldi eta txangoen prestaketa; eskola kudeatzeko eta eginkizun burokratikoetarako elkarlaguntza, etab. Hortxe datza Nafarroako landa eskolaren gaur egungo egituraketa eta gauzak egiteko modua.

.....
2 Salbuespen da Urdazubi-Zugarramurdiko HIE zentroa; bi herriotako eskolek bat egin zuten, eta zuzendaritza talde bakarra eta bi ikastetxe, udalerrri bakoitzean bat, dituen Herri Ikastetxe Elkartu izatera igaro ziren.

Landa eskola gaur egun

Egun, landa eskola kopuru nabarmena aurki dezakegu Nafarroan; izan ere, 3.000 haur baino gehiago hartzen dituzte beren ikasgeletan. Gure landa eskola gai izan da, ahalegin homogeneizatzaileak, ikusezintasuna, baliabiderik eza, azpiegitura hainbatetan zaharkituak eta administrazio eskudunen nolabaiteko utzikeria gorabehera, ezinbesteko erresistentzia (eta are etsipen!) jarrera hura gainditzeko, eta proiektu, etorkizun eta berritze metodologikoko parametroetan kokatzeko bere burua, baita askotan aitzindari izandako proposamenetan ere. Susperraldi horri esker, baita 2007ko ikasturtean koordinatzaileek zonalde desberdinetarako egindako aldarrikapen zaharra zertu zelako ere eta, zalantzarik gabe, batez ere irakasleen konpromisoari esker, gaur egun Nafarroako hezkuntza sistemari ekarpen handia egiten dion landa eskola bizi eta ahaldundua da.

Nafarroako landa eskolak ongi jakin du nola erantzun gaur egungo gizartearen hezkuntza eskaera berriei, eta nola berrasmatu pedagogiaren arloa, orain bai "haranzkoa eta honanzkoa" den eskola sortzeko. Gertuko ingurunera irekita dagoen eskola, bere kokalekuko ahalmek hezigarri handia balioesten duena, baina literaturak eta jendarteratze liburuek, museoek, zinemak, arteek eta IKTek eskaintzen diguten bidaia zirrargarriari uko egin gabe. «Begiratu ongi zure herrixka eta unibertsala izanen zara» zioen Lev Tolstoi-ek, gure landa eremu txikiari arretaz eta gogoetatsu begiratzeak pentsamolde unibertsalaren ezagutza sakonera eraman gintuzkeelako ustean. Abiaburu gutxik jasotzen dute hobeki XXI. mendeko Nafarroako landa eskolaren eginkizuna.

Landatasuna eta eskola Nafarroan

Hezkuntza aztertzeko oinarritzko faktoreetako bat demografikoa da. Komeni da Nafarroako landatasunarekin lotutako ezaugarrietako batzuk testuinguru orokorrangoan ezagutzea, argibide gisa.

Biztanleria, sexuaren eta adinaren arabera

Espanian (ikus 1. eranskina), biztanleen %19,6k 20 urte baino gutxiago ditu; %34,3k 20-44 urte ditu; %27,5ek 45-64 urte, eta %18,6k 65 urte edo gehiago. Beraz, Europako herrialdeetan bezala, biztanleria zahartua dago oro har.


Bestalde, hazkunde begetatiboak (jaiotzak ken heriotzak), kanpoko migrazioaren saldoak (atzerrikoa) eta barneko migrazioaren saldoak (autonomia-erkidegoen artekoa) duten eraginaren ondorioz, biztanleriak gora egin zuen Andaluzian, Balear Uharteetan, Kanarrietan, Murtzian eta Nafarroan, bai eta Ceutan eta Melillan ere. Nafarroako biztanleria %0,03 hazi zen 2015ean, aurreko urtearekin alderatuta. Eta negatiboa izan arren kanpoko migrazioaren saldoa (emigrazioa handiagoa da immigrazioa baino), positiboak dira saldo begetatiboa eta barneko migrazioaren saldoa.

Biztanleria adin tartearen eta sexuaren arabera banatzean, oso antzekoak dira Nafarroako eta Espainiako datuak (ikus 2. eranskina). Adinari dagokionez, biztanleriaren %20,6k 20 urte baino gutxiago ditu; %32,7k 20-44 urte; %27,6k 45-64 urte eta %19,1ek 65 urte edo gehiago.

Agerikoa da biztanle gazteen kopurua nabarmen jaitsi dela, 20-60 urteko erdiko adin taldeetan dauden biztanleekin alderatuta. Horrek ondorio ekonomiko eta sozial handiak ditu, hala hezkuntza plangintzari dagokionez nola erabaki sozial guztien alorrean; izan ere, biztanleriaren zahartze orokorraren ondorioz, datozen urteotan 65 urtetik gorako pertsonen munduko tasa altuenetakoa izanen du Nafarroak.

Aurkeztutako datuek erakusten digutenez, Espainian eta Nafarroan antzekoak dira biztanleriaren dinamikak; hori horrela, gizarterik gazteenetako piramideekin zerikusi txikia dute bi lurralde eremu horietako grafikoek, aurrez adierazi den moduan.

1. grafikoa: biztanleria, adin taldearen eta sexuaren arabera. Espainia eta Nafarroa. 2016ko urtarrilaren 1a



Garrantzitsua da, halaber, adin taldeek azken urteetan izan duten bilakaera aztertzea. Horrenbestez, jaiotza kopuruaren bilakaerak (ikus 3. eranskina) eta, horren ondorioz, 0-4/5-9/10-14/15-19 urteko taldeen tamainak egonkortzeko edo murrizteko joera dute.

Horregatik, autonomia-erkidegoen multzorako egindako aurreikuspenei erreparatuz gero, ikusiko dugu Nafarroako biztanleria ez dela kopuruz handituko, eta erkidego gehienetan biztanleriak behera egingen duela (Ikusi 4. eranskina).

Hiri eta landa eremuetako biztanleria

Biztanleria hirietan edo landa eremuetan kokatua dagoen, oso ezberdinak izaten dira arazoak, zerbitzuen egiturak eta kostuak.


Espainian erroldatutako pertsonen %39,4 100.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi dira. Autonomia-erkidegoaren arabera, Madrilen (%72,0) eta Aragoian (%50,6) daude ehunekorik altuenak.

Txikienak, ordea, Gaztela-Mantxakoak (%8,4) eta Extremadurakoak (%13,8) dira. Bestalde, 10.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi da biztanleriaren %20,8. Ehunekorik altuenak Extremadurari (%51,2) eta Nafarroari (%45,4) dagozkio, eta txikienak, berriaz, Murtzian (%4,5) eta Madrilen (%5,8) jaso ditugu.

Landatasun indizea

Landatasun indizea 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa da. Espainia osorik hartuz gero, biztanleria osoaren %6 bizi da landa eremuan. Nabarmentzekoak dira, beren indize altua dela eta, Gaztela eta Leon (%25,9), Extremadura (%20,5) eta Aragoi (%16,3). Autonomia-erkidego guztien artean laugarren dago Nafarroa (%13,8). Beste muturrean Murtzia, Madril, Kanariak eta Balear Uharteak daude, %1etik beherako datuekin.

2. grafikoa: landa eremuko biztanleen ehunekoa, autonomia-erkidegoetan, 2015



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin


Gure komunitateko landatasun-maila erlatibo altuak agerian uzten du oraingo ezau-garriak landu behar direla. Zaila izanen genuke garapena eta ongizatea bere konplexutasun osoan ulertzea, eztabaida sozioekonomiko eta sozialei, eta zerbitzuen, jasangarritasunaren, orekaren eta lurralde antolamenduaren nahiz ekitatearen gisako auziei hezkuntzaren auzia gaineratu ezean.

Nafarroan, 2002-2015 aldian, bilakaera negatibo motela izan du 2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoak, 1. taulan eta 2. grafikoa ikus daitezkeen bezala; izan ere, 2002an biztanleen proportzioa 82-17 izatetik 2015ean 86-13 izatera iragan da.

1. taula: 2.000 biztanle arteko udalerrietako biztanleria. Nafarroa


	Biztanleria, guztira			17 urtetik beherakoak			17 urtetik beherakoak (%)		
	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak	Guztira	2.000 biztanle arteko udalerriak	2.000 biztanletik gorako udalerriak
2002	569.628	98.230	471.398	59.655	12.471	47.184	10,5	12,7	10,0
2003	578.210	96.791	481.419	61.777	12.572	49.205	10,7	13,0	10,2
2004	584.734	97.320	487.414	63.470	12.775	50.695	10,9	13,1	10,4
2005	593.472	94.566	498.906	65.521	12.539	52.982	11,0	13,3	10,6
2006	601.874	91.426	510.448	67.292	12.145	55.147	11,2	13,3	10,8
2007	605.876	92.072	513.804	69.255	12.472	56.783	11,4	13,5	11,1
2008	620.377	91.157	529.220	72.362	12.511	59.851	11,7	13,7	11,3
2009	630.578	91.642	538.936	75.178	12.856	62.322	11,9	14,0	11,6
2010	636.924	92.361	544.563	77.884	13.206	64.678	12,2	14,3	11,9
2011	642.051	92.805	549.246	79.845	13.433	66.412	12,4	14,5	12,1
2012	644.566	90.696	553.870	81.114	13.162	67.952	12,6	14,5	12,3
2013	644.477	90.186	554.291	81.953	13.299	68.654	12,7	14,7	12,4
2014	640.790	86.995	553.795	81.819	12.809	69.010	12,8	14,7	12,5
2015	640.476	86.250	554.226	82.140	12.720	69.420	12,8	14,7	12,5

Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

3. grafikoa: hiri eta landa eremuetako biztanleen ehunekoa. Nafarroa

Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

4. grafikoa: hiri eta landa eremuetako 17 urtetik beherako biztanleen ehunekoa. Nafarroa



Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

Alabaina, udalerrri horietako 17 urtetik beherako biztanleriak eutsi egin dio lehendik zuen mailari (12.720 pertsona), eta, ehunekoei dagokienez, haien proportzioa zertxobait handiagoa da biztanle gehiago dituzten udalerrietakoa baino. Errealitate horrek garrantzi handia du landa eremuko zerbitzu ugariren etorkizuna erabakitzeko orduan (besteak beste, hezkuntza zerbitzuen).

Nafarroako biztanleen banaketa, bestalde, landakoak diren eta ez diren eremuen arteko desberdintasun eta elkargune eredu konplexu bati zor zaio. Kontuan harturik zein konplexua den eredu horri jarraitzea, taula honetan aipatutakoak izan daitezke landa eremuetan kokatutako udalerriak; bertan hainbat alderdi xehatzen dira, eskaintzen diren hizkuntza ereduak, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetako ikasleak eta azken ikasturteko unitate kopurua, kasurako.


2. taula. Landa eremuetako eskolak, 2015-2016					
Herria	Ikastetxearen izena	Modeloa	Ikasleak, 2014-2015	Ikasleak, 2015-2016	Unitate kopurua
Abartzuza	Abartzuzako HLHIP	A, G, D	33	33	4
Oibar	G. V. Casamayor HLHIP	G	46	41	3
Almandoz (Baztan)	Almandozeko HLHIP	D	13	9	1
Allo	La Cruz HLHIP	A, G	52	51	5
Altsasu	Zelandi HLHIP	D			
Amaiur (Baztan)	Amaiurko HLHIP	D	34	31	3
Antzin	San Fausto HLHIP	A, G	28	22	2
Añorbe	Añorbeko HLHIP	A, G – IIP BRITISH G	64	76	5
Arantza	Arantzako HLHIP	D (In + Fr)	55	62	5
Arbizu	Arbizuko HLHIP	D	21	30	3
Areso	Nazabal HLHIP	D	26	26	2
Arizkun (Baztan)	Arizkongo HLHIP	D	49	49	3
Arraioz (Baztan)	Arraiozko HLHIP	D	18	20	2
Arroitz	Arroitzeko HLHIP	A, G	51	59	6
Auritz	Auritzeko HLHIP	D	19	14	2
Aurizberri	Aurizberriko HLHIP	D	18	22	2
Azpilkueta (Baztan)	Azpilkueta HLHIP	D	7	7	1
Beintza-Labaien	Beintza-Labaiengo HLHIP	D	9	9	1
Beire	Beireko HLHIP	A/G - IIP	15	13	1
Bera	Ricardo Baroja HLHIP	D	200	205	12
Berbintzana	Río Arga HLHIP	A, G	32	32	3
Betelu	Beteluko HLHIP	D	105	103	8
Cárcar	Cárcarreko HLHIP	A,G-IIP	54	62	
Kaseda	F. J. Saenz de Oiza HLHIP	G	49	45	4
Deikaztelu	Virgen de Nieves HLHIP	A, G	46	35	3
Doneztebe	San Miguel HLHIP	A,D			
Elizondo (Baztan)	S. F. Javier HLHIP	A, D			17
Erratzu (Baztan)	Erratzuko HLHIP	D	40	38	3
Erro	S. Esteban HLHIP	D	22	23	2
Etxalar	Landagain HLHIP	D	78	77	8
Etxarri Aranatz	S. Donato HLHIP	D			
Figarol (Zarrakaztelu)	Nº Sra. de Ujué HLHIP	G	8	8	1

Herria	Ikastetxearen izena	Modeloa	Ikasleak, 2014-2015	Ikasleak, 2015-2016	Unitate kopurua
Fontellas	Fontellasko HLHIP	A,G,IIP	31	35	3
Garralda	Nº Sra. de Orreaga HLHIP	D	60	58	5
Gartzain (Baztan)	Gartzaingo HLHIP	D	14	17	1
Goizueta	Goizuetako HLHIP	D	64	73	5
Igantzi	Igantzikoko HLHIP	D	60	52	5
Irurita (Baztan)	Iruritako HLHIP	D	79	75	7
Ituren	Pulunpa HLHIP	D	65	66	6
Iturmendi	Arrano B. HLHIP	D	19	20	2
Jauntsarats (Basaburua)	Oihanzabal HLHIP	D	85	85	7
Lakuntza	L. Fuentes HLHIP	D	101	107	
Legasa (Bertizarana)	Legasako HLHIP	D	22	27	3
Leitza	Erleta HLHIP	D	267	278	
Lekaroz	Lekarozko HLHIP	D	-	-	1
Lesaka	Irain HLHIP	D	141	135	10
Lezaun	Lezaungo HLHIP	A, D	13	11	2
Irunberri	S. Juan HLHIP	A - IIP	48	45	5
Luzaide	Luzaideko HLHIP	D	10	12	1
Melida	Sta. Ana HLHIP	A, G	52	47	4
Mendigorria	J. M. Espinal Olcoz HLHIP	A, G	71	74	7
Miranda-Arga	San Benito HLHIP	G	47	57	5
Elo	Eloko HLHIP	A, G	36	43	4
Monteagudo	Monteagudoko HLHIP	A,G, IIP	63	61	
Murillo el Fruto	R. Lanasko HLHIP	G - IIP	52	32	3
Narbarte (Bertizarana)	Arotzeneako HLHIP	D	25	24	2
Obanos	Obanosko HLHIP	A,G - IIP	52	54	4
Otsagabia	Otsagabiko HLHIP	A, D	62	66	6
Olatzagutia	D. Bados HLHIP	D	118	114	9
Oronoz-Mugairi (Baztan)	Oronozko HLHIP	D	44	39	3
Oteitza	San Salvador HLHIP	A, G	59	58	5
Pitillas	Pitillasko HLHIP	A, G	23	22	2
Arrada (Murillo el Cuende)	Ximenez de Rada HLHIP	G - IIP	56	60	5
Erronkari	J. Gayarre HLHIP	A, G, D	76	66	6
Zare	S. Nicolás HLHIP	A, G	6	6	1
Saldias	Saldiasko HLHIP	D	6	8	1
Santakara	Nº S. de la Asunción HLHIP	G	50	48	5

Herria	Ikastetxearen izena	Modeloa	Ikasleak, 2014-2015	Ikasleak, 2015-2016	Unitate kopurua
Sartaguda	Sartagudako HLHIP	A,G, IIP	74	74	
Sesma	Sesmake HLHIP	A, G	86	75	
Sunbilla	Sunbillako HLHIP	D	89	93	
Uharte Arakil	San Miguel HLHIP	A, D	62	74	8
Uxue	Uxueko HLHIP	A	5	7	1
Urdiain	Urdiaingo HLHIP	D	59	52	5
Urrotz-Hiria	Urrotzko HLHIP	A, G	40	36	3
Villatuerta	San Veremundo HLHIP	A, G	90	93	8
Ziga	Zigako HLHIP	D	18	17	2
Zubiri (Esteribar)	Xabier Zubiri HLHIP	A, D			9
Zudairi	Zudairiko HLHIP	A, G, D	61	74	
Urdazubi-Zugarramurdi	Zugarramurdi/ Urdazubiko HLHIP	D	49	57	5
Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua					

Hezkuntza zerbitzuak eskualdeko irizpidea gai interesgarria da, eta hari dago-kionez nabarmengarria da une honetan itxi gabe dagoela. Nafarroarako eskualde mapa berria zehazteko prozesua, zeinak ondorio erabakigarriak izanen baititu zerbitzu publikoen alor guztietan, eztabaida prozesuan dago. Bestalde, Hezkuntza Departamentuak berak ere bat ez datozen eskualde mapak erabili ditu orain arte, jorrotutako gai monografikoaren arabera. Landa eskolen eremuan ere zenbait desberdintasun dituzten zonak atzea aurkitzen ditugu, garaiaren arabera (ikus 6. eranskina). Zenbait faktore egonkortasunez aztertzeke aukera ematen duen irizpide bati jarraitu behar zaionez, Hezkuntza Departamentuak 2013-2014 ikasturteetik ezarrita dituen hamabi zonaldeak aukeratu dira (1. mapa eta 3. taula). Ikastetxeen arteko koordinazioa errazteko, zonalde anitzentzako baliabideak finatu dira (5. eranskinean adibide bat agertzen da).

1. mapa



Iturria: Guk geuk egina, 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Ataleko datuekin

3. taula: landa eskolen zonaldeak. Nafarroa. 2015-2016	
Zonaldea	Eskola duten udalerrriak
1. Zonaldeabaztan	Almandoz, Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Erratzu, Gartzain, Irurita, Oronoz, Urdazubi/Zugarramurdi, Ziga
2. Zonaldeamalerreka	Beintza, Ituren, Legasa, Narbarte, Saldias, Sunbilla
3. Zonaldea	Areso, Betelu, Goizueta, Jauntsarats, Leitza
4. Zonaldeabortziriak	Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka
5. Zonaldearronkari	Erronkari
6. Zonaldeazaraitzu	Otsagabia
7. Zonaldeaezkoa/ Erro/ Zubiri	Auritz, Erro, Garalda, Luzaide, Urroz, Zubiri
8. Zonaldeasakana	Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Lakuntza, Iazti, Uharte Arakil, Urdiain
9. Zonaldeazangotza	Oibar, Kaseda, Irunberri, Zare
10. Zonaldea	Añorbe, Barasoain, Beire, Berbintzana, Mendigorria, Miranda Arga, Obanos, Pitillas, Uxue
11. Zonaldea	Figarol, Melida, Murillo el Fruto, Arrada, Santakara
12. Zonaldea	Abartzuza, Allo, Antzin, Arroitz, Cárcar, Deikaztelu, Lezaun, Sartaguda, Sesma, Oteiza, Villatuerta, Zudairi**
*Altsasu eta Iruztungo eskolek zonaldeko beste ikastetxeekin jarduerak partekatzen dituzte. **Zonaldetan dauden baina koordinatzen ez diren ikastetxeak: Cárcar, Jauntsarats, Sartaguda, Sesma, Urroz, Zudairi	

Hamabi taldekatze zonaldeek 36.303 biztanle hartzen dituzte barne, eta horietatik 13.271k dute eskolatze adina, 0tik 24ra bitarte. Hurrengo taulan, azter eremuaren arabera banatuta ageri dira biztanle horiek.

4. taula: biztanleak, landa eskolen zonaldearen arabera. Nafarroa. 2015eko urtarrilaren 1a			
	Guztira	0-24 urte	16-64 urte
1. Zonaldea - Baztan	8.194	1.936	4.972
2. Zonaldea - Malerreka	2.100	437	1.362
3. Zonaldea	5.090	1.141	3.216
4. Zonaldea - Bortziriak	8.567	2.070	5.366
5. Zonaldea - Erronkari	227	34	137
6. Zonaldea - Zaraitzu	560	73	323
7. Zonaldea - Aezkoa-Erro-Zubiri	4.400	1.076	2.796
8. Zonaldea - Sakana	6.782	1.652	4.130
9. Zonaldea - Zangoza	2.501	452	1.508
10. Zonaldea	5.637	1.229	3.462
11. Zonaldea	5.374	1.170	3.392
12. Zonaldea	9.430	2.001	5.639
Landa eskolarik gabeko udalerrriak	581.614	148.808	375.941
Guztira	640.476	162.079	412.244
Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin			

Jarduera ekonomikoa

Zonalde horietako jardueria ekonomikoaren ezaugarriek egoera zeharo desberdinak ekartzen dituzte agerira. Enpresei eta haien sektore ekonomikoei erreparatuz gero, honako profil hau zuten 2016ko urtarrilean.

5. taula: enpresak, jardueria ekonomikoko sektorearen eta zonaldearen arabera. 2016ko urtarrilaren 1a						
	Sektorea					Guztira
	Laguntza sozio-sanitarioa	Eraikuntza	Industria	Lehen sektorea	Beste zerbitzu batzuk	
1. Zonaldea - Baztan	147	123	57	27	332	686
2. Zonaldea - Malerreka	20	33	5	18	72	148
3. Zonaldea	69	70	39	16	143	337
4. Zonaldea - Bortziriak	176	134	93	23	335	791
5. Zonaldea eta 6. Zonaldea - Erronkari eta Zaraitzu	12	7	4	-	46	69
7. Zonaldea - Aezkoa-Erro-Zubiri	57	51	23	9	163	303
8. Zonaldea - Sakana	82	55	72	15	190	414
9. Zonaldea - Zangoza	27	20	13	7	46	113
10. Zonaldea	75	80	26	16	145	342
11. Zonaldea	58	40	30	13	100	241
12. Zonaldea	135	90	128	40	202	595
Landa eskolarik gabeko udalerriak	7.699	5.158	3.254	692	18.047	34.850
Guztira	8.557	5.861	3.744	876	19.821	38.859

Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin

Bestalde, enpresen tamainari begiratuz gero, agerian geratzen da gehienek ez dutela soldatako langilerik, eta izanez gero oso txikiak direla, soldatako langile bakar bat edo bi dituztelarik. Laburbilduz, Baztan, Bortziri, Sakana eta 12. zonaldea izan ezik (Abartzuza, Allo, Antzin, Arroitz, Cárcar, Deikaztelu, Lezaun, Sartaguda, Sesma, Villatuerta, Zudairi), horietan enpresa handiagoak baitaude, gainerako zonalde guztietan hagitz txikia da enpresa egitura.

6. taula: enpresak, enplegu geruzen eta zonaldearen arabera. 2016ko urtarilaren 1a						
	Soldatako langileak					Guztira
	Soldatako langilerik gabe	1-2 pertsona	3-5 pertsona	6-9 pertsona	10 pertsona edo gehiago	
1. Zonaldea - Baztan	400	158	48	29	24	659
2. Zonaldea - Malerreka	95	24	7	3	1	130
3. Zonaldea	197	85	19	12	8	321
4. Zonaldea - Bortziriak	416	183	62	31	46	738
5. Zonaldea eta 6. Zonaldea Erronkari eta Zaraitzu	50	13	4	1	1	69
7. Zonaldea - Aezkoa-Erro-Zubiri	199	61	18	6	10	294
8. Zonaldea - Sakana	234	88	29	15	33	399
9. Zonaldea - Zangoza	63	33	4	3	3	106
10. Zonaldea	220	77	16	6	7	326
11. Zonaldea	144	52	22	3	7	228
12. Zonaldea	339	113	41	23	39	555
Landa eskolarik gabeko udalerriak	19.463	8.340	2.852	1.347	2.156	34.158
Guztira	21.820	9.227	3.122	1.479	2.335	37.983
Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin						

Ekonomia jardueraren ondorioz, desberdinak dira zonaldeetan erregistratutako enplegu tasak (landunen ehunekoa 16 urte edo gehiago dituzten biztanleekiko), jarduera tasak (jardunean dauden pertsonen ehunekoa 16 urte edo gehiago dituzten biztanleekiko) eta langabezia tasak (langabeen ehunekoa jardunean dauden biztanleekiko). Langabezia tasari erreparatuz gero, adibidez, bariazioak daude Baztan, Erronkari-Zaraitzu eta Aezkoa-Zubiriko zonaldeen eta 11. (Figarol, Melida, Murillo el Fruto, Arrada, Santakara) eta 12. (Abartzuza, Allo, Antzin, Arroitz, Cárcar, Deikaztelu, Lezaun, Sartaguda, Sesma, Villatuerta, Zudairi) zonaldeen artean, lehenengo multzoan indize baxuenak baitaude, eta bigarrenean balioak altuenak baitira.

7. taula: enplegu, jarduera eta langabezia tasak taldekatze zonaldeen arabera			
	Enplegu tasa	Jarduera tasa	Langabezia tasa
1. Zonaldea - Baztan	54,96	59,44	7,54
2. Zonaldea - Malerreka	54,69	61,60	11,20
3. Zonaldea	54,89	59,97	8,48
4. Zonaldea - Bortziriak	53,43	58,01	7,88
5. Zonaldea eta 6. Zonaldea - Erronkari eta Zaraitzu	49,36	51,63	4,40
7. Zonaldea - Aezkoa-Erro-Zubiri	59,76	64,70	7,65
8. Zonaldea - Sakana	51,04	57,10	10,61
9. Zonaldea - Zangoza	54,30	59,19	8,26
10. Zonaldea	53,26	59,41	10,35
11. Zonaldea	47,62	55,21	13,76
12. Zonaldea	49,07	56,56	13,24
Landa eskolarik gabeko udalerriak	50,52	58,68	13,91
Guztira	50,73	58,67	13,53
Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin			

Zonaldeen testuingurua ezagutzeko datu interesgarria da, orobat, errentaren estatistika. Hala, pertsona bakoitzeko batez besteko errentak, kontsumo unitateko batez besteko errentak edo etxe bakoitzeko batez besteko errentak aipa ditzakegu. Komeni da argitzea ezen pertsona bakoitzeko diru sarrerak, etxe bakoitzerako, etxeko diru sarrera guztiak zati bertako kide kopurua eginez lortzen direla. Kontsumo unitate bakoitzeko diru sarrerak, etxe bakoitzerako, etxeko diru sarrera guztiak zati bertako kontsumo unitateen kopurua eginez lortzen dira. Hori kalkulatzeko ELGAren eskala aldatua erabiltzen da; hau da, 1eko pisua esleitzen zaio etxeko 1. helduari, 0,5ekoa gainerako helduei, eta 0,3koa 14 urtetik beherakoei.

Bada, aurrekoa kontuan harturik, 8. taulan ageri da zonalde guztietako errenten banaketa.

8. taula: errentak, landa eskolen taldekatze zonaldeen arabera sailkatutik			
	Batez besteko errenta pertsona bakoitzeko	Batez besteko errenta kontsumo unitate bakoitzeko	Batez besteko errenta etxe bakoitzeko
1. Zonaldea - Baztan	11.517	17.776	32.722
2. Zonaldea - Malerreka	11.272	17.023	30.421
3. Zonaldea	12.888	19.128	32.443
4. Zonaldea - Bortziriak	12.500	18.712	31.797
5. Zonaldea eta 6. Zonaldea - Erronkari eta Zaraitzu	13.718	19.866	31.445
7. Zonaldea - Aezkoa-Erro-Zubiri	13.413	20.164	34.250
8. Zonaldea - Sakana	12.437	18.640	32.094
9. Zonaldea - Zangoza	12.771	18.453	30.042
10. Zonaldea	12.133	17.536	28.391
11. Zonaldea	10.938	15.632	24.796
12. Zonaldea	10.835	15.907	26.666
Landa eskolarik gabeko udalerriak	12.220	18.250	31.508
Guztira	12.202	18.213	31.384
Iturria: Guk geuk egina, Nastaten datuekin			

Haur Hezkuntza 0-3

Nafarroan, bilakaera argi eta garbi positiboa izan du 0-3 urteko hezkuntzagatiko interesak. Uneotan hainbat neurri garrantzitsu ari dira hartzen aro horren izaera berez hezigarria nabarmentzeko eta eskaintza ahal bezain unibertsala izan dadin. Haur eskola diren 100 ikastetxe daude, 75 udalerritan; 6.521 ikaspostu eskaintzen dituzte orotara, eta 4.942 haur artatzen dituzte.

9. taula: haur eskolak. Nafarroa. 2015-2016							
Kudeaketa	Herriak	Ikastetxeak	Eskainitako ikaspostuak	Betetako ikaspostuak	Betetako unitateak*	Hezkuntza premia bereziak dituzten haurrak	Haurrak, guztira
Udal titulartasuna	74	93	6.049	4.457	416	48	4.505
Eskubide Sozialetako Departamentuak kudeatutakoak	3	7	472	431	44	6	437
Guztira	77	100	6.521	4.888	460	54	4.942
* Unitatea= taldea/ikasgela Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua							


Hezkuntza Departamentuak 2011-12 ikasturtera arte finantzatu du sortu berri diren udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen ekipamendua. Bestalde, urteko finantzaketa moduluen bitartez, Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen funtzionamendu gastuak finantzatzen ditu, aipaturiko moduluetan zehaztutako proportzioari jarraituz.

Nafarroako toki erakundeek badituzte hezkuntzaren alorreko eskumen batzuk halaber, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legean aitortuak. Aipatu arau horren 25. artikulua honako hau dio, besteak beste: «Nahitaezko eskolatzea betetzeko zaintzan parte hartzea, eta dagozkien hezkuntza administrazioekin lankidetzan jardutea, ikastetxe berriak eraikitzeko beharrezkoak diren orubeak lortzeko. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo hezkuntza bereziko zentro publikoetara xedaturiko toki titulartasuneko erai-kinen kontserbazioa, mantenua eta zaintza».

Oro har, jantokia izaten dute haur eskolek. Familien eta Hezkuntza Departamentuaren artean finantzatzen da. Familiei dagokien zenbatekoa zehazteko, Tarifen Foru Agindua xedatutakoa hartzen da kontuan, bai eta familia bakoitzaren errenta aitortpena ere. Departamentuak, bestalde, familien ekarpenaren eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea ordaintzen du, eta honako hau izanen da gehieneko kostu onartua: gehieneko tarifa bider haur erabiltzaileen kopurua. Diru laguntza jasotzeko eskubidea izateko, erabiltzaileak zazpi izan behar dira gutxienez.


Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) garrantzia nabarmendu beharra dago. Mende honen hasieran asko hedatu zen Nafarroa guztian eta haren oinarria, hein handi batean, eredu hau da: udalak dira ikastetxearen eta zerbitzuaren titularrak, eta gastuen zati bat ordaintzen laguntzen dute gurasoek eta Nafarroako Gobernuak, dagokion hitzarmena sinatu eta gero. Horren froga dira ikastetxe kopurua eta eskaintzen diren ikaspostuak, datozen grafikoetan ikus daitezkeen moduan.

5. grafikoa: haur eskolak. Nafarroa. 2015-2016




Iturria: Guk geuk egina, 0-3 urtekoen Atalaren datuekin

6. grafikoa: 0-3 urteko haurrentzako ikaspostuen eta ikastetxe publikoen igoera. 2011-2016



Iturria: Guk geuk egina, 0-3 urtekoen Atalaren datuekin

7. grafikoa: udalekin lotutako eta irakaskuntza publikoan gauzatutako aurrekontuen bilakaera. 0-3 urte (mila euro). 2000-2015



Iturria: Guk geuk egina, Baliabide Ekonomikoen Atalaren datuekin

Baimentze-prozesua osatu duten Haur Hezkuntzako udal-ikastetxeak ondorengo taulan daude jasota.

10. taula: Nafarroako toki entitateen titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur eskolen zerrenda. 2015-2016*			
	Ikastetxe kopurua	Ikasleak	Herriak
1. Zonaldea - Baztan	1	64	Almandoz, Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Erratzu, Gartzain, Iruñita, Oronoz, Urdazubi/Zugarramurdi, Ziga
2. Zonaldea - Malerreka			Beintza, Ituren, Legasa, NARBarte, Saldias, Sunbilla
3. Zonaldea	1	8	Areso, Betelu, Goizueta, Jauntsarats, Leitza
4. Zonaldea - Bortziriak	1	45	Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka
5. Zonaldea - Erronkari	1	6	Erronkari
6. Zonaldea - Zaraitzu	1	3	Otsagabia
7. Zonaldea - Aezkoa-Erro-Zubiri	1	11	Auritz/Burquete, Erro, Garralda, Luzaide/Valcarlos, urroz, Zubiri
8. Zonaldea - Sakana	2	82	Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Lakuntza, Olazti, Uharte Arakil, Urdiain
9. Zonaldea - Zangoza	1	13	Oibar, Kaseda, Irunberri, Zare
10. Zonaldea	1	13	Añorbe, Barasoain, Beire, Berbintzana, Mendigorria, Miranda Arga, Obanos, Pitillas, Uxue
11. Zonaldea			Figarol, Melida, Murillo el Fruto, Arrada, Santakara
12. Zonaldea	3	44	Abartzua, Allo, Antzin, Arroitz, Cárcar, Deikaztelu, Lezaun, Sartaguda, Sesma, Villatuerta, Zudairi
Landa eskolarik gabeko udalerriak	80	4.220	-
Guztira	93	4.509	-
Iturria: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua			

Nafarroako 0-3 urteko ikastetxeen banaketa geografikoa aztertzen badugu, nabarmentzekoa da, arrazoi demografikoak tarteko, Iruñearen eta Iruñerriaren garrantzia, guztira 40 ikastetxe baitaude, eta Erriberarena, 33 ikastetxerekin.

11. taula: 0-3 urteko ikastetxe publikoak, zonaldearen arabera, 2015-2016 ikasturtea

Zonaldea	Ikastetxe kopurua	Betetako unitate* kopurua	Ikaspostu kopurua		Betetako ikaspostuak/ Eskainitako ikaspostuak %	HPBko unitateak*	Estaldura*%
			Eskainitakoak	Betetakoak			
Pirinioak	5	11	193	113	58,55	8	63,7
Sakana-Bidasoa	10	29	549	392	71,4	1	49,33
Iruñea	17	132	1.409	1.286	91,27	17	26,57
Iruñerria	23	132	1.862	1.521	81,69	16	29,44
Lizarrako zonaldea	5	13	203	139	68,47	1	30,85
Tafallako zonaldea	6	16	326	185	56,75	2	45,98
Erriberagoiena	15	43	836	478	57,18	5	61,97
Erriberabarrena	18	67	1.121	774	69,5	6	44,15
Guztira	99	443	6.499	4.888	75,21	56	35,52

* Unitatea= taldea/ikasgela
 ** Dauden 0-3 urteko bitanleen arabera
 Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala

Hezkuntza baimena duten Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko itunpeko ikastetxe pribatuei dagokienez, Iruñeko eta Iruñerrikoen kopurua nabarmendu behar da; 19tik 15 daude bertan. Alegia, Nafarroako zonalde gehienetan hutsune hori dago.

12. taula: 0-3 urteko ikastetxe pribatuak, zonaldearen arabera. 2015-2016

Zonaldea	Ikastetxe kopurua	Baimendutako ikaspostu kopurua	Betetako ikaspostu kopurua
Pirinioak	0	0	0
Sakana-Bidasoa	1	64	47
Iruñea	7	413	324
Iruñerria	8	463	348
Lizarra	2	114	51
Tafalla	0	0	0
Erriberagoiena	1	40	36
Erriberabarrena	0	0	0
Guztira	19	1.094	806

Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala

Funts publikoen bitartez finantzatutako 0-3 urteko ikastetxe kopuruaren bilakaera konstantea izan da 2007-2016 aldian, 2011-2012 ikasturtera arte, eta ordutik aurrera maila berari eutsi dio. Eskainitako ikaspostuen kopuruak gora egin du bitarte horretan guztian; 1.621 gehiago daude. Nabarmenezkoa da zer-nolako zailtasunak dauden landa inguruneetan Lehen Hezkuntza zikloaz arduratzen diren ikastetxeak ireki eta egonkortzeko.

13. taula: 0-3 urte bitarteko etapan ikaspostuen eta ikastetxeen bilakaera (2007ko irailetik 2015eko irailera bitarte)									
	07-08 ikas-turtea	08-09 ikas-turtea	09-10 ikas-turtea	10-11 ikas-turtea	11-12* ikas-turtea	12-13 ikas-turtea	13-14 ikas-turtea	14-15 ikas-turtea	15-16 ikas-turtea
Diru publikoz ari diren ikastetxeak	80	89	93	98	102	102	101	100	99
Diru publikoz ari diren ikastetxeak dituzten udalerrriak	58	64	68	69	73	74	74	74	75
Eskainitako ikaspostu kopurua, guztira	4.898	5.452	5.542	6.473	6.399	6.571	6.600	6.519	6.521
* Iazko ikasturteko txostenean zeuden zenbait datu koadro honetan ageri direnekin zuzendu dira. Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala									

Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza

Nafarroako hezkuntza sistemaren egituraren ikuspegi orokorra edukirik, testuinguruan koka daiteke Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntzako eskolatzea; horrenbestez, taula hauetan jaso da zer ezaugarri agertzen dituen, sare publikoa eta pribatua-itunpekoa bereizirik, eta zer bilakaera izan duten sareok azken ikasturteetan.

14. taula: 3-12 urte bitarteko etapan ikaspostuen eta ikastetxeen bilakaera (2007ko irailetik 2015eko irailera bitarte)									
	07-08 ikas-turtea	08-09 ikas-turtea	09-10 ikas-turtea	10-11 ikas-turtea	11-12* ikas-turtea	12-13 ikas-turtea	13-14 ikas-turtea	14-15 ikas-turtea	15-16 ikas-turtea
Diru publikoz ari diren ikastetxeak	223	221	223	221	221	221	221	219	219
Diru publikoz ari diren ikastetxeak dituzten udalerrriak	143	141	141	140	139	139	139	138	138
Eskainitako ikaspostu kopurua, guztira	55.271	56.761	57.699	58.580	59.523	59.873	60.052	60.395	60.734
Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa									
15. taula: ikastetxe publikoen kopuruaren bilakaera. 2011-2016									
	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016				
Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza	171	172	172	170	170				
Bigarren Hezkuntza	56	56	58	60	60				
DBH soilik	15	15	16	16	16				
DBH eta Batxilergoa	22	22	23	24	22				
DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	6	6	5	4	6				
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	3	4	3	3	3				
Lanbide Heziketa soilik	10	9	11	13	12				
DBH eta Lanbide Heziketa					1				
Hezkuntza Berezia	2	2	2	2	2				
Titulartasun publikoko ikastetxeak, guztira	229	230	232	232	232				
Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa									

16. taula: itunpeko ikastetxe pribatuen kopuruaren bilakaera. 2011-2016

	2011/12	2012/13	2013/14	2014/15	2015/16
Soilik Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza	24	23	22	22	22
Bigarren Hezkuntza soilik	17	18	16	16	16
Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza	27	27	27	27	28
Hezkuntza Berezia	3	2	2	2	2
Titulartasun pribatu-itunduko ikastetxeak guztira	71	70	67	67	68
Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa					

Testuinguru horretan, landa eskolak familia eta ikasle multzo txiki baten hezkuntza premiei erantzuten die, eta hainbatetan ez du ematen maila guztiak dituen ikastetxe oso bat betetzeko aukerarik. Maila anitzeko eskolak egoera horri erantzuten dio, alde batetik adin desberdineko ikasleak ikasgela berean bilduz eta, bestetik, ikasle horiek aldi berean lantzen dituzten irakasleak edukiz.

Nafarroan era askotako eskolak daude landa eremuetan, eta unean-unean duten adinaren arabera taldekatzen dituzte ikasleak. Beraz, zenbait eskolak ez dute Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maila guztietarako ikastalderik eta, horrenbestez, ikasleak taldekatzen dituzte. Landa eskola horiek maila anitzeko ikasgelak izan ditzakete, ikasle kopuru txikia dela eta. Hala, Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztiak eskaintzen dituzte, nahiz eta ez izan, beharbada, ikastalde bana hezkuntza-maila bakoitzeko. Beste batzuetan, faktore nagusiki demografikoak tartean, ezin dituzte ohiko ikasmaita guztiak zentro mailakatueman eman. Gaineratu behar da, orobat, hizkuntza ere tartean den faktorea izan daitekeela, zentroak ez badu eskaintzen familiek eskatutako eredia –A, B, D edo G– edo programa –IIP–.

Nolanahi ere den, hirikoa ez den testuinguru batean kokatuta egotea bada landa eskolaren definizioa, askotariko landa eskolak aurkituko ditugu maila anitzekoak edo mailakatuak izateko aukeraren barruan. Lehen Hezkuntzako eskolatzeari buruzko ikuspegi orokorrak eta eskolen udalerrien araberrako kokalekuak argi eta garbi islatzen dute zein sakabanatuta dagoen.

17. taula: Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoien eta itunpeko ikastetxe pribatuaren kopurua Nafarroako udalerrietan. 2016	
Ikastetxe kopurua	Herriak
1	114 herri
2	Abartzuza, Zizur Txikia, Elizondo, Etxarri Aranatz, Fontellas, Lesaka, Irunberri, Mutiloa, Zangoza, Sarriguren, Viana
3	Altsasu, Bera, Berriozar, Lizarra, Lodosa, Orkoién, Tafalla, Zizur Nagusia
4	Barañain, Atarrabia
6	Burlata
7	Tutera
44	Iruñea
Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala	

Errealitate konplexu horren irudi xeheagoa emateko bildu dugu 18. taula hau, kontuan harturik ezen aipaturiko eskoletako zenbait (Altsasu, Doneztebe, Elizondo, etab.) ezin direla hertsiki landa eskolatzat hartu, baina taulan sartu dira, harreman pedagogikoa baitute zonaldeko landa eskolekin eta landakotzat har daitezkeen eremuetan daudelako kokaturik. Datuak 2015-2016 ikasturtekoak dira eta, logikoa den moduan, errealitate honetan betiere gogoan izan behar dira urtearteko aldakuntzak, funtsezko elementuak baitira.

18. taula: Nafarroako landa eskolen taldekatzeak. 2015-2016	
Zonaldea	Herriak eta irakasten diren ikasmilak
1. Zonaldea Baztan	Almandoz (2.a, 3.a., 4.a eta 6.a batera) Amaiur (1.a, 2.a eta 3.a / eta 4.a, 5.a, 6.a) Arizkun (1.a, 2.a, 3.a / 4.a eta 5.a / eta 6.a bakarrik) Arraioz (1.a, 2.a, 3.a, 4.a eta 5.a) Azpilkueta (4.a eta 6.a batera) Erratzu (1.a eta 2.a batera, 4.a bakarrik, eta 5.a eta 6.a batera) Gartzain (2.a, 3.a eta 6.a batera) Iurrita (1.a bakarrik, 2.a bakarrik, 3.a, 4.a eta 5.a bakarrik eta 6.a bakarrik) Ornoz-Mugairi (1.a eta 2.a / 3.a eta 4.a, 3.a eta 4.a / 5.a eta 6.a) Urdazubi/Zugarramurdi (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Ziga (2.a, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera)
2. Zonaldea Malerreka	Beintza (1.a, 4.a, 5.a eta 6.a batera) Ituren (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Legasa (1.a, 2.a, 3.a, 4.a eta 6.a batera) Narbarte (1.a, 2.a eta 3.a batera / 4.a, 5.a eta 6.a batera) Saldias (1.a, 3.a eta 6.a batera) Sunbilla (1.a, 2.a eta 3.a bakarrik; 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik)
3. Zonaldea	Areso (1.a eta 2.a bakarrik; 3.a, 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik) Goizueta (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera eta 5.a eta 6.a bakarrik) Betelu (maila bakoitza gela batean) Jauntsarats (1.a eta 2.a batera) Leitza (grupo en todos los niveles)

Zonaldea	Herriak eta irakasten diren ikasmailak
4. Zonaldea Bortziriak	Arantza (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Bera (maila bakoitza gela batean) Etxalar (1.a eta 2.a batera, 3.a bakarrik, 4.a bakarrik eta 5.a eta 6.a batera) Igantzi (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Lesaka (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera eta 5.a eta 6.a batera)
5. Zonaldea Erronkari	Erronkari (1.a, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera)
6. Zonaldea Zaraitzu	Otsagi (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera)
7. Zonaldea Aezkoa/Erro/Zubiri	Auritz (4.a eta 5.a ez daude; 1.a, 2.a, 3.a eta 6.a batera) Erro (1.a bakarrik, 2.a, 3.a, 4.a, eta 5.a batera) Garralda (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a bakarrik eta 5.a eta 6.a batera) Luzaide (1.a, 2.a, 4.a eta 5.a batera) Urrotz (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Zubiri (maila bakoitza gela batean)
8. Zonaldea Sakana	Arbizu (1.a eta 2.a batera) Etxarri Aranatz (maila bakoitza gela batean) Iturmendi (1.a, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Lakuntza (maila bakoitza gela batean) Olazti (maila bakoitza gela batean) Uharte Arakil (maila bakoitza gela batean) Urdaian (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera; 4.a eta 5.a bakarrik)
9. Zonaldea Zangoza	Oibar (1.a eta 2.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Kaseda (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Irunberri (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Zare (1.a, 2.a eta 3.a batera)
10. Zonaldea	Añorbe (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Barasoain (maila bakoitza gela batean) Beire (1.a, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Berbintzana (1.a, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Mendigorría (1.a eta 2.a batera, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a bakarrik) Miranda Arga (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera eta 5.a eta 6.a batera) Obanos (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera eta 5.a eta 6.a bakarrik) Pitillas (1.a, 3.a eta 4.a batera; 5.a eta 6.a batera) Uxue (1.a, 2.a, 3.a, 4.a eta 6.a batera)
11. Zonaldea	Figarol (1.a, 2.a, 3.a, 4.a eta 5.a batera) Melida (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Murillo el Fruto (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera eta 4.a, 5.a eta 6.a batera) Arrada (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Santakara (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera)
12. Zonaldea	Abartzuza (1.a, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Allo (1.a bakarrik, 2.a eta 3.a batera, 4.a bakarrik, 5.a eta 6.a batera) Antzin (1.a, 2.a eta 3.a batera; 4.a, 5.a eta 6.a batera) Arroitx (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Cárcar (1.a eta 2.a batera, 3.a bakarrik; 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik) Deikaztelu (1.a eta 2.a batera, 3.a eta 4.a batera, 5.a eta 6.a batera) Lezaun (5.a eta 6.a bakarrik) Sartaguda (1.a eta 2.a batera, 3.a bakarrik; 4.a eta 5.a batera eta 6.a bakarrik) Sesma (maila bakoitza gela batean) Villatuerta (1.a 2.a, eta 3.a batera, 4.a, 5.a eta 6.a bakarrik) Zudairi (1.a eta 2.a batera, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a bakarrik)
Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua	

Bestalde, 19. taulan jaso dira osatugabe deituriko ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako ratioak.

19. taula: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe osatugabe publikoetako ratioak. 2015-2016				
	25 ikaslera arte	26-50 ikasle	51-100 ikasle	Guztira
Ikastetxe kopurua	20	22	27	69
Ikasle kopurua	289	882	1.841	3.012
Ikasle kopurua ikastetxeko, batez beste	14,45	40,09	68,19	43,65
Unitate kopurua	33	83	168	284
Ikastetxeko unitate kopurua, batez beste	1,65	3,77	6,22	4,12
Batez besteko ratioa (ikasleak / ikastaldea)	8,76	10,63	10,96	10,61
Iturria: Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoa				

Hizkuntza ereduaren arabera laburpena, 2015-2016 ikasturteari dagokionez, 20. taulan jasotakoa da.

20. taula: hizkuntza ereduaren arabera laburpena. 2015-2016						
Hizkuntza ereduak	2013-2014		2014-2015		2015-2016	
	Ikasleak	Talde kop.	Ikasleak	Talde kop.	Ikasleak	Talde kop.
D ereduak	1.340	121	1.374	126	1.431	134
IIP programa	57	5	64	5	19	2
G/A ereduak	1.409	132	701	69	1.087	106
D eta G/A ereduak	171	15	171	16	215	21
	59	7	51	6		
Mot. G/A eta IIP	49	5	208	18	354	35
	-	-	520	46		
Guztira	3.085	285	3.089	286	3.106	298
Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua						

Landa eskolaren faktore bereizgarrietako bat da haur kopuru handia garraiatu behar duela, eskolatzen dituen biztanleak oso sakabanatuta daudelako. Zonaldekako irizpideari jarraituz, landa eskolari buruzko informazio guztia antolatu nahi baitu, 21. taulan labur-labur bildu dira Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek herri eta auzoetatik ikastetxera egiten dituzten joan-etorriak; 6. eranskinean aldiz, xehetasun handiagoz jaso da. Argitu behar da hala gertatzen dela, logikoa den moduan, jatorriko herrietan ez dutelako eskolarik, edo dagoen eskolak ez dutelako eskaintzen familien aukerako hizkuntza ereduak. Kasu batzuetan, bestalde, garraiatzen diren haurrak hainbat ikastetxeren artean (Arraioz, Irurita edo Ziga, esaterako) antolatutako jardueretara joaten dira astean behin, kontu pe-

dagogikoak direla eta. Ikasle batzuk garraio plazak okupatzen dituzte beren errefrentzi ikastetxea beste bat izan arren. Aipatu inguruabar guztiak kontuan harturik, 5.030 haur garraiatzen da guztira.

21. taula: garraiatutako ikasleak, zonaldearen arabera. 2016-2017 Laburpena			
Zonaldea	Nondik	Nora	Ikasle kopurua
1. Zonaldea Baztan	Gartzain	Arraioz IP	13
	Aniz, Berroeta, Irurita Apote, Elizondo (baserriak), Irurita, Lekaroz (baserriak), Oronoz-Mugairi, Ziga	“San Francisco Javier” IP Elizondo	17
	Almandoz, Aniz, Arraioz, Berroeta, Gartzain, Irurita, Oronoz-Mugairi, Ziga	“San Francisco Javier” IP Elizondo// Irurita IP	54
	Amaior, Arizkun, Errazu, Irurita	Irurita IP	55
	Almandoz	Ziga IP	7
	Landibar, Leorlaz, Urdazubi, Zugarramurdi	Urdazubi-Zugarramurdi herriarteko ikastetxea	47
2. Zonaldea Malerreka	Beintza-Labaien, Donamaria, Doneztebe (baserriak), Elgorriaga, Eratsun, Gaztelu, Ituren, Legasa, Narbarte, Oitz, Saldias, Sunbilla, Urroz, Zubieta	Doneztebe IP eta DBHI	291
3. Zonaldea	Atallu, Azkarate, Betelu, Errakin, Gaintza, Intza, Lezaeta, Uztegi	“Araxes” IP Betelu	50
	Aita Semegi, Alkaintzuriain, Alkasoalde (Aristi, Zabala), Arano, Espidealdea (Espide, Itxortxa, Ferminenea)	“Andrés Narbarte Xalto” IP Goizueta	30
4. Zonaldea Bortziriak	Agerra IP	“Ricardo Baroja” IP Bera	71
	Banarta, Martxanbaita, Nabazgain, Zala	“Irain” IP Lesaka	22
	Aizarotz, Arrarats, Beramendi, Beruete, Erbiti, Gartzarón, Igoa, Ihaben, Itsaso, Jauntsarats, Udabe	Jauntsaratsoko “Oihanzabal” IP	71
	Ezkurra Gaina (Basakabi), Erasote, Erreka, Ezkurra, Gorritaran	“Erleta” HLHIP Leitza	30
5. Zonaldea Erronkari	Burgi, Garde, Izaba, Urzainki, Bidankoze	“Julian Gayarre” IP/ Erronkari DBHI	82
6. Zonaldea Zaraitzu	Espartza, Ezkaroze, Gorza, Itzalle, Itzaltzu, Jaurrieta, Orontze, Uskartzte	Otsagabia IP/DBHI	52
7. Zonaldea Aezkoa/Erro/Zubiri**	Aintzioa, Ardaitz, Espotz, Lintzoain, Orondritz	“San Esteban” IP Erro	14
	Abaurreagaina, Aria, Arike, Aurizberri, Auritz, Bizkarreta, Hiriberri Aezkoa, Luzaide, Mezkiritz, Orbaitzeta, Orreaga, Ureta, Hiriberri Artze	“Ntra. Sra. de Orreaga” IP / Garralda DBHI	64
	Agorreta, Akerreta, Eugi, Ezkirotz, Ilarratz, Ilurdotz, Inbuluzketa, Irotz, Larrasoña, Leranotz, Saigots, Sarasibar, Setoain, Urdaitz, Urtaşun, Zabaldika, Zubiri	“Xabier Zubiri” IP Zubiri	69
	Agorreta, Ardaitz, Aritzu, Egozkue, Errea, Erro, Espotz, Etsain, Eugi, Inbuluzketa, Iragi, Irotz, Larrasoña, Saigots, Urdaitz, Urtaşun, Zilbeti, Zubiri	“Pedro de Atarrabia” DBHI Atarrabia	252*

Zonaldea	Nondik	Nora	Ikasle kopurua
8. Zonaldea Sakana	Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Dorrao, Etxarri, Iturmendi, Lizarraga, Lizarragabengoa, Unanua, Urdiain	"San Miguel de Aralar" BHI / San Donato IP Altsasu	110*
	Arbizu, Etxarri Aranatz, Lakuntza	"Alsasu/Altsasu" IP	3
	Arruazu, Etxarri, Irañeta	"San Miguel" IP Uharte-Arakil	14
	Olazti		4
9. Zonaldea Zangoza	Arbontze, Artieda, Domeñu, Arripodas	"San Juan" IP Irunberri	7
	Eslaba, Galipentzu, Xabier, Lerga, Ledea, Esa	"Luis Gil" IP Zangoza	39
10. Zonaldea	Beire, Murillo el Cuende	"Príncipe de Viana" IP Erriberri	14
	Garinoain, Mendibil, Puiu, San Martin Unx	"Marqués de la Real Defensa" IP Tafalla	34
11. Zonaldea	Figarol, Melida, Murillo el Fruto, Arrada, Santakara	Zarrakaztelu DBHI	83
12. Zonaldea	Abaigar, Abartzusa, Aberin, Allo, Amillao, Antzin, Aramendia, Arbeitza, Arellano, Arroitz, Artabia, Arteaga, Aiegi-La Merced, Azkona, Azketa, Bearin, Deikaztelu, Eraul, Eultz, Galbarra, Galdio, Garisoain, Genbe, Iguzkitza, Iturgoien, Lakar, Larrion, Legaria, Lerate, Lorka, Lukin, Metauten, Morentin, Muniain Iguzkitza, Murieta, Oko, Ollobarren, Oteiza, Errezu, Jaitz, Ugar, Urbiola, Bidaurre, Villamayor de Monjardín, Hiriberri Deierri, Villatuerta, Zabal, Zubielki, Zufia, Zurukuain	"Remontival" IP Lizarra	372*
Guztira			5.030
<p>*Ikasle horien artean, beste zonalde batzuetako ikasleak daude halaber **Antxoriz iparraldean bizi den ikasleria Zubirira garraiatzen da eta hegoaldean bizi dena Huartera. Iturria: Eskola Zerbitzuak Kudeatzeko Bulegoa</p>			

Azken urteetan, Nafarroako landa eskoletan zonaldeak ezarri dira irakasleen koordinazioa errazteko. Zonalde horien estaldura atal honetan erabilitakoari dagokiona da. Bertan zehazten da, baita 2015-2016 ikasturterako ere, zonaldeko beste zentro batzuekin koordinatzeko lanetarako ofizialki ezarri diren orduak.

22. taula: koordinazio zonaldeak, egoitzak eta eginkizun horretarako orduak. 2015-2016			
Zonaldea	Egoitza eta herriak		Koordinazioa: orduak asteko
1. Zonaldea	Irurita		Landa Eskolen Koordinatzailea – osoa
2. Zonaldea	Sunbilla		Landa Eskolen Koordinatzailea 13
3. Zonaldea	Jauntsarats		2
	Areso		10
4. Zonaldea	Koordinatzen dira	Arantza	7
		Etxalar	7
		Igantzi	7
		Lesaka	2
		Bera	2
5. Zonaldea	Erronkari(IP-DBHI)		13
6. Zonaldea	Otsagabia(IP-DBHI)		13
7. Zonaldea	Garalda		Landa Eskolen Koordinatzailea ½ + ILZ aholkularia ½
8. Zonaldea	Olatzagutia		Landa Eskolen Koordinatzailea ½ + ILZ aholkularia ½
9. Zonaldea	Koordinatzen dira	Oibar	6
		Kaseda	8
		Zare	3
	Urroz		3
	Irunberri		8
10. Zonaldea	Añorbe		2
	Obanos		2
	Berbintzana		2
	Mendigorria		3
	Miranda-Arga		2
	Pitillas		3
	Beire		2
	Uxue		
11. Zonaldea	Figarol		2
	Murillo		2
	Santakara		2
	Arrada		2
	Melida		2
			Landa Eskolen Koordinatzailea - 3
12. Zonaldea	Allo		Landa Eskolen Koordinatzailea - osoa
Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala			

Landa eskola gaur egun

Azken urteotan Nafarroako landa eskolaren egoeragatik izan den interesa Komunitateko hainbat estamentu eta erakundetan sortu diren ekimenek berrmatuta dator. Zuzenean inplikaturako irakasle eta familiek, udalek eta kontzejuek eta landa eremuan aditu diren hainbatek behin baino gehiagotan adierazi dute ahaztu samarra dagoela eta bultzada falta zaiola eskolari testuinguru horretan. Adierazpen sozial eta politikoki antolatuta gisa, interesgarria da Foru Parlamentuak egin dituen bi adierazpenak gogora ekartzea. Jarraian aipaturiko dira.

2012ko maiatzaren 17an, Nekane Pérez Irazabal, Aitziber Sarasola Jaca eta Marisa de Simón Caballero parlamentariak mozio bat aurkeztu zuten, Mahaian hil hartako 28an jorratu zena, landa eremuetako eskolak mantentzeko hainbat alderdi kontuan har zitzala eskatzeko Nafarroako Gobernuari. Mozioaren testuak, beste zenbait arrazoiren artean, honako hau adierazten zuen zioen azalpenean:

«Azken 40 urteetan landa eremuko eskolak ixten ari dira, horrek dakarren guztiarekin. Eskola gabeko herri bat bere bizitza, haurrek ematen duten bizia, galtzen doan herri bat da. Landa eskola publikoak herrietako bizitza mantentzen laguntzen du, hezkuntza komunitateak lan proiektuetan duen parte hartzea handitzen du, ikasleak teknologia berrietarako prestatzen ditu, irakaskuntza pertsonalizatua eta kalitatekoa ematen du, talde lana sustatzen du, bizitzak ekartzen dituen erronkei aurre egiteko kritiko eta gogoetatsu bihurtzen ditu ikasleak, balioen hezkuntzan laguntzen du, laburbilduz, eguneroko zereginetarako gai bihurtzen ditu ikasleak. Familiei eskolara joateko mugiarazten bazaie, zailagoa bihurtzen da familiek bertan parte hartzea».

Hezkuntza Batzordeak 2012ko ekainaren 21ean onetsitako ebazpenak puntu hauek kontuan hartzeko eskatzen zion Nafarroako Gobernuari:

- Berezko bestelakotasuna: halako eskolak onartzea eta dituzten berezitasunetan oinarrituta tratatzea Administrazioaren barruan, haien berezko ezaugarriak kontuan hartzen dituzten eremu berriak sortuz.
- Ireki eta berririkitzea: gutxieneko kopuru bat ezartzea, herriak hala eskatuz gero nahitaezkoa izan dadin eskola irekitzea.
- Ekonomismoan oinarritu gabeko ikuspegia, zerbitzu publikoa: herriak bizirik mantentzeko, zerbitzu publikotzat ulertu behar da hezkuntza; onura ekonomikoen gainetik dagoen eta beharrezko inbertsioak egitea behar duen zerbitzu gisa.
- Diskriminazio positiboko politikak: haren berezitasunetatik abiatuta, laguntza berezia eman behar da beharrezko proiektu propioak garatzeko.
- Eleaniztasunarekiko begirunea: herriko eskolan eskolatzeko aukera, indarrean dauden zonifikazio mugen gainetik.
- Kultura Ondarea: neurriak hartzea, Europako gainerako herrialdeetako joerei eta haieran landa eskolei ematen ari zaion tratamenduari jarraikiz.

- Landa eremuetako irakasleen ibilbide profesionala sustatzea, lan baldintzak: erraztasunak eta pizgarriak ematea eremu horietako irakasleei, lanpostuak erakargarriago bihurtuz eta egonkortasuna bermatuz. Plantillak eratzeko, ez da landa eskolen berezitasunak kontuan hartu gabe unitateak ezabatzeraz daraman ikasle zenbaketa soila baliatu behar.
- Prestakuntza: Unibertsitatean berariazko prestakuntza ematea, eremu bakoitzeko IGA prestakuntza ematea, landa eskoletan irakasle dabilentzantzat.
- Landa Eskolaren Bulegoa; ezinbestekoa da eskola horien premia eta berezitasunei erantzuteko organo eraginkor batek jardutea.
- Aipatu diren premiak asetzeko Eskola Mapa bat: gaur egungo zonakatzearen zentzugabekeriarekin bukatu, eta herrien premien arabera zonaldeak egin».

Ondoren, 2016ko otsailaren 1ean, Nafarroako Parlamentuko talde sozialistak mozio bat aurkeztu zuen; haren bidez, neurri egokiak hartzeko eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari, landa eskola hezkuntza erakunde gisa mantentzeko, duen antolamendu egitura heterogeneo eta bereziarekin; era berean, eskatu zitzaion beharrezkoak diren baliabideak jar zitzala eskolak eratzen dituzten eskola unitateen sarea mantendu eta ezartzeko.

Zioen azalpenean, honako hau adierazi zuen María Chivite Navascués parlamentariak:

«Erakunde honen aldeko apustuak, dela hainbat udalerrri mugakiderentzako ikastetxe txikiak bilduz, landa eremuko eskolen desagerpena saihesteko hautabide gisa, oso-osoko gizarte neurri gisa, dela baliabide materialez, giza baliabideez eta eskola jantokien moduko programa nahiz zerbitzu osagarriez hornitzeko sistema bat ezarriz, berehalako eragina du landa eremuaren finkapenean, eta horrek beren herrian garatzeko aukera ematen die Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei». (...)

«Gaur egun, hezkuntza legeak aldatzen ari diren une batean eta krisialdiko testuinguru sozioekonomiko batean gaudelarik, landa eremuko hezkuntzaren kaltetan diren hezkuntza arauak garatzeko arriskuan gaude. Nafarroako herri askotako hezkuntza komunitateak daude landa eskolari eragin dakioken kaltearen beldur».

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2016ko maiatzaren 5ean egin osoko bilkuran, ebazpen bat eman zuen honako hau adieraziz:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio neurri egokiak har ditzala landa eskola hezkuntza erakunde gisa mantentzeko, duen antolamendu egitura heterogeneo eta bereziarekin; era berean, eskatzen dio beharrezkoak diren baliabideak jar ditzala eskolak eratzen dituzten eskola unitateen sarea mantendu eta ezartzeko, eta iragan legegintzaldian hartutako erabakia, zioen azalpenean aipatua, bete dezala.
2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio mantendu egin ditzala landa eremuko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak, haien jarraitutasuna gutxienerako ikasle kopuru batera mugatu gabe, biztanle gutxiago dituzten udalerrietan

halakoak egon daitezela bermatzeko, gizartearen erreferentzia gisa balio dezaten eta landa eremuko biztanleriari eusteko aukera eman dezaten. Landa eremuko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoei behar adina bitarteko eta baliabide pertsonal, ekonomiko eta tekniko emanez, irakaskuntza kalitate-maila ego-kiak eskaintzeko modua izan dezaten».

Bestalde, Nafarroako Gobernuak legegeintzaldi honetarako hartutako erabakian landa eskolari buruzko bi puntu sartu dira; hain zuzen, honako hauek:

“18. Hezkuntzaren konpentsazioko neurriak ezartzea landa eremuan eta eskola konzentrazioetan.

19. Apustu irmoa egitea landa eskolak mantendu eta sustatzearen alde. Babesa ematea eta abian jartzea parlamentuaren gehiengoak iragan legegeintzaldian onetsitako dekalogoia.”

Laburbilduz, baieztatu dezakegu eragile sozial, profesional, ekonomiko eta politiko gehienak kezkatzen dituela Nafarroako landa eskolaren etorkizunak. Egoeraren diagnostikoak sortzen duen adostasunaren aurrean, etorkizunerako zenbait proposamen plazaratuz egin behar dugu aurrera.

Landa eskolaren ezaugarriak

Landa eskolak ihes egiten die definizio zehatz eta itxiei; horren ordez, halako eskola guztiek hein handiagoan nahiz txikiagoan dituzten bereizgarrien zerrenda batetik abiatu gaitzeko hura ezaugarritzeko. Horiek kontuan hartuta, esan liteke landa eskola hezkuntza modalitate bat dela, eta berau ezagutzeko aukera ematen duten bereizgarri batzuk dituela. Hartara:

- Orokorrean, herri txikien premia bereziei erantzuten dien eskola mota bat da.
- Herri horien iragan ekonomikoa, oro har, nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta horien ondoriozko jarduerekin lotuta dago. Gaur egun, aldiz, lausoagoak dira ezaugarri ekonomikoak; izan ere, zerbitzuekin eta turismoarekin lotutako jarduerak hazi dira.
- Helduak eta aurreko belaunaldiak ere landa eskolan izan dira eskolatuak. Horregatik, gizarte harreman zabal-bizirik izaten ditu oinarri.
- Hezkuntza komunitateko eta ingurunekeo kideek eskola laguntzen eta sustatzen dute.
- Landa eskolak lotura handia izaten du herriko udalarekin. Udalak laguntza eman ohi dio eskolari, jarduerak erraztuz, instalazioak lagaz, diru-laguntzak emanez, etab.
- Komunitateak,aldi berean, eskolaren instalazio eta zerbitzuak erabiltzen ditu. Landa eskola herriari bizia ematen dion instituzio bat da.
- Ezin da ulertu herria eskolarik gabe. Eskola galtzen denean, herria dinamizatzen duen instituzio bat galtzen da.
- Landa eskolako irakaslanak berriazko prestakuntza izatea eskatzen die profesiona-
lei.
- Landa eskolako irakasleek ikasleen egoera, maila eta adin desberdinetara egokituz gauzatu behar dute beren irakaslana eta hezkuntza lana.

- Irakasleen egonkortasunak ikasleak pertsonalki ezagutzeko bide ematen du, baita proiektu pedagogikoa finkatzeko ere.
- Moldakortasun hori tartean, eroso izaten da esperimentazio hezigarria eta pedagogia aktiboen garapena.
- Landa eskolak irakaskuntza jarduera eta ikasleen ikaskuntza ingurune hurbilarekin lotzera jotzen du.
- Gai izan behar du hurbil dagoena, batetik, eta ezagutzak unibertsalizatzeko aukera ematen duten errealtate eta ereduak, bestetik, alderatzeko.
- Landa eskolaren inguruabarrak mesedegarriak dira ikasleen arteko lankidetzara jarrera eta ikaskuntza kooperatiboa lantzeko. Hainbatetan, gainera, litekeena da maila anitzetan taldekatuta egotea eta hori lagungarri suertatzen da.
- Ikasleen kopurua urria bada, zenbaitetan, baliteke gertuko beste ikastetxe batzuekin batera jarduerak egin beharra.
- Landa eskola egokia da ikasle eta familia guztiek eta beste herritar batzuek parte hartzeko jarduerak antolatzeko.
- Zerbitzu osagarriak antolatzeko zailak dira, eta funtzionatzeko baliabide eta babes egokiak behar dituzte.

Landa eskola berrirako proposamenak

Gaur egungo egoerak eta gure Komunitatean adierazitako interes ukaezinak Nafarroako landa eskolarako Plan bat presta dadila eskatzen dute. Hainbat hamarkadaz egin diren ekimen partzialen ondoren, zalantzarik ez da egokia dela proposamenak hezkuntza eremutik eta eremura begira zertuko dituen Plan bat egitea, betiere landa ingurunean dauden eragile ugariarekin zuzeneko harremanetan.

Balio dezatela hurrengo lerroek, bada, adituen eta landa eskolarekin lotura duten zenbait erakundetako ordezkarien artean prestatu eta eztabaidatutako proposamen gisa.

- Banaketa tradizionalak –haurtzaro eta gaztaroa hezkuntzarekin lotuta, helduaroa lanean eta zahartzaroa egonean– ez du zerikusirik gaur egungo bizitzaren errealtatearekin. Hezkuntza ezin da ulertu ez badu gizakien bizitza bere zabaltasun osoan betetzen; horregatik hitz egiten da bizialdi osoko ikaskuntzaz (oinarrizko prestakuntza, prestakuntza soziokulturala eta lanerako prestakuntza). Landa eskolak, beste egitura batzuekin batera, bizialdi osorako ulertutako hezkuntza zerbitzuaren parte aktiboa izan behar du.
- Hezkuntzaren adiera zabalak izan behar du abiaburu, betiere ongi jakinik eskolak funtsezko eginkizuna duela hezteko zereginetan, baina beste eragile garrantzitsu batzuekin koordinazioa bilatu behar da, hartara, ingurunearekin lotura eta ikuspegi unibertsala duten hezkuntza ibilbide egokituak sortzeko. Bestela esanda, landa eskola eskolatze modalitate berezi baten barruan dago, eta bereiz ulertu behar da.
- Landa inguruneak kultura ondare ukigarri eta ukiezinaren funtsezko zati dira; hortaz, ezaugarri hori kontuan hartuko duten ekimenak egin behar dira, beste inguru batzuetako landa eskoletan orokortzen ari den joerari jarraikiz. Herri hezitzaileen kontzeptu hori eratzeke, oinarrizkoak dira lurraldean dauden erakunde eta organizazioak. Landa eskolak

dituzten herrietako udalak eragile nagusi dira, eta izaten jarraitu behar dute, ongizaterako eta komunitate osoari ematen zaion zerbitzuaren kalitatea arian-arian hobetzeko.

- Ezinbestekoa da eskola mapa bat egitea, funtsezko helburutzat Nafarroa egituratzea duena. Mapa horrek integrala, integratua eta integratzailea izan behar du. Horiek horrela, kontuan izan behar du eskualdekotzea, eta horrek esan nahi du mapa bakar batean bildu behar direla gaur egungo hezkuntza eta kultura sareak, beste zerbitzu publikoen mapekiko harmoniaz. Eskualdeak izan behar du hezkuntza plangintzaren erreferente nagusia, baina ez bakarra; izan ere, eskualdez gaindiko zentro eta zerbitzuak egon daitezke.
- Eskualde mapa hori antolatzea epe ertainerako helburu bat da, eta eskualdeko erakundeek jada aintzatetsiak dituzten edo etorkizunean esleituak izanen dituzten eskumenak beren gain hartu ahala prestatu beharko da. Eskualdekotzea edo zenbait eskolaren artean sareak eratzea lagungarria izan daiteke gizarte globalizatuaren eskari berriei egokitutako landa eskola baten eginkizunean, eta bultzada eman diezaike eskualde izaera duten hezkuntza eta kultura proiektuei.
- Herriak bizirik mantentzeko aukera emanen duen zerbitzu publikoaren ikuspegia lehenetsi behar da. Gutxieneko ikasle kopuruen ezarpena modu malguan interpretatu behar da, eskolen jarraitutasuna ahalbidetzeko. Landa eskolaren finantzaketa ere berezia da. Administrazioak bere gain hartu behar du ikaspostuak izan dezakeen kostu handiagoa, haren parte delako.
- Landa eskolak bere inguruabarrak interpretatzen dituzten eta beharrezko proiektuak gauzatzen laguntzen duten diskriminazio politikak behar ditu. Antolatzeko, ezinbesteko neurria da koordinazio organo egonkor bat eratzea Hezkuntza Departamentuaren barruan, erantzuna eman diezaien eskola horien berezko premia eta berezitasunei.
- Etorkizunerako ekimen bat izan liteke landa eskolaren behatoki bat eratzea, ekimenak hausnartu eta, hala badagokio, proposatu ditzan, tokiko nahiz foruko administrazio publikoetatik, unibertsitateetik eta eragile komunitario, ekonomiko eta kulturalengandik, beste autonomia-erkidego batzuetan jada ibilbide luzea duten batzuek bezala.
- Komeni da landa inguruneke ikastetxeek bildu beharreko kalitate eskakizunak zehaztea, edozein dela ere horien tamaina eta irakasten dituzten mailak. Hala, azpiegituren hobekuntzan jardun ahal izanen da, eraikinak eraberritu eta hobetzeko plangintzekin, hezkuntza komunitatetik gogoetatuz espazio propioen diseinua, beste udal eta eskualde erakundeekin partekatutako eremuen analisia, hezkuntza ekipamenduen eguneraketa, ikastetxe arteko lotura, informatika sareen hobekuntza, etab.
- Irakasle taldeen eta beste langileen zehaztapenak bat etorri behar du premiekin; aldi berean, hobetu behar dira irakasle ibiltarien lan baldintzak eta antolatzeko malgutasuna baliabideen erabileran; sustatu behar dira irakasleen egonkortasuna, ikastetxeetako prestakuntza taldeak eta bereziki landa eskoletan ohikoa den moduan taldekatutako ikasleentzako materialak prestatzen dituzten ikastetxe anitzeko irakasle taldeak; eta bultzatu behar da ikasgeletan eta ikastetxeetan berrikuntza proiektuak egiteko sustapen administratibo eta ekonomikoa.
- Ezinbesteko zeregina da irakasleei prestakuntza egokia ematea. Lehenik eta behin, hasierako prestakuntzari dagokionez, unibertsitateko ikasketetan landa eskolekin lo-

tutako edukiak sartuz eta ikerketa proiektu espezifikoak bultzatuz. Bigarrenik, etengabeko prestakuntzan, landa eremuan diharduten irakasleei aukera berriak zabalduz eta, bereziki, hezkuntza esperientziak trukatzeko elkargune eta mintegiak sustatuz. Bestalde, lehenbiziko aldiz landa eremuko ikastetxe batera bidalitako irakasle batek hasierako prestakuntza ikastaro bat egin behar du eskolak ematen hasi baino lehen.

- Landa eremuetako irakasleen ibilbide profesionala eta lan baldintzak hobetzeko, pizgarriak proposatu, lanpostuak erakargarri bihurtu eta egonkortasuna bermatu behar da. Plantillak eta erabilitako irizpideak prestatzean, komeni da halako ikastetxeen berezitasunak kontuan hartzea.
- Landa eskolak hizkuntza testuinguru gero eta konplexuagoetan daude kokaturik. Nafarroan, banaketa oso bereziarekin, gaztelania eta euskara dira ikasteko eta eskola barruan nahiz kanpoan komunikatzeko erabilitako hizkuntzak. Azken urteotan, ingelesak garrantzi nabarmena hartu du eskolan, arian-arian eta lehentasunez. Komunikazioak, familien mugikortasuna edo beste hizkuntza batzuk dituzten etorkinak gizartea eraldatzen ari dira; ondorioz, landa eskoletara ere iristen dira aldaketa faktore horiek guztiak. Testuinguru eleaniztun horiek erronka berriak dakartzate planteatu beharreko hizkuntzek kulturalki eta curriculumean izan behar duten antolamenduari buruz, eta ez dira zalantzarik gabeak.
- Zenbait landa eremu Frantziaren mugakide dira edo handik oso hurbil daude, eta logikoa dirudi bi eremuon interesekoak diren proiektu partekatuak proposatzea, mugaren alde bietako ikastetxeen artean, edo gogoeta egitea curriculumari eta ekintza osagarriari edo eskolaz kanpoko ekintzei buruz, 2016-2017 ikasturtean Luzaide-Valcarlos eta Arnegiren artean hasi dena moduan.
- Landa eskolek autonomia zabala hartu ahal eta behar dute beren gain, beren baliabideak antolatzeke, irakaste-ordutegia ezartzeko, curriculuma heziketa proiektuetara egokitzeko, ekimen berritzaileak sustatzeko, ikasleen dibertsitateerako programak egiteko, hezkuntza komunitatearen parte-hartzea bultzatzeko edo kultura jarduerak antolatzeke.
- Landa eskolen multzoak koordinazio sareak diseinatu behar ditu, askotariko eskualdeetan hezkuntzaren, ingurumenaren, kulturaren eta gizartearen arloan dauden baliabideak partekatzeko moduan, jarduera horiek beren hezkuntza proposamenetan txertatuz, eta eskualdeko baliabideak ustiatzeko, ikasleen gizarteratzea sustatzeko eta tokian tokiko erakundeekin lankidetzarako bideak ezartzeko bide emanaz.
- Landa eskolak hezkuntza berritzaile indartzen jarraitu behar du, ikasleei beren ohiko bizilekuaren aldean bestelakoak diren inguruneak ekartzeko eta, hartara, haiek beste errealitate interesgarri batzuekin harremanetan jartzeko. Baina, horrez gain, aurrez aipaturiko pedagogia eta antolamendu autonomia errespetatuz, sustatu egin behar du eremu bereko hainbat ikastetxeren artean partekatutako heziketa proiektuak abiarazteko eta, lehendik ere badituzten baliabideak erabiliz (liburutegiak, kultur etxeak, museoak, monumentuak, paisaiak, lanbide tradizionalak eta garaikideak, etab.), ikasleak ardatz dituzten gizarteratze ekimenak martxan jartzeko aukera.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako hezkuntza zerbitzuen zonakatzea dagozkion Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekin lotu behar da, etapan arteko jarraitutasuna ziurtatuta gera

dadin etapa desberdinetara atxikitako irakasleen arteko koordinazio lanaren bitartez, horrenbestez, elementu komunak indartzeko.

- Ikastetxeek lotura iraunkorrak ezarri behar dituzte hezkuntzaren eta kulturaren arloko landa eremuko beste instantzia batzuekin. Hezkuntza lan partekatua da, eta ez da ikastetxean soil-soilik garatzen. Ezinbestean zabaldu behar dira prestakuntza eskaintzak, bai irakaskuntza arautuetan, non gaur egun handiagoak baitira gabeziak (haur eskolak, LH, helduen hezkuntza, musika eskolak, etab.), bai beste biztanleria tarte batzuetan gero eta eskari handiagoa duten beste irakaskuntza kultural batzuetan.
- 0-3 urteko hezkuntza etapa behar-beharrezkoa da, nola hirian, hala herrian ere, elementu hezigarri eta gizarteratzailea baita. Beraz, administrazioei adorea eta laguntza eman behar zaie eskaintza publikoa ahal bezain zabala izan dadin. Landa ingurunean lankidetzatza ona izan behar da eskolan, proiektua eta espazioak partekatzeko, autonomia sustatzeko eta, aldi berean, baita koordinazioa ere, baterako heziketa proiektuak prestatzeko.
- Hezkuntza administrazioak ikastetxe arteko koordinazioa bultzatu behar du, mailakatuak nahiz maila anitzekoak izan. Kudeaketa, antolamendua eta administraziozko zerreginak partekatzea bitarteko ona da isolamendua gainditu eta zerbitzua hobetzeko.
- Administrazioek beren gain hartu behar dute garraio eta jantoki zerbitzuen plangintza eta kudeaketa, eta kalitatea eta ahal den guztietan herrietan bertan txertatuta egotea uztartu. Hala, bada, jantokiak gero eta lotura handiagoa izan behar du tokiko garapen jasangarriarekin, eskola bakoitzetik gertuen dagoen ekoizpen eta banaketarekin harremanak eratuz.

Laburbilduz, nafartar landa eremuko ikastetxeen abiapuntu duten errealitate aberats eta konplexua hobetu daiteke, beraiekin harremana duten hezkuntza, kultura eta gizarte eragileen bultzada koordinatu batekin. Ikuspuntu honetik testu hau landu da, eta oinarritzko hezkuntza zerbitzua honen kalitatea handitzeko akordio eremua proposatzea helburu du.

Eranskinak

1. eranskina: biztanleria, adin taldearen eta sexuaren arabera. Espainia. 2016ko urtarrilaren 1a						
	Biztanleria			Ehunekoak		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumezkoak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumezkoak
Guztira	46.524.943	22.829.325	23.695.618	100,0	49,1	50,9
0-4	2.161.836	1.112.894	1.048.942	4,6	2,4	2,3
5-9	2.475.976	1.274.124	1.201.852	5,3	2,7	2,6
10-14	2.337.886	1.198.056	1.139.830	5,0	2,6	2,4
15-19	2.181.655	1.122.696	1.058.959	4,7	2,4	2,3
20-24	2.315.823	1.181.027	1.134.796	5,0	2,5	2,4
25-29	2.615.280	1.311.130	1.304.150	5,6	2,8	2,8
30-34	3.152.935	1.584.326	1.568.609	6,8	3,4	3,4
35-39	3.886.597	1.979.045	1.907.552	8,4	4,3	4,1
40-44	3.939.481	2.008.314	1.931.167	8,5	4,3	4,2
45-49	3.714.788	1.873.068	1.841.720	8,0	4,0	4,0
50-54	3.458.378	1.719.863	1.738.515	7,4	3,7	3,7
55-59	3.068.157	1.506.741	1.561.416	6,6	3,2	3,4
60-64	2.561.040	1.241.516	1.319.524	5,5	2,7	2,8
65-69	2.339.046	1.109.837	1.229.209	5,0	2,4	2,6
70-74	1.964.601	907.398	1.057.203	4,2	2,0	2,3
75-79	1.572.715	683.024	889.691	3,4	1,5	1,9
80-84	1.425.655	572.945	852.710	3,1	1,2	1,8
85 eta +	1.353.094	443.321	909.773	2,9	1,0	2,0

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin


2. eranskina: biztanleria, adin taldearen eta sexuaren arabera. Nafarroa. 2016ko urtarrilaren 1a						
	Biztanleria			Ehunekoa		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumezkoak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumezkoak
Guztira	640.339	317.678	322.661	100,0	49,6	50,4
0-4	31.991	16.425	15.566	5,0	2,6	2,4
5-9	35.134	18.006	17.128	5,5	2,8	2,7
10-14	33.337	17.065	16.272	5,2	2,7	2,5
15-19	31.417	16.034	15.383	4,9	2,5	2,4
20-24	30.664	15.734	14.930	4,8	2,5	2,3
25-29	32.908	16.634	16.274	5,1	2,6	2,5
30-34	40.531	20.336	20.195	6,3	3,2	3,2
35-39	51.799	26.690	25.109	8,1	4,2	3,9
40-44	53.524	27.609	25.915	8,4	4,3	4,0
45-49	51.026	26.182	24.844	8,0	4,1	3,9
50-54	47.493	24.146	23.347	7,4	3,8	3,6
55-59	42.005	21.113	20.892	6,6	3,3	3,3
60-64	35.576	17.776	17.800	5,6	2,8	2,8
65-69	32.873	16.015	16.858	5,1	2,5	2,6
70-74	27.721	13.285	14.436	4,3	2,1	2,3
75-79	20.913	9.344	11.569	3,3	1,5	1,8
80-84	20.028	8.258	11.770	3,1	1,3	1,8
85 eta +	21.399	7.026	14.373	3,3	1,1	2,2

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

3. eranskina: Jaiotzak autonomia-erkidegoaren arabera, 2000-2015					
Autonomia Erkidegoa	2000	2005	2010	2014	2015
Guztira	397.632	466.371	486.575	427.595	419.109
Andaluzia	80.579	91.807	92.201	82.195	80.523
Aragoi	9.921	11.628	12.940	11.602	11.330
Asturias	6.731	7.482	7.763	6.600	6.457
Balearrak	9.502	10.925	11.967	10.673	10.580
Kanariak	18.981	20.127	18.305	16.398	16.161
Kantabria	4.341	5.267	5.575	4.565	4.368
Gaztela eta Leon	17.874	19.425	20.486	17.886	17.366
Gaztela-Mantxa	16.723	19.007	21.998	18.392	18.175
Katalunia	63.807	79.766	84.368	71.589	69.902
Ceuta	996	1.065	1.192	1.202	1.093
Extremadura	10.133	9.993	10.128	9.167	8.854
Galizia	19.418	21.097	22.047	19.630	19.412
Errioxa	2.346	3.038	3.374	2.834	2.734
Madril	56.623	69.367	73.878	65.505	64.681
Melilla	1.103	1.012	1.359	1.625	1.518
Murtzia	14.195	17.330	18.039	16.308	15.947
Nafarroa	5.262	6.149	6.778	6.183	6.013
Euskal Autonomia Erkidegoa	17.316	19.698	21.170	19.379	18.840
Valentziako Erkidegoa	40.775	50.628	51.684	44.343	43.311
Atzerrian bizi direnak	1.006	1.560	1.323	1.519	1.844

Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

4. eranskina: 2014-2029 aldirako proiektatutako hazkunde erlatiboa, autonomia-erkidegoaren arabera



Iturria: Guk geuk egina, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin

5. eranskina: Landa eskoletako zonaldeen konparazioa			
Zonaldea	Egoitza	Koordinazioa	
1. Zonaldea	Irurita	Landa Eskolen Koordinatzailea - osoa	
2. Zonaldea	Sunbilla	Landa Eskolen Koordinatzailea 13 ordu	
3. Zonaldea	Jauntsarats	2 ordu	
	Areso	10 ordu	
4. Zonaldea	Koordinatzen dira	Arantza	7 ordu
		Etxalar	7 ordu
		Igantzi	7 ordu
		Lesaka	2 ordu
		Bera	2 ordu
5. Zonaldea	Erronkari (IP - DBHI)	13 ordu	
6. Zonaldea	Otsagabia (IP - DBHI)	13 ordu	
7. Zonaldea	Garralda	Landa Eskolen Koordinatzailea ½ + ILZ aholkularia ½	
8. Zonaldea	Olazti	Landa Eskolen Koordinatzailea ½ + ILZ aholkularia ½	
9. Zonaldea	Koordinatzen dira	Oibar	6 ordu
		Kaseda	8 ordu
		Zare	3 ordu
	Urrotz	3 ordu	
	Irunberri	8 ordu	
10. Zonaldea	Añorbe	2 ordu	
	Obanos	2 ordu	
	Berbintzana	2 ordu	
	Mendigorria	3 ordu	
	Miranda de Arga	2 ordu	
	Pitillas	3 ordu	
	Beire	2 ordu	
	Uxue		
11. Zonaldea	Figarol	2 ordu	
	Murillo	2 ordu	
	Santakara	2 ordu	
	Arrada	2 ordu	
	Melida	2 ordu	
		Landa Eskolen Koordinatzailea - 3 ordu	
12. Zonaldea	Allo	Landa Eskolen Koordinatzailea - osoa 18 ordu	
Iturria: 0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala			

6. eranskina: garraiatutako ikasleak, zonaldearen arabera. 2016-2017			
Herria	Ikastetxeak	Ibilgailuaren ibilbidea	Guztira
Altsasu	"San Miguel de Aralar" BHI / San Donato IP / "Alsasu/Altsasu" IP	Altsasu, Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Dorrao, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Lakuntza Lizarraga, Lizarragabengoa, Unanua, Urdiain	113
Antsoain // Iruñea	"Ezkaba" IP // "Doña Mayor" IP	Artika herria, Artika Berria	96
Agoitz	"San Miguel" IP/ DBHI	Aos, Arrieta, Artaitz, Artaxo, Artieda, Ekai, Elkoatz, Gorraitz Artzibar, Idoate, Imirizaldu, Irurozki, Lizarraga, Meotz, Murillo, Erreta, Santa Fe (Urraulgoiti), Urbikain, Urrotz Hiria, Hiriberri, Billabeta, Zalba	78
Arraioz	Ikastetxe Publikoa	Gartzain	13
Bera	"Ricardo Baroja" IP	Agerra IP	71
Beriain	HLHIP	Arlegi, Biurrun, Arrizabalaga, Cordovilla, Espartza Galar, Ezkirotz, Tebas	48
Berriozar	"Mendialdea I eta II" IP / Berriozar DBHI	Aitzoain, Aldaba, Añezkar, Ballariain, Beltzuntze, Beorburu, Berriobeiti, Berriogaiti, Larrageta, Larrioz, Lotza, Markalain, Nuin, Ollakarizketa, Osakar, Osinaga, Saratsa, Usi, Untzu	183
Betelu	"Araxes" IP	Atallu, Azkarate, Betelu, Gaintza, Uztegi, Errazkin, Intza, Lezaeta	72
Burlata/Atarrabia	"Ibaialde" BHI, Burlata / "Pedro de Atarrabia" DBHI, Atarrabia	Burutain, Egues, Gorraitz, Huarte, Ibiriku, Olatz, Olloki, Urroz	82
Zarrakaztelu	DBHI	Figarol, Melida, Murillo el Fruto, Arrada, Santakara	83
Cascante	"Vicenta María" IP	Barillas, Tulebras	17
Cortes	"Bardenas Reales" DBHI	Buñuel	62
Doneztebe	Ikastetxe Publikoa eta DBHI	Beintza-Labaien, Donamaria, Doneztebe (baserriak), Elgorriaga, Eratsun, Gaztelu, Ituren, Legasa, Narbarte, Oitz, Saldias, Sunbilla, Urroz, Zubieta	291
Elizondo / Irurita	"San Francisco Javier" IP // Irurita IP	Almandoz, Aniz, Arraioz, Berroeta, Elizondo (baserriak), Gartzain, Irurita, Irurita Apote, Lekaroz (baserriak), Oronoz-Mugairi, Ziga	71
Erro	"San Esteban" IP	Aintzinoa, Ardaitz, Esnotz, Lintzoain, Orondritz	14
Lizarra	"Remontival" IP	Abaigar, Abartzuza, Aberin, Allo, Amilao, Antzin, Aramendia, Arbeitza, Arellano, Arroitz, Artabia, Arteaga, Aiegi-La Merced, Azkona, Azketa, Bearin, Deikaztelu, Eraul, Eultz, Galbarra, Galdio, Garisoain, Genbe, Iguzkitza, Iturgoien, Lakar, Larrion, Legaria, Lerate, Lizarra, Lorka, Lukin, Metauten, Morentin, Muniain Iguzkitza, Murieta, Oko, Ollobarren, Oteiza, Errezu, Jaitz, Ugar, Urbiola, Bidaurre, Villamayor de Monjardin, Hiriberri Deierrri, Villatuerta, Zabal, Zubielki, Zufia, Zuruuain	390
Garralda	"Ntra. Sra. de Orreaga" IP / DBHI	Aria, Aribe, Aurizberri, Auritz, Bizkarreta, Hiriberri Aezkoa, Mezkiritz, Orbaitzeta, Orreaga, Ureta, Hiriberri Artze, Abaurreagaina, Luzaide	75

Herria	Ikastetxeak	Ibilgailuaren ibilbidea	Guztira
Goizueta	“Andrés Narbarte Xalto” HLHIP	Aita Semegi, Alkaintzuriain, Alkasoalde (Aristi, Zabala), Arano, Espidealdea (Espide, Itxortxa, Ferminenea)	30
Uharte	“Virgen Blanca” IP	Egues, Elkano, Gorraitz, Ibiriku, Lizoain, Mendiorotz, Lerrutz, Ieltz, Olatz, Olloki, Erripagaina, Sagaseta, Urotz	103
Irurita	Ikastetxe Publikoa	Amaiur, Arizkun, Errazu, Irurita	55
Irurtzun	“Atakondoa” IP	Anotz, Arteta, Azantza, Zirirtza, Etxarri, Etxauri, Egiarreta, Eraso, Erbiti, Errotz, Etxaleku, Etxarren, Etxeberri, Gartzaron, Gulia, Hiriberri, Ibero, Ihabar, Itzarbe, Irañeta, Irurtzun, Izurdiaga, Larunbe, Latasa, Leitza, Lekunberri, Olo, Orkoiain, Ororbia, Oskotz, Iruñea, Saldise, Sarasate, Satrustegi, Senosiain, Uitz, Ultzurrun, Zarrantz, Zuhatsu, Zia, Muskitz, Urritzola	241
Jauntsarats	“Oihanzabal” IP	Aizarotz, Arrarats, Beramendi, Erbiti, Gartzaron, Igoa, Ihaben, Itsaso, Udabe, Beruete, Jauntsarats	71
Larrainzar	“Obispo Irurita” IP / DBHI	Aizarotz, Alkotz, Anotzibar, Aroztegi, Arraitz-Orkin, Auza, Beramendi, Beruete, Beuntza, Ziaurritz, Ziganda, Eguarats, Egillor (Atetz), Eltso, Eltzaburu, Gartzaron, Gaskue, Gorrontz-Olano, Gelbentzu, Gerendiain, Ihaben, Ilarregi, Iraizotz, Itsaso, Lantz, Larrainzar, Lizaso, Ostitz, Erripa, Suarbe, Udabe, Urritzola-Galain, Zenotz, Arrarats, Igoa	305
Leitza	“Erleta” Ikastetxe Publikoa	Ezkurra Gaina (Basakabi), Erasote, Ezkurra, Gorritaran, Erreka	30
Lekunberri	“Ibarberri” IP	Albiasu, Aldatz, Alli, Arruitz, Astitz, Azpirotz, Baraibar, Etxarri, Gorriti, Iribas, Lekunberri, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz	90
Lesaka	“Irain” IP	Banarta, Martxanbaita, Nabazgain, Zala	22
Los Arcos	“Santa María” IP	Acedo, Armañanzas, Asarta, Desoio, El Busto, Esprontzeda, Mendaza, Mues, Nazar, Otiñano, Piedramillera, Santsol, Sorlada, Torralba, Torres del Río, Ubago	49
Irunberri	“San Juan” IP	Arbontze, Artieda, Domeñu, Arripodas	7
Mendabia	P.K. / DBHI	Elizagorria, Mendabia (kuartela)	25
Mutiloabeiti	“San Pedro” IP	Aranguren, Ardatz, Labiano, Taxoare, Zolina	26
Noain	“San Miguel” HLHIP / “Elortzibar” DBHI	Beriain, Biurrun, Arrizabalaga, Cordovilla, Dorre, Elortz, Espartza Galar, Ezkirotz, Gerendiain, Getze, Idotzin, Imarkoain, Izko, Elo, Olatz, Otao, Getze Ibargoiti, Subitza, Tebas, Dorre Elortzibar, Iharnotz, Zabalegi, Zulueta	269
Otsagabia	IP / DBHI	Espartza, Ezkaroze, Gorza, Itzalle, Itzaltzu, Jaurrieta, Orontze, Uskartze	52
Erriberri	“Príncipe de Viana” IP	Beire, Murillo el Cuende	14
Orkoiain	“San Miguel” IP / “Auzalar” HLHIP	Arazuri, Artazkotz, Asiain, Beasoain, Zirirtza, Etxarri, Etxauri, Egillor, Ibero, Iza, Izkueta, Izu, Lete, Lizasoain, Ororbia, Bidaurreta	226

Herria	Ikastetxeak	Ibilgailuaren ibilbidea	Guztira
Iruñea	"Dña. Mayor" HLHIP	Antsoain, Artika	55
Iruñea	"Vázquez de Mella" IP	Mendillorri, Erripagaina Sarriguren, Lezkairuko Zaldúa	25
Iruñea	"Mendigoiiti"- "Elorri" IP / "Mendillorri"- "Elorri" IP	Badostain	4
Iruñea	"Sanduzelai" IP	Bidaurreta, Etxauri, Ororbia, Egillor, Asiain, Iza, Orkoien	33
Iruñea	"Andrés Muñoz Garde" HBIP	Lotza, Berriozar, Buztintxuri, Mendillorri, Azpilagaña, Iturrama, Antsoain, Arrotxape, San Juan, Ermitagaña, Mendebaldea, Barañain, Etxabakoitz, Txantrea, Burlata, Atarrabia, Olloki, Huarte, Gorraitz, Sarriguren, Paternain, Zizur Nagusia, Etxabakoitz, Sanduzelai	71
Iruñea	HLHIP "Amaiur Ikastola" / "Hegoalde Ikastola"	Labiano, Mutiloa, Taxoare, Beriain, Imarkoain, Noain, Tebas, Cordovilla, Espartza Galar, Ezkirotz, Getze Galar	88
Gares	P.K.	Adios, Añorbe, Artazu, Zirauki, Etxarren Girgillao, Eneritz, Girgillao, Legarda, Mañeru, Muruzabal, Obanos, Gares, Tirapu, Ukar, Uterga	163
Erronkari	"Julían Gayarre" IP /DBHI	Burgi, Garde, Izaba, Urzainki, Bidankoze	82
Zangoza	"Luis Gil" IP	Eslaba, Galipentzu, Xabier, Lerga, Ledea, Esa	39
Tafalla	"Marqués de la Real Defensa" IP	Garinoain, Mendibil, Puiu, San Martin Unx	34
Tutera	"Monte San Julián" IP / "Torre Monreal" HBIP	Arguedas, Cabanillas, Cadreita, Cascante, Castejón, Cintruénigo, Corella, Cortes, El Bocal, Fitero, Fustiñana, Milagro, Murchante, Ribaforada, Tutera, Valtierra, Fontellas	78
Uhartea Arakil	"San Miguel" IP	Arruazu, Etxarri, Irañeta	14
Viana	"Ricardo Campano" IP / "Del Camino" DBHI / "Erantzun" Ikastola	Aguilar Kodes, Aras, Bargota	20
Atarrabia	"Pedro de Atarrabia" DBHI Atarrabia / "Lorenzo Goicoa" eta "Atargi" IP	Alkotz, Arraitz, Arre, Auza, Azotz, Zildotz, Enderitz, Etulain, Eugi, Eusa, Huarte, Iragi, Iraizotz, Irotz, Larrasoña, Makirriain, Olague, Orikain, Orrio, Otsakain, Ostitz, Saigots, Urdaitz, Urritzola-Galain, Urtasun, Zandio, Zubiri, Aderitz, Burutain, Eguarats, Eltso, Olabe, Erripa, Sorauren, Urritzola, Agorreta, Ardaitz, Aritz, Egozkue, Errea, Erro, Eñotz, Etsain, Inbuluzketa, Olaitz, Zilbeti	474
Ziga	Ikastetxe Publikoa	Almandoz	7
Zizur Nagusia	"Camino de Santiago" IP/ "Erreniega" HLHIP/ "Catalina de Foix" IP	Arlegi, Arraitza, Asterain, Beraskoain, Zizur Txikia, Espartza Galar, Galar, Gazolatx, Larraia, Otazu, Paternain, Subitza, Ubani, Undio, Zabaltza, Zarikiegi	285
Zubiri	"Xabier Zubiri" IP	Akerreta, Eugi, Ezkirotz, Ilarratz, Ilurdotz, Inbuluzketa, Irotz, Larrasoña, Leranotz, Saigots, Sarasibar, Setoain, Urdaitz, Urtasun, Zabaldika, Zuriain, Agorreta	69
Zudairi	"Las Amescoas" IP	Aranaratxe, Artatza, Bakedao, Barindao, Eulate, Larragoa, San Martin, Zudairi	68

Herria	Ikastetxeak	Ibilgailuaren ibilbidea	Guztira
Urdazubi-Zugarramurdi	Herriarteko Ikastetxea	Landibar, Leorlaz, Urdazubi, Zugarramurdi	47
Garraiatutako ikasleak, guztira			5.030
<p>*Goian deskribatutako ibilbideetan herrien arteko ikasleak garraiatzeko arrazoi anitzak aurkitzen ditugu, eta horregatik taula honen irakurketa eta interpretazioa konplexua da. Arrazoen artean ondoko kasuak bereiztu ditzazkegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - bere bizitokitik (auzo, baserri, barreiatutako tokia...) ikastetxera egunero garraiatzen diren ikasleak, bere herri barruan. - beren jatorrizko tokian lehen eta bigarren hezkuntza ez izateagatik garraiatzen diren ikasleak. - egunero garraiatzen diren ikasleak beren jatorrizko tokian aukeratutako hizkuntza programa edo ereduak ez daukatelako. - zonaldeko beste ikastetxeetan taller pedagogikoak egiteko astero garraiatzen diren ikasleak. - eta, kasu batzuetan, beste familia erabakiengatik garraiatutako ikasleak. <p>Iturria: Eskola Zerbitzuen Kudeaketa Atala</p>			